



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2013-2014 Ikasturtea

Ikerketa lana

Edoskitze naturala ala artifiziala?

Edoskitze hautuaren atzean dauden planteamendu ezberdinetara hurbilpena

Egilea:

Garazi Arluziaga Gondat

Tutorea:

Jone Miren Hernandez García

2014ko Iraila

Aurkibidea

• Eskertza.....	5.or
1. Sarrera.....	6.or
2. Lana justifikatuz.....	7.or
2.1. Ikerketa objektua.....	7.or
2.2. Gaia.....	8.or
2.3. Helburuak.....	8.or
2.4. Hipotesiak.....	8.or
2.5. Metodologia.....	8.or
a. Ikerketa enpirikoaren diseinua.....	9.or
2.6. Zergatiei erantzuna ematen.....	9.or
a. Zergatik amaberriak.....	9.or
b. Zergatik Feministak	9.or
c. Zergatik edoskitzaroa.....	9.or
d. Zergatik lehen hilabetea, hirugarren hilabetea eta bi urtetik gora.....	10.or
e. Zergatik bikote heterosexualak.	10.or
f. Zergatik Osasunaren Antropologia Feminista.....	10.or
3. Marko teorikoa.....	13.or
3.1. Amatasun eta edoskitze prozesuen historiako pasarteak.....	13.or
a. Sarrera.....	13.or
b. Mendeetako gertakariak berrikusten	13.or
c. Edoskitze hautua: zergatiak eta moduak	20.or
d. Gaur egungo korronteen artean: Naturalismoa	22.or
e. Amaiera oharrak	23.or
3.2. Antropologiaren ekarpena.....	23.or
a. Sarrera.....	23.or

b. Edoskitzea ezin da naturalizat jo.....	24.or
c. Amatasun intentsiboa eta edoskitzaroarekiko lotura.....	25.or
d. Edoskitzaroaren alde ilunak ezkutatuak dira.....	26.or
e. Amaiera oharrak.....	27.or
3.3. Biomedikuntzaren egungo diskurtsoa.....	27.or
a. Sarrera.....	27.or
b. Biomedikuntzaren ikuspegi historikoa	27.or
c. Biomedikuntzak ematen dituen gomendioak.....	28.or
d. Instituzioen lana eta Bularreko edoskitzea sustatzeko ekimenak.....	31.or
e. Bularreko edoskitzea sustatzen duten erakunde batzuk.....	33.or
f. Amaiera oharrak.....	37.or
3.4. Feminismoaren erronka.....	38.or
a. Sarrera.....	38.or
b. Feminismoaren bidea puntuz puntu argitzera.....	39.or
c. Desberdintasunetik amatasuna eta edoskitzaroa.....	40.or
d. Berdintasunetik amatasuna eta edoskitzaroa.....	43.or
e. Amatasun intentsiboa eta feminismoaren interpretazioa.....	45.or
4. Ikerketa enpirikoa.....	47.or
4.1. Ikerketa prozesuaren zailtasunak.....	47.or
4.2. Elkarrizketatuen profilak.....	47.or
a. Amaberri Feministen profilak.....	47.or
b. Osasun langileen profilak.....	49.or
4.3. Elkarrizketen analisia.....	50.or
a. Amaberri Feministen elkarrizketen analisia.....	50.or
b. Osasun langileen elkarrizketen analisia.....	67.or
c. Analisi bateratua.....	78.or



5. Ondorioak.....	79.or
6. Bibliografia.....	81.or
7. Eranskinak	85.or
7.1. Eranskina 1: Karmeleri elkarrizketa.....	85.or
7.2. Eranskina 2: Karmeleri bigarren elkarrizketa.....	96.or
7.3. Eranskina 3: Leireri elkarrizketa.....	101.or
7.4. Eranskina 4: Naroari elkarrizketa.....	110.or
7.5. Eranskina 5: Naroari bigarren elkarrizketa.....	131.or
7.6. Eranskina 6: Ainhizeri elkarrizketa.....	147.or
7.7. Eranskina 7: Arritxuri elkarrizketa.....	160.or
7.8. Eranskina 8: Carmeni elkarrizketa.....	176.or
7.9. Eranskina 9: Eztabaida taldea.....	190.or

- Eskertza

Betidanik deitu izan didate atentzioa liburu edota artikuluetan jendeak idatzi izan dituen eskertzek. Lan marduletan egin ohi den zerbait dela iruditu izan zait, benetan jendearen laguntzak zerikusia izan duenean berau erditzerako garaian. Nire ingurukoek ondo dakite niretzat ere lan hau handia izan dela, neketsua eta polita. Bakarrik ezin izango nuena egin, beraz, ni ere eskertza bat egitera noa. Lehenik eta behin nire tutorea izan denari, Joneri, beti izan ditu denbora, arkatza eta animoak niri eskaintzeko. Limoizko bizkotxoan bueltan egindako elkarrizketetan beren bizipen intimoenak kontatu dizkidaten emakume horiei. Transkripzioen lan astunean nahiz zuzenketetan lagundu didaten hiru alproja horiei. Milari, lanera freskura eta konfiantza ekartzeagatik. Frigorifikoa tuperwarez josi didanari. Behin eta berriz buruan izan ditudan ideia horietaz hitz egiteko kantxa eman didaten guzti horiei, batez ere Leioara bidean lagundutako bi lagunei. Kopistegi arazoak konpondu dizkidan Majisteritza eskolako bikoteari. Eta bereziki feminismoan hezi nauten eta ikerketara salto egiteko eredu izan diren ama eta aitari.

1. Sarrera

Aurrean duzun lana Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrerako egindako lana da. Bertan master hau gaitzeko egin beharreko tesinarekin egingo duzu topo, eta testuan zehar amatasuna eta edoskitzaroaren inguruko hausnarketak barnebiltzen dira.

Historiaren, antropologiaren, biomedikuntzaren eta feminismoaren sareetan gaien murgilduz, eta amaberri feministen nahiz osasun langileen esperientziak jasoaz, garai honetan ematen diren gertaera, diskurtso eta praktikak topatuko dituzu lanean zehar.

2. Lana justifikatuz

Zergatik erabakitzen du erizain batek antropologiara salto egitea, eta bertatik feminismoko masterrean murgilduta amatasun estrategiak ikertzea? Hutsuneak betetze asmoz edo, aurrean duzun lanak bi mundu hauen artean dantzan dabilen pertsona baten ikerketa eta hausnarketa izatea du helburu.

Baina zergatik merezi du ikerketa bat egiteak?

Gure gizartean pertsonen emaria handia da, joanak eta etorriak. Aitzitik emakume bat haurdun geratzen den momentuan bertako zentro bilakatzen da. Begirada gehiago jasoko ditu, aholkuak, galderak, ukitzeak. Hainbeste atentziok badu eragin bat: emakumeak etengabe epaituak dira euren ama izateko moduarengatik. Mundu guztiak daki zer den ama on bat izatea, eta patro horren arabera da epaia. Honen jabe nire enpleguan izan naiz, bertan talka handi bat izan dut. Niri, nire biomedikuntzaren motxilarekin kargatuta nindoala, bat batean errealitate soziala jarri zait parez pare. Osasun zientzian eremu soziala gutxi ukitzen da, eta amatasunaren inguruan jasotzen diren nozioetan gehienbat behar fisiko eta psikologikoak aipatzen dira, hauek asetzeko bide onenak. Aitzitik, osasuna ongizate fisiko, psikologiko eta soziala bezala definitua da (OME,2005), beraz zer gertatzen da eremu sozialean?

Haurrari dagokionez argi eta garbi azaltzen da aukeraketa onena zein den bizitzako lehen uneen: amagandiko edoskitzea. Zenbaitetan biberioa pozoi gisa ere aurkeztua da, bere alde txarrak bizi guztirako ondorioak izango direla ere irakur dezakegu hainbat tokitan (LLL web&Sterken,2006). Baina egoera bera aurrez aurre duzunean konturatzen zara beharren aniztasunaz, amen bizipenak ugariak direla, batez ere umea elikatzeko egiten duten aukeraketaren ingurukoak. Eta bada gauza bat asko errepikatzen dena, erruduntasun sentipena. Baina zergatik dauka edoskitzaroak hainbesteko garrantzia hain zuzen? Haurraren lehen hilabeteetan berak ia jan, lo eta iraitzi besterik egiten ez duenez, alderdi hau da kontrolatu daitekeen bakarrenetakoa, bertan dago amaren egiteko handienetakoa, hala ulertzen da behintzat. Amatasun estrategiak eta edoskitzaroa ikertu nahi ditut sentimendu hauen oinarria joateko, hala bidea argitzen laguntzeko.

2.1. Ikerketa objektua

Edoskitzaroa prozesu eta praktikak.

2.2. Gaia

Edoskitzaroaren prozesu eta praktiken azalpena amaberrien nahiz osasun langileen esperientzietan oinarrituz.

2.3. Helburuak

1. Edoskitzaroko prozesua azaltzea eta bertan amek eta aitek izan ditzaketen bizipenak aditzera ematea.
 - 1.1. Edoskitzearen inguruan gizartean dauden eredu eta diskurtso nagusiak jaso eta ikertzea.
 - 1.2. Amaberriek edoskitzaroaren inguruan dituzten informazio iturri nagusiak zeintzuk diren aztertu eta hauetan aurkitzen dituzten diskurtso eta erreferenteetan sakontzea.
 - 1.3. Amaberrien sailean lan egiten duten osasun langileen ikuspegia jasotzea edoskitze praktiken inguruan.
2. Urteetan zehar Feminismo mugimendutik eman den amatasun intentsiboaren kritika azaltzea.
 - 2.1. Amaberri Feministen posizionamendua ikertzea Feminismotik amatasun intentsiboaren inguruan zabaldu diren kritiken inguruan.
 - 2.2. Amaberri feministen amatasun-jarrerak ikertzea edoskitzarotik abiatuta.

2.4. Hipotesiak

1. Gizarte honetan amagandiko edoskitzaroaren inguruan eraikita dagoen irudikari nagusiak amaberriak esentzialismora eraman ditzake eta honek ama onaren figura indartzea dakar.
2. Ama onaren figurak edo amatasun intentsiboak ama bera menderatu dezake.

2.5. Metodologia

Lanean zehar ama feministak ikertu ditut eta baita osasun langileak ere. Honetarako metodologia kualitatiboa lagun, eztabaida talde bat egin dut osasun langileekin, elkarrizketa sakona Donostia Ospitalean edoskitzaroaren arduraduna den erizainarekin, eta elkarrizketa sakon ezberdinak ama feministei, bularreko esnea nahiz esne artifiziala eman dutenei.

a .Ikerketa enpirikoaren diseinua

- Elkarrizketa sakonak:
 - Donostia Unibertsitate Ospitaleko edoskitzaroko erizain erreferenteari elkarrizketa.
 - Ama berri feministei:
 - Erditze osteko lehen hilabetean eta hirugarren edo laugarren hilabetean:
 - 2 elkarrizketa edoskitze naturala egin dutenei.
 - Elkarrizketa bat edoskitze artifiziala egin duenari.
 - Lehen erditzetik bi urte pasata gutxienez:
 - 2 elkarrizketa edoskitze naturala egin dutenei.
 - Elkarrizketa bat edoskitze artifiziala egin duenari.
- Eztabaida taldea: Amaberrien unitateko 2 erizain eta erizain laguntzaile batekin. Baldintza: edoskitzaroko kurtsoa egin edukitzea.

2.6 Zergatiak erantzuten

a. Zergatik amaberriak

Erizain ikasketak amaitu nituenetik ez naiz Donostia Unibertsitate Ospitaleko ama-haur eraikinetik atera. Beraiekin lanean bizitako momentu guztien ondorio bertatik egindako hausnarketen isla izan nahi duelako lan honek.

b. Zergatik Feministak

Amaberri Feministak aukeratzearen arrazoia, euren pentsamendu kritikoa bilatzean datza. Bere burua feminista kontsideratzen duen pertsona batek sistemak ezarritako pentsamolde, gertaera, rol eta abarren inguruan pentsamendu kritiko bat garatua edukiko duela abiapuntu izanik, halako ikerketa labur baterako kritikotasun horretatik zer pentsatzen den ikertzea da helburua. Bereziki interesgarria litzateke halako hausnarketa egin ez duen jendeak gaiaren inguruan zer pentsatzen duen ikertzea, baina hori beste ikerketa bat litzateke.

c. Zergatik edoskitzaroa

Edoskitzaroa hautatzearen arrazoi nagusiak bi dira:

Lehen, arestian esan bezala, erizain bezala ospitalean lan egiten dudala amaberriekin, eta bertan lanean hasi nintzenetik edoskitzaroak zer pentsatua eman didalako. Bai honen zailtasunaren inguruan, bai hau gizartean nola ikusia denaren inguruan, bai emakumeen bizipenaren inguruan eta abar.

Bigarrenik, edoskitze hautuaren zergatiaren atzean, norbanakoaren mundu ikuskera eta ama ikuskeraz asko dagoenaren sentipena dudalako lau urteko jardunaren ondoren.

d. Zergatik lehen hilabetea, hirugarren hilabetea eta bi urtetik gorako elkarrizketak

Edoskitzaroan lehen hilabetea da gogorrena edo gogorrenetakoa jende askorentzat. Amatasunean lehenengoz murgiltzen den emakumearentzat bereziki, baina bigarren, hirugarren edo dena delakoaren haurra duenarentzat ere bai, lehenengo hilabetea baita bularrarekin gogorra edo exijitua. Hirugarren hilabetea amak gai dira edoskitzaroaren nola halako balorazio landu bat egiteko, eta ikerketen arabera garai honen inguruan uzten dute askok bularreko edoskitzaroa eta biberioiekora pasatzen dira. Bi urtetik aurrera balorazioa landuagoa izateaz gain, amatasunean bertan, beste garai batean egonik, beste hausnarketa batzuk daude tarteko. Argudio nagusi hauek dira amaberriak garai ezberdinetan sailkatzearen arrazoiak.

e. Zergatik bikote heterosexualak

Bikote mota hau aukeratzearen arrazoa bere ugaritasunean datza. Ikerketa errazte aldera, bikote eredu antzekoak hartu eta euren artetik patroiz edota konparaketa egitea da helburua. Bestelako bikoteak, hirukoteak edo banakoak ikertzea bereziki interesgarria egiten zait, baina horrelako ikerketa labur baterako ezinezkoa. Bikote heterosexualak izanik sistemak bultzatzen duena, beraiek prozesu hauek nola bizitzen duten ikertzea interesgarri dela deritzot.

f. Zergatik Osasunaren Antropologia Feminista

Erizain batek osasun zientzian ikerketa bat egiteko prestutasuna adieraziz gero, hainbatek pentsa lezake ehuneko altu batean ikerketa hori kuantitatiboa izango dela. Ez noa ni hauen beharraz edo egokitasunaz mintzatzera, ikerketa mota guztiak zilegi izanik, miresgarria iruditzen zait halako abenturan sartzen den edonor. Baina ez naiz abiatuko ni osasun munduko ikerketa klasikoa egitera, hauen kutsu zorrotzetik urrundu nahian bestelako proposamena egiten dut nik. Ikerketa kualitatiboak zergatien sarean murgiltzen uzten digun bezalaxe, osasunaren antropologiak marasma-sare ezberdinak erakutsiko dizkigu. Osasuna/gaixotasunaren prozesu eta atentzioen analisi

alternatiboa eskaintzen digu, eta prozesu hauek testuinguru sozial, ekonomiko, politiko eta kultural konkretu eta anitzetan txertatzen direla erakusten digu (Esteban&Uria,2007). Hala osasun prozesuen aurrean ikuspegi lokal eta partikularra aldarrikatzen du, multikausala, multidimentsionala eta nosologia¹ biomedikoetan ematen den ageriko neutraltasunaren aurrean, hauek bizitza sozialean eraikiak izatearen ikuspegi kritikoa eta konstruktibista aldarrikatzen du (Martinez,2007).

Aspaldikoa da natura eta kulturaren arteko eztabaida, osasunaren antropologiak erakusten digunez kultura naturalizatua izaten ari da. Gaur egun determinismo biologiko era berriak agertzen ari direla eta, amatasuna bera prozesu kultural bezala ulertua bada ere, berau naturalizatzeko joera izugarria dagoela ikusten dugu. Eta determinismo biologiko era berri hauek gizartean oihartzuna izateko gaitasun handia dute.

Horrenbestez, bestelako ikuspegi bat defendatzen dugunok guzti honen aurrean hartu beharreko jarrera arestian aipaturiko aniztasuna adieraztea izango da, amatasuna bezalako gertakarietan egoera sozial, ekonomiko, politiko, kultural eta pertsonalak duten garrantzia azpimarratuz. Baina ikuspegi anitz horretan ezin ahaztu gizartean genero sistemak duen garrantzi eta eragina. Genero hitza ez da mugatzen gizon edo emakume hitzen banaketa egitera. Duela urte batzuetako hezkidetzatailerretan hala ikasi bagenuen ere, sexua ez da naturala eta generoa sozialki eraikia, hau azalpen sinpleegia da. Generoa sistema gisa ulertuz, honek sexua eraiki eta ezartzen digula ulertuko dugu, eta honek errealitatearen konplexutasunera gerturatuko gaitu. Ez da gutxiago izango amatasuna bezalako kontzeptu bat ikertzerako garaian, sistemak berak esango baitigu amatasun rol horretan nolako portaerak (askoren hitzetan naturalak) izan behar ditugun.

Antropologiak sistema ezberdinen funtzionamendua erakutsiz, prozesu antzekoen aurrean eraiki daitezken estrategiak erakutsiko dizkigu, hala nola kultura ezberdinetan haurrak elikatzeko era ezberdinak erakutsiz, prozesua bera bizitzeko era ezberdinak plazaratuko dizkigu, gauzak egiteko era zilegi ezberdinak daudela irakatsiz. Prozesu honetan ematen diren gertakariak deskribatzeaz gain, osasunaren ikuspegi feministaren bidez gertakari hauen zergatira jotzeko beharra eta ardura halabeharrezkoak dira(Esteban,2007), horrela alternatibak eraikitzeke gai izango baikara.

1 Harluxet-en definizioa: Gaixotasunen sailkapena. <http://www1.euskadi.net/harluxet/> Azkenekoz ikusia (2014-VI-15)

Halako erronkari aurre egiterako garaian kontuan eduki beharrekoak dira biomedikuntza sistemaren ezaugarriak, Mari Luz Esteban sendagile eta antropologo feministaren hitzetan hala definitua: “con una gran hegemonía y práctica, (...) en primer lugar un modelo universalista/etnocéntrico; en segundo lugar, biologicista/naturalizador; y por último, la de ser androcéntrico y diferencialista”(2007:75). Lehen ezaugarriari dagokionez, aurrerago ikusiko dugu nola testu biomedikoetan esango zaigun edoskitze naturala dela hoberena mundu guztiarentzat, eta hau da hain zuzen ere baieztapen unibertsalista eta etnozentrikoa egitea, ezin daitekeelako ukatu batzuentzat onena izan daitekeena, besteentzat sufrikario bilakatu daitekeela. Gainera zenbait gertakari naturalizatzeak, genero sisteman hauen doktrina jarraituz boterea eta ospea irabazten dugula diosku aipaturiko idazleak, eta hau -dagokigun gaira erakarritz- ama onaren figurarekin lotu dezakegu, zeinaren bidez emakumeek boterea eta ospea irabaz dezaketela pentsa dezakegun, aurrerago azalduko dudan bezalaxe. Biomedikuntza etsai edo lagun, bizitzako prozesu guztietan alboan edukiko dugun kidea izango da, eta osasunaren inguruan hausnartzera bagoaz, aintzat hartu beharrekoa, alternatiba zabal eta parekideak eraikitzerako garaian osasunaren antropologia feministatik irauli daitekeena.

3. Marko teorikoa

3.1. Amatasunaren eta edoskitze prozesuen historiako pasarteak

a. Sarrera

Gaur egun edoskitzaroaren inguruan daukagun iruditegiaren arabera askok uste dute garai batean biberoiak edo formulako esnea existitzen ez zirenez amaberriek soilik bularrarekin elikatzen zituztela euren haurrak, besterik ezean. Nik neuk hala uste nuen dela gutxi arte, bularreko edoskitzea naturala dela behin eta berriz entzun eta gero, edoskitze artifiziala laborategiekin identifikatzen bainuen nik, eta konturatu naiz nire inguruko jende askorengan ere hala zela.

Baina oraingo amek bezala, garai batekoek ere estrategia ezberdinak garatu zituzten haurra elikatzeko, eta hau arrazoi ezberdinegatik izan da. Batzuek esnerik ez zutelako, besteek eman nahi ez zutelako, eta beste batzuk ezin zutelako egun osoa haurrarekin egon, lanagatik eta abar. Bide hau ezagutzerako orduan benetan garrantzitsua izan da Elisabeth Badinter Frantziar idazle eta historiagileak egindako “*¿Existe el amor maternal?*” (1980) liburua. Bertan Frantziar XVI. mendetik XX.era emandako amatasun estrategien kronologia zehatz bat egiten du, eta erakusten du nola klase sozialaren arabera praktika ezberdinak egin izan diren, inudeen ofizioa eta hauen erabileraren ondorioa, haurren heriotza tasa eta elikaduraren arteko harremana lanean zeuden amen aukeraketak eta abar. Badinterren lanaren garrantzia ez da soilik historiaren argitzean geratzen, honek esan nahi duenean baizik. Amatasun sena hainbeste aipatzen den honetan, denboran zehar emakumeek euren behar eta egoeren arabera estrategia ezberdinak praktikan jarri izanak, sena bera ezbaian jartzen du. Ondorioz, honen eraikuntza sozialaren atzean dauden interesak agerian uzten ditu.

Baina gaiari eutsi aurretik azpimarratu nahiko nuke berrikuspen hau batez ere mendebaldeko kulturaren egondako gertakariena dela. Amatasuna eta edoskitzea gertakari homogeen bat izan ez dela kontuan harturik, Europako eta Ameriketako Estatu Batuetako zenbait herrialdetan kokatu beharrekoa da jarraian datorrena.

b. Mendeetako gertakariak berrikusten

Atal honetan azaltzera noana ulertzeko, esan beharra dut hiru garai bereizi daitezkeela hurrei eskaini zaien atentzio eta maitasunaren arabera. Hasiera batean Antzinaroko gertakarien

bilduma bat egiten badut ere, jarraian hurrei atentzio gehiago eskaintzeak ekarri zituen aldaketaz mintzatuko naiz, eta azken garaia aurrekoak eragindako aginduen aurrean izandako altxamenduez mintzo da.

Edoskitzea argi dago gizakiaren historian zehar egina izan dela, eta hau dokumentatzeko hainbat adibide ditugu. Gauza bera gertatzen da edoskitze artifiziala edota edoskitzea beste pertsona batzuen ardurapean utzi duten emakumeekin. Datu hauek ere bilduta aurkituko ditugu, izan inudeen ofizioari erreferentzia egiten dieten testuetan, edota esnea zuzenean bularra erabili gabe emateko gailuen deskribapena egiten duten testuetan. Honen adibide dugu K.A. 2000. urteko ahoko elikatze ontziak aurkitu izana haurren hilobietan Europan zehar (Hernández,2008).

Baina zenbait testutan gertatutakoaren beste ikuspegi batekin egingo dugu topo. Biomedikuntzatik, zenbait diskurtsoren arabera irakurri dezakegu XX. mendean hasi zirela esne artifizialak erabiltzen (Toro,2010), eta honen ondorioak oso kaltegarriak izan zirela, heriotza asko gertatu zirelako infekzio eta desnutrizioagatik, baita zenbait gaixotasunen agerpena ere. Hau irakurrita norbaitek esango zuen esne hauen agerpena arte soilik bularrez elikatzen zirela haurrak, eta hau hala ez dela hainbat tokitan frogatua dugu arestian esan bezala.

Beste animalien esnea hartzeari dagokionez, K.o. II mendean Efesoko Soranok -Antzinaroko ginekologo ezagunak- ahuntz esnea ematea gomendatzen zuen amarik gabeko haurrentzat. Baina animalien esnea hartzea ez zen Berpizkundera arte berriro gomendatuko, izan ere, ordura arte esnearen bidez izaera transmititzen zela uste zuten (Badinter,1980&Yalom,1997&Patricio&Hernández,2008).

Antzinarora begiraturaz, bestelako informazioa biltzen duten gailuak ere aurkitu izan dira, hala, edoskitzea estimulatzeko argibideak ematen zituen Egiptoko papiroak aurkitu dira K.a. 1587-1328 artekoak. Beste batzuk amaren esnearen kalitatea jakiteko metodoak azaltzen zituzten, dirudienegiz egiptoarrentzat emakumeen esneak edozein adineko pertsonak sendatzeko propietateak baitzituen.

Adituei dagokionez, honakoak topatu ditzakegu: Aristotelesen uste zuen hilerokoa eta bularrak edukitzea emakumeen gutxiagotasunaren adierazle zirela, eta umea eduki eta lehen egunetan izaten den oritza (kalostroa) haur jaioberrientzat egokia ez zelako ustea zuen.

Aldiz, lehenago esan bezala, Efesoko Sorano garaiko pentsalariak baino prestuago zegoen inudeen erabilerara. Edoskitzen zuten amek euren seme alabekiko samurtasun gehiago sentitu zezaketela zioen, baina edoskitzeak berak suposatzen duen desgaste fisikoa dela eta, zenbaitetan inudeen erabilera gomendatzen zuen. Garaiko zenbait mitorekin amaitu zuen, hala nola, semea izan zuen emakumeak soilik mutilak edoskitu zitzaizketela, eta sendagile nahiz emaginentzat idatzitako gida bat egin zuen, edoskitzaroaren ingurukoa.

Denboran salto bat eginaz, Ambroise Paré sendagileak, XVI. mendean, bularretako esnea mozteko argibideak idatzi zituela ikus dezakegu. Gomendioen artean bularreko kongestioa arintzeko kristalezko gailu bat aurki dezakegu, garaiko esne-ateragailua izan daitekeena (Yalom,1997).

Bestalde, Edoskitzearen inguruko uste eta praktikak denboran zehar jasan dituzten aldaketen beste adierazle bat legerian aurkitu dezakegu, izan ere legeak asko aldatu izan dira edoskitzearen eta hartzaroaren inguruan. Lehenik ezabatu zen eskubidea “derecho de muerte” edo hiltze eskubidea izan zen, zeinaren bidez aita batek ezin zuen bere haurra hil, Jainkoak sortua zelako. Hemendik aurrera haurren abandonua, abortu eta haur-hilketak kondenatzen hasi zen Eliza Katolikoa XII eta XIII mendeetan (Toro,2010).

Garaiko ohiturei erreparatuz, Badinterrek maitasunaren inguruan egiten duen hausnarketaz pare bat ideia azpimarratu nahiko nituzke. XVIII. mendera arte gizartean maitasunari ematen zitzaion garrantzia gaur egungoaren oso ezberdina dela diosku, horretarako adibideak erabiliz, hala nola hitzartutako ezkontzen adibidea jarriaz. Autoreak ez du esaten maitasuna existitzen ez zenik, baina beste balio bat zuela dio, eta hain zuzen ere, garaiko amen ohiturak bertan kokatu behar direla gogorarazten digu.

XVII. mendetik aurrera beste aldaketa esanguratsu bat ematen da hartzaroaren ikuskerari dagokionean, izan ere gizartea atentzio gehiago ematen hasten da hartzaroari. Haurrari samurtasuna eta intimitatea eskainiko dion familia modernoa ez da XVIII. mendera arte sortzen, baina aldaketak pixkanaka gertatuz doaz. Bide honetan Badinterrek bi obra garrantzitsu aipatzen dizkigu, lehena Philippe Hecquet sendagile-emaginarena 1708an eta bigarrena Jean-Pierre de Crousaz-ena 1722an, ama on baten zereginak definitu zituztenak. Bestalde Jean-Jacques Rousseauk 1762an “Emile” liburua plazaratu zuen, eta honek amaren maitasunean oinarritua den familia

modernoia ezarri zuen. Hau autore ezberdinek aipatu eta baita ere kritikatu egin dute, urtetan zehar, eta gure gairaino iritsiz, ama askorengan izan duen gehiegizko eragina argudiatuz.

Beraz, haurtzaroaren kontzepzio modernoan izugarritzko eragina izan zuen “Emile” liburuak hedapen handia izanik, ideal femenino zehatz bat aldarrikatu zuen: emakumeak etxearen eta amatasunaren dedikazio osoa eduki behar zuen. Zenbait emakume ilustraturen errezeloaren gaineratik, ideia hauek Frantziako pentsamoldean sakonki sartu ziren eta bizitzako jarreraren aldaketa eragin zuten. Rousseauren diskurtso horretan, jaioberriaren zainketek izugarritzko garrantzia hartzen dute amaberriarentzat, eta bereziki bularreko edoskitzeak. Rousseurena ez zen entzuten zen ahots bakarra, arestian aipatu bezala moralista, sendagile eta abarren ahotsetako beste bat zen, emakumea naturara itzultzeko deia egiten zebiltzan artekoa (Bolufer,1992).

XVIII. mendeko beste aldaketa bat haur bakoitza ordezkazina bilakatzea izan zen, eta bertan beraien heriotza drama bat bezala bizitzen zenez, bere osasuna kezken arrazoi nagusi bilakatu zen. Hala, hauei eskaini beharreko zainketak aurkituko ditugu garaiko literaturan.

Garai guzti honen ondorioak latzak izan ziren orduko emakumeentzat. Ondorengotzaren hanka sartzeen errudun amak egin zituzten, honen erakusle halako esaldiak ditugularik garaiko literatura irakurriaz: J.L. Vives espainiar predikadoreak idatzitakoa: “Madres, debéis comprender que la malicia de los hombres es en su mayor parte imputable a vosotras” (Badinter,1980:42). Eta honek utzitako arrastoak, aldi berean, Psikoanalisian hiru mende geroago irakur ditzakegu. Edoskitzaroari dagokionez zera zioen: “del logro de esta primera relación (la mamada) depende el equilibrio psíquico y moral del niño” (Badinter,1980:43). Amari dagokionez, Psikoanaliak zioen edoskituz plazer fisiko eta espiritualak sentitzen zirela, beraz, hala sentitzen ez ziren amek, ama on figura honekin identifikatuak ez izatean errudun sentituko ziren (Badinter,2011).

Hala ere, historiagilearen iritziz, familia modernoia ezarri aurretik, haurra oztopo bat bezala sentitua zen, horren adierazle edoskitze eskasia deritzo, izan ere, haurra edoskituz honen biziraute aukerak askoz handiagoak ziren. Inudeen erabilerara jotzen zuten askok, eta hau klase sozialaren arabera ez zen aldatzen, denek egiten baitzuten erabilera. Ezberdintasuna egiteko modua zen, izan ere aberatsenek euren etxeetan izaten zituzten inudeak, haurra gertu izanda bere biziraupena ere ziurragoa baitzen. Gainontzekoek landa guneeetara eramaten zituzten, eta denbora bat (urte dezente zenbaitetan) pasata jaso, emakume askok ezin baitzituzten haurrak hirian izan eurak lanera joaten

zirelako. Ez zen gauza bera gertatzen landa eremuan, seme-alabak eurekin mantentzen baitzituzten. Autorearen iritziz haur-hilketa bezala definitua izan diren ekintza hauek ez ziren egiten maitasun eskasiagatik, bestela eurek ezingo zutelako biziraun baizik. Bere hitzetan: “El instinto de conservación gana al maternal” (Badinter,1980:58). Liburuaren hasieran halako esaldiarekin egiten dugu topo: “Como la procreación es natural, nos imaginamos que al fenómeno biológico y fisiológico del embarazo debe corresponder una actitud maternal determinada” (Badinter,1980:12), eta ideia hau hezkuntza eta hezkuntzara hedatzen dela idazten du. Oso garrantzitsua deritzot amaren maitasunari egiten dion erreferentzia. Bere hitzetan: “por mucho que pensamos que las actitudes maternas no remiten al instinto, siempre pensamos que el amor de la madre por su hijo es tan poderoso y tan generalizado que algo debe haber sacado de la naturaleza. Hemos cambiado de vocabulario pero no de ilusiones” (Badinter,1980:13). Beraz, ez da soilik amatasun jarrera naturala ezbaian jartzen dena, amatasun-maitasuna bera ere bai, garai batean sena zena gaur egun maitasuna hitzagatik ordezkatua izan baita. Maitasuna ezezaguna, ahula eta imperfektua bezala definitzen du. Azken finean, sinesgaitza egiten baitzaigu maitasun absolutu horretatik at ama batek bere ondorengotzarekiko bestelako sentimenduak izatea. Gauzak honela, egun defendatzen den erudia beti bera izan ez dela erakusten digu, ama askok euren seme-alabak bizitzako lehen urteetan inudeen erabilerarekin euren gandik urruntzen zituztela erakutsiaz. Guzti honekin ez du amatasun maitasuna XVIII mendean sortua dela esaten, baina bai berari lehenago jarrera unibertsala ez zela esan.

Aitatasunaren maitasunari dagokionez honakoa diosku:

(...) las conductas que acabamos de analizar son el resultado de una complicidad entre el padre y la madre, entre el marido y la mujer. Simplemente sucede que la actitud masculina nos choca menos, porque nunca nadie, hasta el día de hoy, ha erigido el amor paternal en ley universal de la naturaleza. (Badinter,1980:116).

Guzti honetan beti amak aipatzen dira, etengabe amen interes falta, maitasun eskasia eta abar guzti hau da haurren heriotza tasa altuen erantzule, baina non geratzen da aiten interesa, maitasuna eta abarra? Ez al dira eurak ere egoera halakoa izatearen arduradun? Halako galderen erantzun eskasia dugu.

Historiari erreparatu, ohartzen gara emakumea bere amatasun roletik aldentzen joan zen heinean eta gizaki autonomo gisa definitzen joan zen heinean, gizonezkoek euren boterea

gutxiagotzen ikusi zutela eta eurak amatasun funtziora bideratu zituztela. Ordura arte amatasun funtzioak inolako balorerik ez zuenez, hemen hasiko zaio balorea ematen.

XVIII. mendearen hirugarren herenean ideien aldaketa bat ematen da, nahiz eta gertakarietan oraindik ez antzeman, amatasunak irudi, funtzio eta garrantzi berri bat jasaten du. Emakumeei ama izateko betebeharra ezartzen zaie eta, eginkizunen artean, derrigorrezkoa jartzen da bularreko edoskitzea. Honetaz gain mito bat sortzen da, amatasun senarena, edozein amak bere seme-alabekiko duen maitasun espontaneo. Eta honekin batera zorientasunaren eta berdintasunaren promesa. Amatasunaren ardura denborarekin amatasunaren erruduntasuna bilakatu zen, eta XX. mendean bere puntu gorenera iritsi zen teoria psikoanalitikoari esker. Nahiz eta emakume asko hasiera batean teoria eta agindu hauei entzungor aritu, azkenean arrazoidun emakumeak erruduntasunarekin eta arrazoiketa zientifikoarekin konbentzitu zituzten, eta betebeharretara bideratu.

Espainiar estatuan zentratuz, honako pasarteak ditugu; denboran pixka bat beranduago, baina bai moralista, sendagile zein kazetariak halako erasoaldia egin zuten amatasun konkretu baten alde. Inudeen ofizia hedatua zenez (honen erakusle garaiko prentsan, egunkarietan, topatzen dugu agertzen diren iragarki kopurua ikusiaz), honen kontra jardun zuten, eta euren seme alabak edoskitu nahi ez zituzten emakumeei kristau txarrak eta izaki desnaturalizatuak izatea leporatu zitzaienten, eta ustelkeria eta gizarteko desordenaren errudun egin zituzten. Aitzitik naturaren hotsa jarraitzen zutenak euren amatasuna ohorez eta duintasunez bete ahal izateko zuten. Honela gizartearen oinarrian egongo den familia bizitza ideala bilatzen dute, bertan ama-emazteak bizikidetzaren base afektiboa emango zuena eta elkarketa funtzioa izango zuena (Bolufer,1992).

Emakumeak ama onak izatera bideratzeko, pentsalariak senarrak ere animatu zituzten, euren emazteak seme alabak zaintzeko presionatzeko esanez. Autore ezberdinek azken finez argudio berak erabiltzen zituzten, behin eta berriz errepikatuak. Hauek dira M. Boluferrek definitutakoak:

1. Natura argudio gisa: naturaren eta maitasunaren erantzuna da bularreko edoskitzea. Naturaren aginteei kasu egiten ez dien emakumea basapiztien azpitik kokatuko da. Bularreko edoskitzea samurtasunarekin lotzen da eta artifiziala aberrazioarekin, izan ere amatasuna sena da.
2. Printzipio erlijiosoak: printzipio kristauak jarraitzea da bularreko edoskitzea burutzea.

3. Historia eta Antropologia: adibidea eta autoritatearen babesa. Itun zaharreko, aitzinako historiako eta Erdi Aroko adibide ezberdinak errepikatzen dira behin eta berriz argudio edo lege bezala. Antropologiaren erabilera egiten da, naturarekiko gertuago dauden zibilizazioen erreferentzia eginez.
4. Medikuntzako argudioak: haurren eta amaren osasunerako arriskuak. Sendagileek amen sentimenduetara jotzen dute haurrek inudeen eskuetan sufri ditzaketen arriskuak errepikatuz. Gainera Naturak edoskitze naturala saritu eta artifiziala zigortu egiten duela da sendagileek hedatzen duten ideia, aldi berean bularreko edoskitzeak ekartzen dituen oinaze eta arazoak gutxituz. Azken finean amatasuneko eragozpen arinak dira, arrazoa eta esperientziarekin konpondu daitezkeenak. “Quizá no sería exagerado hablar de una “profesionalización” de la maternidad, que requiere una forma de vida propia” (Bolufer,1992:12).
5. Rousseuren oihartzuna: argudio afektiboa. Amaren dedikazio absolutuak, kontaktu etengabeak amaren maitasunaren adierazle dira. Edoskitze naturalaren bidez sentimendu hauen garatzea gertatuko da, inudeen bidez odolak sortutako loturak hausgarriak bilakatu baitaitezke.
6. Argudio sozial eta moral kolektibokoak: emakumeek gizartean dagokien papera jokatzeko ez badute ezegonkortasuna ekarriko dute, ondorio anitzekin. Amatasuna eta emazte papera albo batera utziaz, alfertasuna ager daiteke, bizio guztien sortzaile.
7. Interes demografiko eta politikoak: haurren heriotza tasa handiari dagokio, inudeen erabileraren ondorioz hauen kargura utzitako haurrek nahiz inudeen seme-alabek heriotza arrisku handia baitzuten. (Bolufer,1992)

Azken finean, Badinterren hitzetan, Rousseauk lorpen handi bat egin zuen: “la culpabilidad ganó el corazón de las mujeres” (Badinter,1980:195).

Garai hauetan hurrekiko zegoen pentsamenduaren beste adierazle bat osasun munduan aurkitzen dugu. 1872-ra arte ez da pediatria terminoa definituko. XIX. mendean aldaketa batzuk eman ziren, hala nola, inudeak pixkanaka desagertzen joan ziren esne artifizialagatik ordezkatuak izan zirelarik, eta XVIII-XIX industri iraultzarekin emakumea lantegietan sartzearekin ere zenbait aldaketa eman ziren. Hainbat enpresatan edoskitze gelak jarri zituzten, emakumeak lanetik atera behar ez izateko edoskitze unean, hala nola Espainiar Estatuan *Perfumerías Gal* eta *Compañía*

General Española Eléctrica-n (Toro,2010). Biomedikuntzaren munduan, giza esnearen inguruan bestelako hausnarketak topatzen ditugu, eta 1869. urtean Napheys sendagileak oritzaren onuraz idazten du (Yalom,1997)

1930. urtean “Reglamento General del Seguro Obligatorio de Maternidad” delakoa sortu zen, emakumeari diru laguntza onartzen ziona edoskitze garaian zegoen haurra bazuen, eta gainera elikagaien inguruan hezkuntza ematen zuen hezitzaile baten laguntza jasotzen zuten amek. 1931-1936 artean edoskitze baimenak sortu zituzten, Espainiako Errepublikaren garaian, eta 1944an aurretik emandako baimen guzti hauek deuseztatu zituen Francisco Franco diktadorearen erregimenak, eta bestelako baimen eskasago batzuk eman zituen. 1993. urtera arte itxaron beharko zen edoskitze baimena espresuki kontuan edukitzeko, eta baimen hauek edoskitze naturalean nahiz artifizialean aplikagarriak izan ziren. 1989. urtean sartu zen aitaren figura baimen hauetan -ordura arte baztertuak zeudenak- eta jurisprudentziaren aldetik edoskitze garaia babeste aldera, garai honetan zeuden emakumeak lanetik kaleratuak izatea eragozten zuen (Toro,2010).

c. Edoskitze hautua: zergatiak eta moduak

Garai ezberdinetan edoskitzearen inguruan izan diren usteak ezberdinak izan dira, hala estetikoki ezatsegina izan da, duintasun faltarekin lotu izan da, klase baxuetako pertsona izatearekin eta abar (Toro,2010). Halako edoskitzearen kontrako jarreraren aurrean, bestelakoak ere aurkituko ditugu garaiaren arabera, izan ere arestian esan bezala askok bularreko esnearen goraiatzea egin baitute.

Zenbait tokitan irakurri dezakegu esne artifizialaren erabilpenaren igoerak zenbait elementurekin izan zuela zerikusia, hala nola farmazia industriako publizitate basatiarekin, osasun langileen ezagutza eta prestaketa eskasiarekin, erditze geletan ematen ziren okerreko errutinekin eta abar (Toro,2010).

Edoskitze artifiziala egiteko arrazoen artean, honakoak topatu ditzakegu axolagabetasunagatik egiten zelako arrazoiketa sinplistaren aurrean: tradizioak emandako gezurreko usteak eta ezagutza falta, amaren elikadura eskasa, gizarteko edo laneko betebeharrak, edoskitze garaian dagoen haur baten heriotza etsipenarekin bizitzea arrazoi erlijiosoak direla eta, edoskitzearen trabak, ezkontzako betebeharrekin talka (Bolufer,1992).

Bularra ez emateko erabilitako argumentuak anitzak izan dira historian zehar, baina Badinterren lanean zenbaitek argi eta garbi esan zutela ikus dezakegu: edoskitzea desatsegina zitzaien eta beste gauza batzuk egitea nahiago zuten. Bestelako argumentuak ere entzuten ziren garaian: edoskitzea txarra zela emakumearen osasun fisikorako eta ez zela oso itxurosoa. Eta halako argumentuak nahikoak ez balira, beste batzuek ordenu sozialeko argudioetara eta moralekoetara jotzen zuten, honen aurrean inork ezin baitzuen kontrakorik esan. Gizonezkoek emandako argudioetatik bildutakoak edoskitzaroa zikintasunarekin lotutakoak dira, eta honengatik zenbait kontra agertzen ziren. (Badinter,1980&Bolufer,1992)

Elikatze artifizialari dagokionez, esne artifiziala (behi esne hautsa zerealekin nahastua) deiturikoa sortu aurretik (Nestlé 1987. urtea), inudeek euren kargura zituzten haur kopuruak handiak zirela eta, denei ezin zieten bularra eman eta ura eta ogiz egindako ahiak (papillak) ematen zizkieten, xehatutako gaztainak, trufa edota ozpinetan beratutako ogia. XVIII. mendetik aurrera, zulatutako adar txikietan jarritako behi esnea ematen hasi ziren, urarekin moztua. Baina ordurako Alemania eta Errusia bezalako herrialdeetan biberoiaren erabilera hedatua zegoen. (Bolufer,1992). Inudeekin ematen zuten denborari dagokionez, hurrek batz bestea lau urte ematen zituzten eurekin, eta hamabost edo hemezortzi hilabetetara kentzen zieten titia. (Badinter,1980).

Arestian esan bezala, gaur egun bularreko edoskitzea egin nahi ez izatea haurrari jaramon egin nahi ez izatea bezala ulertzen da, baina garaiko emakumeen ahotsa falta da. Gainera ezagutzen ditugun argudioak epaitu egiten dira, adibidez, bularra emateagatik fisikoki gaizki geratzearen beldurra zuten emakumeak kritikatzeko dira, baina ez da kritikatzeko emakumeek beldur hori izatea nondik zetorren eta zergatik ematen zen (Bolufer,1992). Eta amatasun ardurak haurraren sorkuntzan hasten dira, amak ezingo baitu alkohol tanta bat edan, parranda egin edota zigarro bat erre. Ohartarazpenak geroz eta larriagoak dira.

Badinterrek hiru ama mota bereizten ditu gaur egunean edoskitzaroari lotuta:

1. Edoskitzea ebidentzia bat bezala bizitzen dutenak, zoriontasunera eta osotasunera eramango dituen esperientzia.
2. Edoskitze artifiziala hautatzen dutenak.
3. Ospitalean daudenean bularrez elikatzen dituztenak eta gero etxean hau uzten dutenak, baina nahi ez izatea aipatu gabe. Erabiltzen dituzten argudioen artean nekea, esne falta, mina eta

halakoak daude. Edoskitze militanteak direnek guzti hauek aitzakia direla esatera iristen dira, eta ez dagoela edoskitu nahi duen emakume batentzat berau gauzatzeko oztopo errealik (Badinter,2011).

d. Gaur egungo korronteen artean: Naturalismoa

Teoria eta praktika hauetan eragin garrantzitsua izan duen beste korronte ideologikoa naturalismoa izan da. Berataz Badinterren hitzetan hau irakurriko dugu:

(...) esta ideología, que preconiza simplemente la vuelta al modelo tradicional. Carga con todo su peso sobre el porvenir de las mujeres y sobre sus opciones. Como Rousseau en su época, hoy se las quiere convencer de que se reconcilien con la naturaleza y vuelvan a los fundamentos, cuyo pilar sería el instinto maternal (2011:14).

Eta: “La naturaleza es un argumento decisivo para imponer leyes o dar consejos.” (2011:79).

Naturalismoak errua sortzeko gaitasun handia du, giza portaerak aldatzeko arma izugarria da. Gaur egun jada haurren heriotza tasa baxua da gure gizartean, beraz garai bateko argudio berberak mantentzea kritikatzan du Badinterrek. XVIII. mendean Rousseauk, mediku eta moralistek egin bezala, gaur egun emakumea euren ondorengotzaren osasun fisiko eta psikikoaren arduradun egiten da, eta honek nola ez du ba berarekin naturaren legea jarraitzen ez dutenentzat errua ekarriko?

Idea hauei jarraiki, ondoriozta genezake haurra eta amarentzat onena ama bera etxera itzultzea dela, horrela bere funtzioak hobe mantentzeko, haurra ez abandonatzeko, eta honetarako amatasunari birbalorizazio bat ematen zaio. Biberioez elikatzea erabakitzen duten amei estigma bat ezartzen zaie, ezingo baitute euren hurrekiko atxikipen bera sentitu.

Biberoiak salatuak dira baita ere ekologismotik, beraiek egiteko erabiltzen diren materialetatik hasi eta ama eta hurrek jasango dituzten ondorioetara arte. (Badinter,2011) Eta honekin batera bada gaur egun salatzen diren beste elementu batzuk: behin erabiltzeko pixoihalak. Naturarekiko armonia hautsi ez dadin pixoihal ekologikoen erabilera aldarrikatzen dute askok, baina hain zuzen ere bota daitezkeen pixoihalen asmakuntza emakume askok askatasun gisa bizitu izana estali dezakete estigma horiekin. Estigma horien kutsua euren izenetan topatu dezakegu, adibidez “amigo de los bebés” edo “Haurren lagunak”deitzen direnetan. Badinterrek argi esaten duen bezalaxe: “como si todos los demás fueran enemigos de los bebés” (Badinter,2011:65). Bularra ematea eskubide bezala plazarazten denean, bularra ez ematea ere eskubidea ote den galdetzen digu autoreak. “El mensaje es claro: la buena madre es aquella que amamanta.”

(Badinter,2011:114) eta bularra ematen ez duena berekoikeriarekin lotzen da. Berekoikeria ondo dago edozeinentzat, betiere hau ama bat ez bada eta bere burua haurraren aurretik jartzen ez badu.

e. Amaiera oharrak

Amaitzeko, Badinterren liburuan topatuko ditugun bi ideia azpimarratu nahiko nituzke: edoskitze naturalaren aldarrikapen bortitzak emakumeak etxera itzultzera behartzen duela, eta bertan gizartearentzat ezinbestekoak diren ekintzak egitera bideratzen direla. Garaiko emakumeei halako kanpainak zein mailara arte eragin zien jakitea ezinezkoa zaigu, baina gaur egungo jokamolde eta pentsaeretan arrastoa aurkitzen dugula ezin dugu ukatu. Badinterren hitzetan: “El yo primero de la generación de la madres (70.eko hamarkada²) ha dado paso poco a poco a el hijo primero proclamado por sus hijas”.(Badinter,2011:133). Sistema irauli nahian halako pentsamoldeen jatorria ikusteak bidea argitzen lagundu baitezake.

Historian gertatu dena argitzearen garrantzia ezagupenak handitzeaz haratago doa. Izan ere, gaur egun gizartean amatasun ideia egoki bat dago, eta honek bularra ematen dio haurrari. Bere beharren gainetik haurrarenak jartzen ditu, beraz, bere onura propioarengatik bularra ez ematea erabakitzen duten emakume asko gaur egun epaituak dira eta hala sentitzen dira. Nik neuk hala ikusi dut ospitalean lanean nengoela, beraz, historiaren begirada bat egiteak ama hauei karga kentzen die, erakusten dutelako ama izateko erak dauden bezalaxe, hala izan dela denbora luzez, eta gainera jende askok jarraitu duela gaurkoarekin zerikusirik ez duen eredia. Askotan jende kopuru handi batek zuk egiten duzun gauza bera egiten duenean, ulertua eta babestua sentitzen baitzara.

3.2. Antropologiaren ekarpena

a. Sarrera

Atal honetan antropologiak edoskitzaroaren inguruan egindako hausnarketak mahaigaineratu nahiko nituzke bi autore ardatz harturik. Izan ere, beraien ikerketek ikuspegi global bat ematen baitiote gaiari, garai bateko eta gaur egungo praktika eta ikusmoldeak uztartuz.

Hasteko, esan beharra dago orokorrean munduan zehar esfera publikoa goretsia eta pribatua gutxietsia izan dela. Edoskitzea eremu pribatuko zerbait kontsideratua izan da eta izaten jarraitzen du gaur egun ere. Honela, emakumea izan da haurraren behar fisiko eta psikologikoen erantzule eta

2 Letra etzanez idatzitakoa nik neuk erantsia da.

arduradun, eta hau maiz edoskitzearekin lotua izan da. Antropologiak prozesua leku ezberdinetan nola izan den erakusten digu.

b. Edoskitzea ezin da naturalizat jo

Edoskitzaroaren inguruan idatzitako antropologiako testuetatik ondorio argi bat atera daiteke: edoskitzaroa ezin da prozesu naturalizat jo. Berau esanahi eta sinbolismoz josia dago mundu osoko kultura ezberdinetan; esan genezake prozesu bio-psiko-sozial bat dela, eta gizarte ezberdinetan era oso ezberdinetan ulertua eta gauzatua izan da eta izaten jarraitzen du. (Imaz,2010&Maher,1992,&Scheper-Hughes1997).

Sinbolismoari dagokionez, mendebaldeko kulturaren gaur egun edoskitzaroak amaren maitasuna, amatasun proiektuan jarritako inplikazio maila eta kalitatea, emateko gaitasuna eta ama eta haurren arteko lotura sinbolizatzen duela adierazten digu Elixabete Imaz Antropologo Feministak. (Imaz,2010). Baina garai bateko ohitura eta praktikei erreparatuko bagenie, berebiziko garrantzia du “The anthropology of breast-feeding. Natural law or social construct” liburuak, bertan hainbat herrialdetan egindako etnografiaren bidez kultura ezberdinen inguruan ikas baitezakegu. Hala ikusiko dugu historiako atalean esan bezalaxe inudeen erabilpena oso hedatua izan dela bai denboran eta baita munduan zehar ere. Musulman erlijioa praktikatzeko duten herrialde batzuetan lege zibilak daudela edoskitze praktiken denbora eta moduak ezartzen dituztenak, eta emakumeek beste batzuen haurrak elikatzea tribuen arteko bake itunak sinatzeko nahiz klanetako batasuna indartzeko erabilia izan dela, eta erritual ezberdinak egin direla edoskitzeak elikatzeko duen gaitasunetik haratago. Edoskitzaroaren hautuaren atzean arrazoi erlijiosoak egon daitezkeela ere bai, emakumea haurrarentzat sakrifikatu behar dela dioten arauen arabera. Eta azkenik azpimarratu beharrekoa da toki askotan edoskitzearen bidez pertsonen gizartean toki bat hartzen dutela, rolen estruktura ezartzen dutelako, pertsona sistema politiko eta produktiboan sozializatzeko balioa izan baitezakeelako. Edoskitzeak ama eta haurri sistema patriarkalean ahaidetasunean eta jabetzan beren tokia erakutsi diezaieke. (Maher,1992).

Edoskitzea gauzatzeko moduari dagokionez, liburuak erakusten digu nola Afrikako iparraldean eta erdialdeko ekialdean emakumeek beste emakumeekin edoskitu izan dutela. Baina Hejaz-ek, Sauditar Arabiarrek, bekaizkeria izan zezaketen emakumeen beldur zirenez, soilik famili artean egin izan dute. Haien sineskeren arabera, bekaizkeria zuen emakume batek ama bati esnea

txartu edo gaixotu egin ziezaiokeen. Halako pentsaerei jarraiki, Tunezeko kasua azaltzen zaigu, bertan, estresa esnea produzitzeko kaltegarria izan daitekeela sinetsita, bertako emakumeek erlaxazio teknika bereziak egin izan dituzte edoskitu bitartean. Eta azkenik, gaur egungo atxikipen teoriei kontra eginez, jatorrizko kultura edo kultura “primitiboetan” naturari gertuago egonda atxikipena handiagoa delako ideari kontra eginez, Azteken kasua daukagu, edoskitzen zuten bitartean haurra eusten ez zutela erakusten baitigu Antropologiak. (Maher,1992)

Bestalde, edoskitze artifizialari dagokionean, Nestlék lehen hauts esneak sortu baino lehenagotik datorrela ikus dezakegu etnografiaren bidez. Adibide gisa Islandiako kasua daukagu, mendeetan zehar haur jaioberriei gurina eta krema ematen baitzieten bularreko esnea beharrian. Gainera edoskitze artifizialaren esanahiari dagokionean, urteetan zehar aldatua izan dela ikusiko dugu, izan ere, gaur egun naturaren kontrako gisa ulertua bada ere, beste garai batzuetan naturarekiko hobekuntza gisa ulertua izan baita, Ameriketako Estatu Batuetan esne artifizialen sorreran edo aipatutako Islandiako kasuan adibidez (Maher,1992).

Honetaz gain, sineskeretatik eratorritako praktika zehatzei dagokionez, Antropologiak erakusten digu nola zenbait tokitan oritza ez den eman izan, haurren bizirauterako immunoglobulina eta elikagai bereziak dituen esnea bada ere, Txinan kasu. Eta beste lurralde batzuetan edoskitzea denboran zehar mugatua izan da, beraren bidez izaera transmititzen zela uste zutelako (Maher,1992).

Azkenik, eta emakumeari dagokionez, senarrek edoskitzea mugatu izan dutela ikus dezakegu, inudeen erabilpena aginduz, adibidez. Hau jada 1772an Mary Wollstonecraft feminista aktibistak esaten zuen. Emakumea emazte izatera bideratzeko asmoz eta ama izateko denboraldia laburtzeko asmoz, gizonak euren harreman sexualen desiragatik erabili izan zituzten inudeak. Erditze ondorengo tabuaren bidez ama batek haurrari dedikatu beharreko denbora luzea zenez, garai hartan ezin zituen harreman sexualak izan haurdun ez geratzeko, eta denboraldi hau laburtzeko egin izan da praktika hau (Maher,1992).

c. Amatasun intentsiboa eta edoskitzaroarekiko lotura

Imazen iritiz, edoskitzaroa amatasun intentsiboaren ideologiaren indarra manifestatzen den eremua da, kontraesan eta erruduntasun sentimenduen bidez adierazia. (Imaz, 2010). Emakumeek behin eta berriro azaltzen dute edoskitzeak emakumeentzat suposatzen duen sakrifizioa, beharbada

geure buruari galdetu beharko genioke Vanesa Maherrek aldarrikatzen duen bezalaxe: zergatik edoskitze naturala gizarte gehienetan arautua da? Zenbat denboran da lanez gainezka dauden emakumeentzat edoskitze naturala praktikatzea egokia elikadura eskasia dagoenean, ugalkortasun tasa altua dagoenean, edoskitzaro luzeak egiten direnean, morbiditatea altua dagoenean eta emakumeen biziraute tasa baxua dagoenean garatze bidean dauden herrialdeetan?(Maher,1992).

Gizonezkoek hitz egiten ari garen guzti honetan betetzen duten paperari dagokionean, behin eta berriro irakurriko dugu aita bezala betebeharrak gutxi dituztela mundu osoan zehar. Hala amatasun intentsiboaren gorakadan aiten lekua zein den planteatzen du Imazek:

El ejercicio de este modelo de maternidad requiere de un tipo de paternidad que consienta el protagonismo de la madre y acceda a un papel secundario como progenitor, de manera que la mayor parte de las decisiones y gestión de la crianza se dirijan y decidan por la madre. El padre debe asumir que para la mujer el cuidado del bebé tenga una prioridad absoluta, pasando a un plano menor otras dimensiones de la relación e incluso de la pareja misma. (Imaz,2010:379)

Halako ideologiei kontra eginez, hainbat emakumek praktikara eraman duten edoskitze artifiziala daukagu, zeinaren bidez aitekin lan banaketa parekideago bat bilatu izan duten. Praktikaren berezitasunak honetan datza: elikatzea ekintza atsegingarria izanik jende askorentzat, bestelako ekintza ezatseginetan parekidetasuna bilatzeko erabilia izan da.

d. Edoskitzaroaren alde ilunak ezkutatuak dira

Imazek bere liburuan planteatzen duen auzia da hau: bere ustetan mendebaldeko kulturaren edoskitze naturala sustatzerakoan, honek suposatutako arazoak ezkutatuak dira. “Ni consigue establecerse un debate en el que se sopesen los beneficios pero también dificultades y consecuencias personales, profesionales o sociales que conlleva la lactancia.”(Imaz,2010:321)

Bestalde, haurren onura bilatzeko amaren osasuna eta bizia arriskuan jartzea legitimoa den galdetzen digu Maherrek. Izan ere, berak UNICEF-ek egindako iragarki baten adibidea jarriaz, haurren arazoaren oinarria edoskitzea jaso duten edo ez sinplifikatzera jotzeko ohitura dagoela dio³. (Maher,1992).

3 UNICEF-en 1989-90 urteetan kanpaina bat egin zuen. Bertan esaten zen 4 urteko afrikar haur baten bizirautea altuagoa zela edoskitze naturala egiten bazuen. Autoreak hau kritikatzeko du, esanez haurren biziraute tasa ez dagoela soilik edoskitzearen menpe, faktore ekonomiko, politiko eta sozialak kontuan eduki beharrekoak baitira bere ustetan.

e. Amaiera oharrak

Amaitzeko, Maherrek dioten bezalaxe, ondoriozta dezakegu gizarte ezberdinek ezartzen dituztela edoskitze mota ona edo txarra den epaitzeko baldintzak. (Maher,1992) Hauek ekonomia eta genero sistemaren araberakoak izan ohi dira, beraz, sistema hauek irauliz gero erreferente berriak sortzeko arrakalak eraiki daitezke, benetan hori baita zaila eta beharrezkoa dena. Imazek edoskitzaroaren azken hausnarketan dioten bezalaxe:

en las actitudes y dudas de las mujeres contemporáneas respecto a la lactancia vemos cómo pugnan, por una parte, la asunción de la responsabilidad plena respecto a la maternidad y, por otra, la búsqueda de nuevas formas de ejercer ser madre. (Imaz,2010:325)

3.3. Biomedikuntzaren egungo diskurtsoa

a. Sarrera

Gaur egun biomedikuntzak aho-batez esaten du amagandiko edoskitzea dela sustatu beharrezkoa, honetarako argudio ezberdinak erabiltzen dira, eta helburua argia da: amagandiko edoskitzaro tasak igotzea. Atal honetan biomedikuntzatik ematen diren argudio eta ekintzak ikertzera noa, gizartean biomedikuntzak berak duen pisua handia izanik garrantzitsua iruditzen zaidalako bere diskurtsoa aztertzea.

b. Biomedikuntzaren ikuspegi historikoa

Donostiako unibertsitate ospitaleko ama-berrien solairuan dagoen gidaliburua Espainiako Pediatría Elkarteak idatzia da. Bertako sarrera irakurtzen badugu ohartuko gara halako gidak zertarako egiten diren gaur egun. Idazleen hitzetan liburua egitearen arrazoia honakoa da: “este libro pretende ofrecer a los profesionales de la salud una herramienta más con la que contribuir a la recuperación de un bien insustituible para la salud de todos y que no debe perderse: la lactancia materna” (Patricio&Hernández,2008:22). Aurrerago osasunerako onena edoskitze naturala dela esaten denez, hildo beretik doazen antzeko argudioekin egingo dugun topo liburuan.

Bestalde, gidaliburuan hau aurki dezakegu amagandiko edoskitzaroaren historia atalean: “Amagandiko edoskitzea gertakari biologikoa da, aldaketei eutsia eragin sozial, kultural eta ekonomikoengatik” (Landa&Paricio,2008:9). Esaldi honetan argi ikusten da egoera anitzek nola baldintzatu dezaketen bularra emateko erabakia, eta berau aurrera eramateko modua. Baina ez hori bakarrik, denboran zehar egindako hainbat ikerketek amagandiko edoskitzaroa zenbait faktoreekin

harremandu dute. Hala nola adina, parekidetasuna, hezkuntza maila, talde etnikoa, tabakismoa, amaren lana, familiaren maila soziokulturala eta diru-sarrera maila, jaiotza instituzioa mota eta euren arauak amaberri eta jaioberriak artatzerako orduan, erditze mota, haur jaioberriaren heltze maila eta bere osasun egoera eta abar (Patricio&Hernández, 2008).

Osasunerako Munduko Eerakundeak (OMEk) bularreko edoskitze eskusiboa 6. hilabetera arte gomendatzen du, eta kalkulu hauek gainontzeko animalien arabera egindakoak direla irakur dezakegu testuan, primateen taldeetan egindako ikerketen arabera. Tokia eta denboraren arabera, gizakiaren edoskitze denbora ezberdina izan da, 18 hilabetetik 3 urtetarako tartea deskribatzen da, eta elikagai osagarriak lehen asteetan ematen hasi izan dira zenbait tokitan, hala nola Errusian.

Edoskitze artifizialari dagokionez, eta honek laborategien industriarekin duen lotura ikusita, irakurriko dugu laborategiek izugarritzko negozioarekin egin zutela topo, eta iragarkiez baliatu ziren emakumeek euren produktuak erosteko. Hau bularreko edoskitzearen sustapenarekin bateragarria ez zenez, eta iragarki kopuru basatia zela eta, 1979an OMS-ek lege bat egin behar izan zuen esne artifizialen erregulazioa egiteko “Código Internacional sobre Comercialización de Sucedáneos” deiturikoa (Toro, 2010).

c. Biomedikuntzak ematen dituen gomendioak

OMEk amagandiko edoskitze eskusiboa 6. hilabetera arte ezartzen du eta beste elikagaiekin nahastua 2. urtera arte. Hala ere, 2008ko datuen arabera munduko haurren %35ak soilik jasotzen du amagandiko edoskitze eskusiboa 4. hilabete². Tasa hau baxua eta osasun publikoaren arazo gisa kontsideratzen da, honengatik konponbiderako proposamenak egiten dira etengabe biomedikuntzatik (Hernández&Aguayo,2005).

Biomedikuntzatik amagandiko edoskitzea defendatzeko argudioak anitzak dira eta bi taldetan sailkatu ditzakegu: haurrentzako onurak eta amentzako onurak. Hauek irakurtzen jartzen garenean halako esaldiekin egingo dugu topo maiz (nik neuk itzuliak dira esaldiak): “(...)amagandiko edoskitzea bularreko haurarentzat dagoen elikagai onena da. Bere abantailak nutrizionalak, immunitarioak eta psikologikoak dira”(Iglesias,2008:142), edo “Amagandiko edoskitzea bularreko haurarentzat dagoen elikatze aukera osasungarriena da”(Oliver,Chulvi, Lopez,Lozano,Seva&Perez,2008:317), “Amagandiko edoskitzearen epe motz eta luzerako onuren froga asko daude, eta ez soilik haur jaioberriarengan, amarengan ere

bai”(Martinez&Delgado,2013:254). Aldiz alde txarrei erreparatuz gero, oso urriak dira aipamenak. Edoskitzaroan izan daitezken konplikazioak aipatzen dira, pitzadurak eta mastitisak kasu, baina haurarentzat nahiz emakumearentzat alde txarrak ia ez dira aipatzen. Aipatzen direnen artean badago bat nahiz eta laburki esan garrantzi izugarria duena: erruarena. Honek bat egingo du aurrerago aipatuko dudan pentsamendu feministarekin. Edoskitzea modu ezberdinetan bizi daiteke, eta bere baitan sakrifizio, itxaropenen haustura eta presioa bezalako sentimenduak gorde ditzake, honek erruduntasun sentimendua ekar dezake edoskitu nahi ez duen edo ezin duen jendearengan(Martín-Perdiz,2008).

Argudioetan aipatutako onurei dagokionez , aurrerago esan bezala haurrentzako eta amentzako onuretan sailkatzen dira, eta zerrendak luzeak dira. Haurrei dagokionean hasierakoak eta berantiarrak bezala sailkatzen dira. Hasierakoak jaioberri goiztiarren biziraute tasa altuagoa, haurren gaixotasun infekziosoen tasa baxuagoa (digestio, gernu, entzumen eta arnas aparatuari dagokionean) eta gaixotasun atopikoen tasa baxuagoa dira izendatuak. Berantiarrak Diabetes Mellitus intsulina-mendekoaren aurrean babesa, tentsio arterial altuaren aurkako babesa, obesitatearen aurkako babesa eta abar dira izendatuak. Nahiz eta zenbait tokitan irakurri izan dugun garapen kognitiboa demostratua dagoela jasotako elikatze motarekin harremandua ez dagoela (Badinter, 2010), gaur egun bularreko esnearen defentsan argudio bezala erabiltzen jarraitzen dela irakur dezakegu. Amei dagokienean aldiz, bularreko nahiz obulutegietako minbizia tasa baxuagoak, aldaka haustura tasa baxuagoak, erditze ondorengo hemorragia arrisku baxuagoa eta abar dira izendatuak (Martinez,2010).

Bularreko edoskitzeak izan ditzakeen konplikazioen deskribapenari dagokionez, hauek askotan gainetik aipatzen direla ikusiko dugu, hauek konpontzeko gida baten aurrean ez bagaude behintzat. Aipatu beharrekoa deritzot deskribatuen artean (bularren ingurjitazioa, titiburuetak pitzadurak, galaktozelea, hipogalaktia, mastitisa) (Gonzalez,2012) bereziki mingarriak izan daitezkeela, eta emakume askok negar batean hasi eta amaitu dezaketela bularreko hartualdia hauen ondorioz.

Bularreko edoskitzea uzten duten emakumeen arrazoen inguruan ikerketa dezente topatu ditzakegu, eta hauen artean adostasun eskasia dagoela ikusiko dugu. Zenbait ikerketen arabera faktore soziokulturalen zerrenda luze baten araberakoa (familiako babesa, erditze eutozikoak,

erditze-anitzak, amatasuneko hezkuntza, haurren edo amaren gaixotasuna, arrazoi ekonomikoak eta abar) izango da edoskitze denbora, eta beste batzuen ustetan aldiz, arrazoia sinpleagoa da, xurgatze teknika egokia eta titiburuko arazorik eza dira bularreko edoskitzean jarraitzeko arrazoiak. Baina emakumeei beraiei galdetuz, ikerketen arabera bularreko edoskitzea egiteari uzteko arrazoi nagusia hipogalaktia edo esne eskasia da, eta mantentze arrazoia erosotasuna. Enplegura itzultzea batzuek arrazoi nagusi bezala ikusten badute ere, beste batzuek ez diote garrantzirik ematen edoskitzea jarraitzerako momentuan. Argumentu hauen bilaketa ugariak egitearen arrazoia arazoa identifikatu eta osasunaren promozioan jardutea dela irakur dezakegu, eta promoziorako ezinbestekotzat jotzen da bularreko esnea eman eta jasotzea.

Osasun heziketaren eraginari dagokionean ikerketa ugari daude baita ere. Orokorrean beraren garrantzia aipatzen da ikerketa ezberdinetan, bularreko edoskitze tasa igotzen duelako (Lopez,Alonso,Martín&Taboada,2012&García&Bellido,2005). Horregatik osasun profesionalen trebakuntza ezinbestekotzat jotzen da hauek bularreko edoskitzea sustatu dezaten. Halako ikerketen ondorioen artean halako esaldiekin egingo dugu topo: “Todo esto nos hace pensar que aunque dar de mamar a nuestros bebés es un acto natural, también es un comportamiento aprendido cuando se da una información adecuada, y un apoyo de todo el entorno sanitario” (Lopez,Alonso,Martín&Taboada,2012:4).

Azkenik, esan beharrekoa da irakurritako testuetan bularreko esnearen eta bularreko edoskitzearen arteko desberdintasun bat ikusten dela: lehena produktua izango litzateke eta bestea ekintza. Osasun ikerketetan etengabe aipatzen diren onurak produktuari berari egiten diote erreferentzia, aldiz, ekintzari dagokionean, hau sustatzeko proposamenekin egingo dugu topo. Ikerketa motek ez dute baimentzen ekintzen oinarrian dagoen arrazoiara joatea, azaleko azalpenekin geratzen baitira, eta ikerlari asko honen jabe dira: “Éramos conscientes de una de las principales limitaciones que este tipo de estudios transversales presentan y que consiste en su limitación para establecer asociaciones causales o para poder valorar la verdadera magnitud de los cambios introducidos debidos a una intervención.” (Lopez,Alonso,Martín&Taboada,2012:4). Gainera ikerketa kualitatiboak egiten direnean hauek mugatuak direla esanez kritikatzeko dira, ezin delako bertan azaldutakoa pertsona guztietara orokortu. Baina zenbait ikerlarik hauetara jotzeari esker, ekintzen oinarrietan dauden arrazoi batzuk identifika daitezke (Earle,2000).

Bestalde, produktuaren etengabeko goraiatze batek ekintza bera atzean utz dezake, eta ezinbestekoa da bularreko edoskitzea emakumeak egiten duenean zein bizipen dituen kontuan edukitzea, bestela emakumea bera alboratua izan daitekeelako halako esaldiekin topo egiterakoan: “Algo tan *sencillo, cómodo y saludable*⁴ como es la lactancia materna se está olvidando” (Lopez,Alonso,Martín&Taboada,2012:4).

d. Instituzioen lana eta Bularreko edoskitzea sustatzeko ekimenak

OMEk ekintza ezberdinak egin ditu denboran zehar amagandiko edoskitzea sustatzeko asmoz. Horien artean ezaguna egin den Haurren Laguna Ospitalea ekimena, OME eta UNICEF erakundeek elkarlanean sortutako ekimena, 1989 urtean adostua, eta dekalogo batean oinarritzen dena. Dekalogo hau gobernuari zuzendua da, edoskitze naturalaren babesa, promozioa eta laguntza egin dezaten amatasuneko zerbitzuetan, eta ebidentzia zientifikoan oinarritua dago (Hernández&Martín-Calama,2008). Ekimena aurrera eramateko arrazoia amagandiko edoskitzearen beharakada nabarmena ikusi zutelako izan zen. Hau Donostia Unibertsitate Ospitaleko pasilloetan topatu dezakegu, edoskitzea sustatzen duten beste kartel batzuen ondoan. Aldiz ez dago kartel bat bera ere formulako esnearen ingurukoa.

Honakoa adierazten dute dekalogoan duten kartelek:

Zorioneko amagandiko edoskitzea lortzeko hamar pauso.

Ama-haurrentzako zerbitzu guztietan ondoko urratsak eman behar dira:

1. Zentroko pertsona guztiak ezagutu behar duen amagandiko edoskitzeari buruzko arategi idatzia izatea.
2. Pertsonal sanitario guztia trebatzea, politika hau praktikan jartzeko gai izan dadin.
3. Haurdun dauden emakume guztiei jakinaraztea edoskitze naturalaren onurak zein diren eta nola jartzen den praktikan.
4. Amei laguntza ematea erditu eta handik ordu-erdira bularra ematen hasteko.
5. Amei irakastea nola eman behar dioten bularra haurrari eta, berarengandik bananduta egon behar badute ere, nola jarraitu edoskitzearekin.
6. Jaioberriei amaren esnea besterik ez ematea.
7. Ama eta haurra egun osoan elkarrekin egotea bideratzea.
8. Amagandiko edoskitzea bultzatzea, haurraren eskariaren arabera.
9. Bularra hartzen ari diren haurrei txupeterik ez ematea.

4 Letra etzanak nik neuk jarriak dira.

10. Edoskitze naturalaren aldeko taldeak osatzen laguntzea, eta amak talde hauekin harremanetan jartzen ahalegintzea.(IHAN web)⁵.



Iniziatibak aldarrikatzen dituen pausak betez gero, OMEko adituen komisioko UNICEF Internazionalaren bidez Haurren Laguna Ospitalea saria ematen dio zentroari. Iniziatiba hau Estatu Espainolean 1995etik dago martxan, eta egiten dituen ekintzak honakoak dira: amagandiko edoskitze promozioa, botere publikoen mobilizazioa eta sentsibilizazioa, saria jasotzekotan dauden ospitaleen ebaluazio eta aholkatzea. 2008. urtean 14 ziren estatu mailan saria jaso zuten ospitaleak(Arena,2008).

Osasun erakundeetan egindako lanaz gain, bada bestelako instituzioetan egindako lana ere, zeinaren bidez amek edoskitzeko baimenak lortu dituzten, hala 1999an OIT-ak (Organización Internacional del Trabajo) lanaldian edoskitzeko eskubidearen berrikuspen bat egin zuen eta edoskitzearan baimen ordaindua edukitzeko eskubidea ezartzen zuen.

5 IHAN-ren web gunea. <https://www.ihan.es/index13.asp> (2014/03/06).

Bestalde, historiako atalean aipatu bezala, emakumeak erditu ondoren enplegura itzultzerakoan edoskitu ahal izateko baimen bereziak eman izanak edoskitzea gauzatzeko momentuan eragina izan du; baina hala ere, bularreko edoskitzea promozionatzeko politika falta dagoela esaten da (Cardenas, Montes, Varon, Arenas & Reina, 2010), bai biomedikuntzako zenbait alderditatik baita edoskitzearen alde jarduten duten taldeetatik ere: “a pesar de la importancia que tiene la lactancia materna exclusiva, en la actualidad existe un problema de abandono precoz de la misma debido a la falta de políticas efectivas en pro de su promoción” (Cardenas, Montes, Varon, Arenas & Reina, 2010:1).

e. Bularreko edoskitzea sustatzen duten erakunde batzuk

Esnearen liga

Esnearen liga 1956. urtean sortu zen Ameriketako Estatu Batuetan. Gaur egun 63 herrialdeetan egiten dute lan bertako partaideek, eta beraien hitzetan hilabetean 300.000 ama inguru hartatzen dituzte. UNICEF-en barnean dago, eta OME-rekin elkarlanean dihardu. Gainera, Alianza Mundial a favor de la Lactancia Materna (World Alliance for Breastfeeding Action, WABA) ko kide eta sortzaile da. Esnearen liga batzuen aldetik oso miretsia eta beste zenbaitengatik oso kritikatu izan da, biomedikuntzaren atalean kokatutako euren argumentuak beti zientifikoak direla diotelako.

Beraien webgunean honela definitzen dute euren burua: “Esnearen Ligaren oinarrizko filosofiak kontzeptu hauek ditu ardatz:

- Amak haurra bularra emanaz haztea da haurraren beharrak ulertu eta asetzeko erarik natural eta eraginkorra.
- Amak eta haurrak elkarrekin egon behar dute haurra jaiotzen den unetik bertatik hasita, eta denbora asko igaro behar dute elkarrekin, behar bezalako harremana eta esne-produkzio egokia ezartzeko.
- Lehen urteetan, haurrak amarekin egoteko behar handia du; behar hori oinarrizkoa da, eta elikatzeko beharra bezain garrantzitsua da.
- Amaren esnea da haurrarentzako elikagai onena, eta haren bikaintasunak ez du parekorik.

- Haurdunaldia osatu ondoren jaiotako haur osasuntsuek ez dute behar amaren esnea ez den beste elikagairik, haurrak bestelako janariak behar dituela adierazten duen arte; hori lehen urtearen erdialde inguruan gertatu ohi da.
- Haurrari bularra ematen jarraitzea komeni da, haurrak berak harreman-mota horren beharra gainditzen duen arte.
- Amak erditzean modu kontziente eta aktiboan parte hartzea hasiera ezin hobea da bularra emateko.
- Aitaren maitasuna, laguntza eta babesa oso garrantzitsuak dira bularra emateko, eta bikotekideen arteko lotura indartu egiten dute. Aitak haurrarekin duen harreman berezia elementu garrantzitsua da haurraren garapenerako, haurtzaro guztian zehar.
- Elikadura egokia izateko, haien egoera naturaletik ahalik eta hurbilen dauden elikagaiez osaturiko dieta orekatu eta askotarikoa egin behar da.
- Jaiotzen direnetik, haurrak maitasunez hazi eta hezi behar dira; horretarako, beharrezkoa da haien gaitasunak onartzea, eta haien sentimenduekiko sentikorrak izatea”.(LLL,web)⁶

Beraien filosofiara pixka bat gerturatzeko adierazle ezberdinak erabili ditzakegu adibide gisa. Beraien presentazio eskutitza honakoa da, webgunean euren izenaren azpian kokatzen den leloaren arabera: “Los bebés han nacido para ser amamantados”(LLL,web)⁷. Eta bularreko esnea ematea sustatzeko iragarki kanpainetako batzuk begiratzuz gero hauekin egin dezakegu topo:

6 Euskadiko Esnearen Ligako Filosofia: http://www.laligadelaleche.org/index.php?option=com_content&view=article&id=44&Itemid=54&lang=eu Azkenekoz ikusia (2014-VI-15)

7 Euskadiko Esnearen Ligako hasiera orria: <http://www.laligadelaleche.org/>Azkenekoz ikusia (2014-VI-15)

Día Internacional de los Derechos Humanos

No se trata del derecho de una madre de amamantar a su bebé, se trata del derecho del bebé a recibir el mejor alimento posible.



Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna

Kontua ez da amek hurrei bularra emateko eskubidea dugula; kontua da hurrek dagoen elikagairik onena jasotzeko eskubidea dutela.



www.laligadelaleche.org

Bularra ematen ez duten emakumeek 3.8 aldiz aukera gehiago dituzte haurrak ondo ez zaintzeko, gutxienez lau hilabetez bularra ematen duten emakumeek baino.

Las mujeres que no dan el pecho son 3.8 veces más propensas a descuidar a sus hijos que las madres que lo hacen durante al menos cuatro meses.

26 de enero, 2009 HealthDay News/Dr. Tango



www.laligadelaleche.org

La falta de amamantamiento aumenta el riesgo de cáncer durante la infancia Haurrari bularra ez emateak haurtzaroan minbizia izateko arriskua handitzen du

Dundaroz R, Aydin HA, Ulucan H, Baltac V, Denli M, Gokcay E. Preliminary study on DNA in non-breasted infants. *Ped Internat* 44: 127-130, 2002
UK Childhood Cancer Investigators. *Breastfeeding and Childhood Cancer*. *Br J Cancer* 85: 1685-1694, 2001
Bener A, Deniz S, Galadari S. *Longer breast-feeding and protection against childhood leukaemia and lymphomas*. *Eur J Cancer* 37: 234-238, 2001
Guise JM et al. *Review of case-controlled studies related to breastfeeding and reduced risk of childhood leukemia*. *Pediatrics* 116: 724-731, 2005



La lactancia materna se asocia con una significativa reducción del riesgo de contraer leucemia durante la infancia

Bularra hartzen duten haurrek haurtzaroan leuzemia izateko askoz arrisku txikiagoa dute

Guise JM et al. *Review of case-controlled studies related to breastfeeding and reduced risk of childhood leukemia*. *Pediatrics* 116: 724-731, 2005
Bener A, Deniz S, Galadari S. *Longer breast-feeding and protection against childhood leukaemia and lymphomas*. *Eur J Cancer* 37: 234-238, 2001



25 La Liga de la Leche de Euskadi
Euskadiko Esnearen Liga
La Leche League International

www.laligadelaleche.org
www.facebook.com/ligadelaleche.euskadi

Ligari egindako kritiken artean, Badinter historiagilea irakurriz posizio tradizionalistak dituztela ikusiko dugu, edoskitzea bizitzaren zentroan jartzen dutela, eta honen arabera bizitza antolatzen dutela (Badinter, 2010). Posizio tradizionalistak jarraitze horrek emakumea bere rol erreproduktibora bideratzen dutela esan nahi digu, genero sistemak tradizionalki ezarritakoak, arestian historiako kapituluan esan bezala.

IBFAN

Hau bularreko edoskitzearen aldeko beste sare bat dugu. Euren burua honela definitzen dute beraien webgunean:

La Red Internacional de Grupos de pro Alimentación Infantil, *IBFAN*, está constituida por grupos y personas que defienden los intereses públicos en todo el mundo, que buscan reducir la morbilidad y mortalidad infantil y luchan por los derechos de la niñez y de las

mujeres, en especial en lo que concierne a vivir una vida saludable en todos sus aspectos. IBFAN busca mejorar la salud y el bienestar de los y las bebés, los niños y las niñas, sus madres, familias y comunidades, a través de la protección, promoción y apoyo a la lactancia materna y a las prácticas óptimas de alimentación infantil⁸.(IBFAN web)

Egiten duten lanaren parte da manifestuak eta gidak idaztea, eta horien artean atentzioa deitu zidan batekin egin nuen topo. “Lactancia materna: un asunto feminista”⁹ deiturikoa. Bularreko edoskitzea gai feminista bat dela argudiatzeko bi puntu azpimarratzen dituzte: bularreko edoskitzeak boterea ematen dio emakumeari, eta generoen arteko berdintasunean laguntzen du. Hau oinarri harturik, bularreko edoskitzearen alde egoteko arrazoi, argudio eta modu ezberdinak aipatzen dira testuan zehar, eta beste esaldi batzuen artean honakoarekin egingo dugu topo: “las condiciones que apoyan la lactancia materna exclusiva son condiciones que reducen la subordinación de género ya que contradicen las imágenes negativas sobre la mujer y enfatizan el valor del trabajo reproductivo de las mujeres”(IBFAN,1-2.or).

f. Amaiera oharrak

Azken finean, biomedikuntzak bularreko edoskitzea gomendatzen du, hori baita bere ikerketen arabera haurra elikatzeko modurik onena, eta honen onurak adierazteko ikerketak egiteaz gain, pertsonala honen sustapenean jarduteko formatzen du unibertsitateko ikasketetatik hasi eta jarraikako trebakuntzara arte, kurtsoak eta abar eskainiz. Ondorioz, egindako ikerketak bularreko edoskitzea bermatzeko beharrezko eskubideak lortzera bideratzen dira. Baina onura guztiak barnebiltzen dituzten ikerketa eta arautegi guzti hauek badute alde ilun bat: alde txarrak ezkututzen dituztela, eta beraz, edoskitzearen aurrean aurkitzen diren amek hauek pairatzerakoan eremu ezezagun batekin egiten dute topo; eta edoskitzea uztea erabakitzen badute, askok pairatzen duten erruduntasun sentimendua ikaragarria izango da. Baina honetaz oso gutxi mintzo da biomedikuntza.

8 IBFANren webgunea: <http://www.ibfan-alc.org/> Azkenekoz ikusia (2014-VI-15)

9 IBFAN, “Lactancia materna: un asunto feminista”

http://www.ibfan-alc.org/nuestro_trabajo/archivo/derecho-maternidad/cefemina/femi.pdf Azkenekoz ikusia (2014-VI-15)

3.4. Feminismoaren erronka

a. Sarrera

Feminismoan asko hitz egin da amatasunaren inguruan, eta asko amatasun moten inguruan. Eztabaida hauetako askok hitz egin dute sakrifizioaz, haur eta amaberrien beharrez eta elikatzeko hautuaz ere bai.

Amatasunari dagokionez, gai korapilatsua dela ezin da ukatu. Oso barnean ditugun sentimenduak nahasten dizkigu, eta maiz oinazeak eta haserreak ekartzen ditu gai honetaz hitz egiteak. Feminismoaren alderdi batek amatasuna emakumeen destinoa dela kritikatu izan du, eta amatasun konkretu bat gainera. Berau sakrifizioan oinarritua, bere buruaren alderdiak eta garapen pertsonala beste maila batera azpiratu behar dituen da emakumea, bere betebeharrak (gizarteak dio zeintzuk diren hauek) egoki bete behar dituen (Diez, 1995). Honek beraz destinoa eta errealtatearen talkak gertatzen direnean, eta batez ere destinoa partekatzen ez denean, erruduntasun sentimendu ikaragarria dakar. Ama izan ala ez izan erabaki pertsonala da, baina honek azalpen bat eskatzen du gizartean, emakumeek euren erabakiaren zergatia azaldu behar izaten dute maiz, eta ez dira gutxi izango honetarako gezurrak esaten amaitzen dutenak (Diez, 1999).

Gainera ezin dugu ahaztu kapitalismoak guzti honengan duen eragina. Kapitalismoak zainketen karga kentzeko beharra du, eta hau egiteko emakumeak zainketen jabe egiten ditu. Baina honek ondorio latz bat dakar berarekin, emakumeek zainketa hauek ematera derrigortuak ikusten dute euren burua, eta beraz, ez da desberdina izango amatasunaren gaiari dagokionean, berau zainketez josia baitago. Gure iruditerian bada honen adierazlerik, Amabirgina kasu: hau ama goren gisa irudikatua da, eta Carmen Diez Minteguiaren testuan aurkitzen dugun bezalaxe “(...) constituyete modelos ideales de valores inalcanzables: esto significa ensalzar un modelo imposible (...) una maternidad que sea un modelo de abnegación y sufrimiento(...)” (Diez Mintegui, 1995:89), esan beharrik ere ez dago eskuragaitza baldin bada berarekin frustrazioa besterik ez duela ekarriko.

Honen harira ezin ahaztu atxikipenaren teoriak amatasun eredu hau indartzeko egindako lana. Arestian esan bezalaxe, amarik gabe haurrak sufritzen duelako ideia zabaldua, ama asko euren seme-alaben arazo psikologikoen errudun bilakatu baitituzte, aitei kontuak eskatu gabe. Honen kontra ere egin du Feminismoak, eta oraindik egiteko asko ere badu.

Bestalde, amatasuna idealizatua dagoenean, honen inguruan aurreikuspen konkretuak sortzen dira emakumeen imajinarioan, eta errealitatearekin talka egitea momentu gogorra izan ohi da. Feminismoaren adar batek emakumearen autonomia aldarrikatu du aspektu hauei dagokionean, baina feminismoaren beste adar batzuk, desberdinketarena kasu, amatasuna naturalizatu eta esentzialismora jo dute, eta euren aldarrikapenak kapitalista eta matxistenekin antzekotasunak dituzte askorentzat. Honek arrisku handi bat du Amparo Moreno eta Pilar Sotoren testuan irakurri dezakegun bezalaxe, izan ere, emakume-ama ideia indartu dezake, eta berau etxe barrura itzultzearen ideia ekar dezake (Moreno&Soto,1994).

b. Feminismoaren bidea puntuz puntu argitzera

Lehenik eta behin esan behar da feminismoaren adar ezberdinek azkenburuan -iritsi beharreko helburua partekatzen badute ere- berau bilatzerako orduan teoria eta praktika ezberdinen bidez egiten dutela. Egoera interpretatzeko metodo ezberdinen bidez, eta kausa eta ondorioak ulertzeko era ezberdinen bidez, aseptikoki egoera bat dela pentsa bagenezake ere, korrante ezberdinek modu oso ezberdinean ulertuko dituzte egoerak. Ez da ezberdina izango amatasunaren eta edoskitzaroaren gaian.

Modu labur batean esateko, María Isabel Blázquezek, bere tesian, feminismoa eta lantzen ari garen gaiaren arteko eboluzioa horrela definitu du: Simone de Beauvoir-ek eta Shulamith Firestonek zioten amatasuna emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasunaren oinarria zela, eta lanaren bereizketa sexualaren jatorria. Honen aurrean, ikuspegi baikorrago batetik, Adrienne Rich kokatzen du, amatasunak emakumei eskaintzen dizkien potentzialtasunak azpimarratzen zituena. Bera izan baitzen lehena esaten emakumeek euren amatasuna modu positiboan berreskuratu eta potentziatu zezaketela, euren gorputzak berreskuratzeko boterea zutela eta giza bizitza sortu eta eraldatzekoa. (Blázquez,2009).

Edoskitzaroari dagokionez ere iritzi eta teoria kontrajarriak topatu ditzakegu. XX. Mende hasierako feminismo maternalista daukagu, diskurtsoaren zentroan amatasuna funtzioa sozial bat dela zioena, eta ez funtzio pribatua. Feminismo mota honek bularreko edoskitzea goresten du, eta emakumea enpoderatzeko erreminta kontsideratzen du. Baita azken hamarkadetan amatasun ekologikoa bezala ere deitua izan den ildo. Bularreko edoskitzearekin kritiko agertzen den feminismoa ere badago, hain zuzen ere 70.eko hamarkadan sortutakoa. Feminismoaren bigarren

olatu honek postulatu maternalistak albo batera utzi eta emakumea berriro lanera itzultzea aldarrikatzen du, gizonezkoen mentalitate aldaketarekin batera, hezkuntza eta zainketa elkarbanatzeko beharra azpimarratuz. (Blázquez,2009)

Hala ere, korrante ezberdinek landu badute ere, gaia bere baitan korapilatsua da. Barrenak nahasten ditu, haserreak eragiten ditu, tabua izatera iristen da. Zenbait autorek hau hala ez izatea aldarrikatzen dute: “A pesar de que todas y todos asumamos que lo personal es político, la maternidad en la actualidad tiene, todavía, mucho más de personal que de político”(Maria Castejón,2013). Honen aurrean erreferente berri eta anitzen beharra dago.

Feminismoari asko geratzen zaio esateko amatasunaren inguruan, asko eztabaidatzeko. Esan bezala, tabua da gaia:

El tabú que se cierne sobre cualquier discurso antimaternal dentro del feminismo no hace sino evidenciar el carácter conflictivo de una cuestión que no sólo afecta a la configuración de la identidad de las mujeres sino al mantenimiento mismo del orden social en su conjunto(Beatriz Gimeno, 2014).

Gaia ez da isolatua, genero sisteman txertatua baitago, eta egoera soziala aldatzeko ezinbestekoa da gaiaren errora joatea. Baina zer diote zehazki korrante ezberdinek?

c. Desberdintasunetik amatasuna eta edoskitzaroa

Gorago aipaturikoaz gain, korrante honek baditu zenbait elementu liburu nahiz artikulua ezberdinetan errepikatzen direnak. Horien artean erabakitze askatasuna daukagu, maitasun absolutua eta ekofeminismoa.

Erabakitze askatasunari dagokionez pentsatzen dute emakumeek independente/autonoma izateko presioa jasaten dutela, zentzu honetan amatasuna oztopo bihurtuz, eta euren aburuz haiek amatasun kontziente bat burutzen dute gizarte indibidualista batean. Gainera, erabaki horren bidez, amatasunak emakumeago egiten ditu, hau honela argudiatuz:

La (...) presión, la anti-maternal es más ladina y menos fácil de identificar. Está mezclada con la ideología productivista habitual de nuestras sociedades capitalistas, está mezclada con el consumismo y el hedonismo en el que nos hemos socializado, y recoge, para mayor confusión, muchos de los temas y conceptos del discurso feminista, lo que hace las cosas aún más complicadas(Carolina Del Olmo, 2014).

Bigarrenari dagokionez, ama batek ematen duen maitasuna bakarra eta absolutua izatearen aldarriari dagokio. Amatasunean bizitzen den maitasuna absolutua izatearen ideia defendatua izan

da leku askotan, berau naturalizatzeko joera dago eta. Honen adierazle: “Y aquí aparece de nuevo el comodín de la naturaleza que seguramente es responsable, al menos en parte, de que la mayor parte de la gente encuentre gratificante tener hijos, criarlos, cuidarlos, amarlos.” (Del Olmo,2014).

Maitasuna asko ikertu duen pertsona bat da Mari Luz Esteban. Egunkari baterako egindako elkarrizketa batean hala zioen: “Maitasuna gure bizitzako baliabide bakarra izatea arriskutsua da. Ez da esan behar “ez maitemindu”, baizik eta “hartu behar dituzun arnesak”; babestu”.(Esteban,2012). Estebanen hitzetan maitasuna gutxitan landutako gaia izatearen arrazoia zera da:

Beste zenbait arrazoiren artean, maitasuna nahiko naturalizatuta eta esentzializatuta daukagulako, berezki hartzen dugulako: ematen du hor dagoela, gizaki guztiok daukagula, kontrolaezina dela... eta arazo bat da, zeren maitasuna hala ulertzen badugu, ez dugu ikusten ez hausnartzeko ez eztabaidatzeko beharrik. Hori onartua dugu gizartean, eta feministok, neurri batean, ere bai, kritikoak izan arren, maitasunak emakumeengan dituen ondorioez jakitun. (Esteban,2012).

Esaten duena amatasunera eta edoskitzarora ekarriko bagenu, berdintasuneko feminismoetik aldarrikatutako amatasun mota garatzeko erreminta bihur genezake. Izan ere, amen maitasuna hain indartsua eta garrantzitsua izanik, feminismoaren alderdi batek arnesak eraiki ditzake ezinbestekoak zaizkigun eredu berriak sortzeko.

Eta ideia hauei jarraiki beste kontzeptu batekin egin dezakegu topo: amatasun erromantikoa, Beatriz Gimeno aitazuen duena, naturala eta berreskuratu beharreko garai bateko elementu on bat bezala irudikatua. Zenbaitek hau edoskitzaroarekin lotzen dute. Izan ere edoskitze naturala askorentzat definizioz maitasun ekintza bat da(Blázquez,2004). Nere galdera da zergatik den maitasuneko edoskitze naturala, eta badirudi edoskitze artifiziala ez dela.

Amatasunaren eta aitatasunaren artean bada sozialki egiten den desberdinketa bat, hala azaltzen du Gimeno: “parece que cada padre quiere a sus hijos/as como puede o como quiere. El amor maternal, en cambio, no admite matices.” (Gimeno,2014).

Eta hirugarrenari dagokionez, ekofeminismoaren definizio bat ematen du María Jesus Blázquezek: “El ecofeminismo contribuye a una evolución en el pensamiento feminista hacia una perspectiva mucho más holística, no violenta, sin género que respeta la biodiversidad y abarca a todos los seres humanos.” (Blázquez,2004:2). Korrante honek amatasunaren inguruan duen pentsamendua azaltzeko erabiltzen duen esaldien artean, Casilda Rodríguezek aldarrikatutakoa

daukagu: “Recuperar la verdadera maternidad guiada por el deseo físico corporal: una fuente inagotable de amor entrañable y complaciente.” (Blázquez,2007:7).

Ekofeminismotik edoskitzearen inguruko pentsamendua honakoa da Blázquezen hitzetan: “Amamantar es un asunto de mujeres, un derecho y un acto de bienestar y salud. Facilita la recuperación de la percepción y de la sensibilidad, tanto en el cuerpo físico como en el área psicosomática. Los grupos pro-lactancia formados por mujeres que se asocian como grupos de ayuda de madre a madre, constituyen un movimiento que se puede considerar incluido dentro del ecofeminismo cultural, el cual tiene sus raíces en el feminismo de la diferencia. El ecofeminismo reivindica la asociación mujer y naturaleza y encuentra en esa relación el fundamento para una solidaridad específica de las mujeres con la Tierra.” (Blázquez,2004:2.).

Korronte honek bere ideien sorrera azaltzerakoan, salto historiko bat egiten du feminismoaren jatorrira. Garai batean gertatutakoaren ondorio, emakume askok feminismoaren hasieran amatasun eta edoskitzaroa ukatu zuten, behar moral bat bezala ezarria baitzen amatasuna eta edoskitzaroa, eta hau askok esklabotza gisa bizi izan dute. Gerora, feminismoan aldaketa eman zen eta emakume batzuk ekintza hauek gozatzera iritsi dira, hala, eskubide bezala aldarrikatu dituzte eta ez betebehar bezala. (Blázquez,2004).

Bestalde, edoskitze artifiziala kritikatzeko du korronte honek, botere ekonomikoari mesede egiten diola esanez. Baina bitxia da, izan ere, gauza bera kritikatzeko zaio berdintasuneko feminismoa edoskitze naturalari, beste zentzu batean: sistemari amatasun rola ideia itxi tradizionalistaz baliatuz, emakumea etxean egotea eta menperatua egotea komeni zaiolako.

Gainera, ekofeminismoa edoskitze artifizialari egiten zaizkion kritiken artean, haurren behar emozionalei dagozkienak topatu ditzakegu. Edoskitze naturalak behar hauek asetzen dituen bitartean, edoskitze artifizialak ez ditu onura hauek euren iritziz: “los efectos beneficiosos de la lactancia materna se prolongan años después del destete y la ventaja más valiosa de la lactancia es que aporta una base emocional única para la madre y su criatura.”(Blázquez,2004:11)

Ekofeminismoari kritikatzeko zaion gauzen artean, oinarrian antifeminista izatearena aurkitu dezakegu:

Este antifeminismo que viene es un mix entre ecologismo esencialista y feminismo de la diferencia mal entendido. Ellas plantean una revalorización de lo ontológicamente femenino

sin salirse del patriarcado ni un metro. No necesitan organizarse políticamente en contra de la opresión porque, al parecer, lo único que las oprime son los avances del feminismo. (Gimeno, 2012)

Beste batzuek aldiz, tonu ironiko batean egiten dituzte euren kritikak: “Una vez demostrado que ser superwoman es inaguantable, descubrimos otra forma de ser madre: la criadora natural extrema, totalmente feliz en su rol de lavadora de pañales ecológicos.”(Brigitte Vasallo, 2014).

d. Berdintasunetik amatasuna eta edoskitzaroa

Feminismoaren alderdi honek amatasunaren eta edoskitzaroaren bestelako ikuspegi bat dauka, lehenago esan bezala. Gorputzaren kontrola emakumeek izan dezaten borrokatu izan du eta dihardu, eta, amatasunari dagokionean, desiratutako haurdunaldietatik hasi, haurdunaldi prozesuarekin jarraitu eta erditu ondorengo uneari dagokionean ere bai emakumeen esku egoteko lan egin du. Hala, Estatua emakumeen gorputzen kontrola bereganatzen diharduela eta, honen aurka altxatu da feminismoaren alderdi hau: “Desde una perspectiva biopolítica, el Estado actúa a través de la medicina como institución con reconocimiento y poder de intervención sobre los cuerpos” (Foucault, 1990:97,106 en Blázquez,2009:81).

Feminismoan eztabaida handia dago amatasuna aukeratua edo inposatua denari dagokionean. Lehenago esan bezala, Ekofeminismoak aldarrikatzen duena amatasun kontzientea da, baina zenbait pertsonen diotenaren arabera, amatasuna ukatzea tabua da gizartean, beraz, amatasuna haien ustetan ezin da aukeraketa bat izan:

Porque la cuestión es: ¿Se puede verdaderamente elegir algo cuando una de las dos opciones es prácticamente un tabú social, científico, político, etc.? Lo cierto es que las mujeres hacen sus elecciones acerca de la maternidad en un contexto coercitivo acerca no sólo de no tener hijos sino especialmente de tener acceso a las ventajas o a la felicidad que puede proporcionar no tenerlos, así como a la ignorancia de los problemas, las desventajas o la infelicidad que puede proporcionar tenerlos. Cualquier posición, política o personal, contraria al discurso maternalista recibe una sanción social, económica o psicológica brutal. Es en este sentido de falta de alternativas en el que el discurso promaternal es totalitario. (Gimeno,2014).

Gainera korrante honek besteak ere kritikatu izan ditu arestian esan bezala. Gizarteko hainbat ahotsek haurren umetoki barruko bizitzaren zainketa, jaiotze ondorengo atxikipenaren garrantzia eta haurren edoskitze eskubideez hitz egiterakoan, emakumeen eskubideak alboratuak direla argudiatzen da. “Esta idea conduce a crear y recrear la invisibilización de la mujer gestante, y constituye al feto como individuo con derechos, entre otros, el derecho a la protección de la salud (a

no fumar, a no beber, a no medicarse, a evitar ciertos alimentos y actividades por parte de la madre)” (Imaz, 2003:4 en Blázquez,2009:108).

Korronte honetan kokatu dezakegu Beatriz Gimenoaren artikulu bat, zeinak zalaparta handia sortu zuen idatzitako *Pikara Magazine* aldizkari digitalean. Autoreak izenburu probokatzaile batekin (“Estoy en contra de la lactancia materna”) edoskitzaroaren eta amatasunaren inguruan hausnarketa bat egiten du. Bere ustez gizartean edoskitzeko zenbait amek esaten dituzten arazoak izatea ez da errealia, eta honekin kausa bat eginez emakumeei betebeharrak bat sortzen zaiela argudiatzen du. Bere ustez presioa amek edoskitu dezaten da. Jarraian naturalizazioaren kontra doa: “La presión a favor de la lactancia se encuadra en la cada vez mayor naturalización de las mujeres.” eta aurrerago zenbait aldarrikapen egiten ditu. Laburbilduz, zenbait emakumek bularra ematearen presioa jasotzen dutela kontuan izanik, bularreko edoskitzearen defendatzaileen argudioen kontra egiten du:

Que el bebé se convertirá en un niño y adulto exactamente igual si ha mamado que si no (la generación de los 60, la mía, fue la de la liberación de las mujeres. No mamamos y aquí estamos) (...) Que ser madre lactante no es una obligación, sino una opción; que se puede ser buena madre y dar biberón; (...) Que es igual de amoroso dar de mamar que no hacerlo y que yo quiero a mi hijo tanto como la madre más amamantadora; que cuidarse una misma y ponerse por delante de necesidades inexistentes del bebé es sano y no egoísta, (...) Que todos esos estudios que esgrimen las de la Liga de la Lactancia que se supone que “demuestran” que la lactancia protege al bebé de no sé cuántos males y le convierten en más listo, más sano, más guapo y más alto que los criados con biberón no son ciertos (...) Lo que es malo es presionar a las mujeres, vender la lactancia como el paraíso, usar argumentos naturalistas y biologicistas para encerrar en ellos a las mujeres, no respetar la libertad de elección; es malo hacer de la lactancia una causa de las mujeres (...).(Gimeno, 2014).

Artikuluak oihartzun handia izan zuen aipaturiko aldizkarian, eta erantzunak anitzak izan ziren. 2011. urtean idatzia da, eta 2014ko abuztuan emandako erantzunak aurki daitezke. Guztiz ados zeuden pertsonengandik, autorea iraintzen zuten pertsonetara iritsiz, 400 erantzun inguru topatu daitezke, gaia korapilatsua den seinale.

Behin eta berriz aipatzen da natura hitza, naturala amatasunari dagokionean. Honen arabera zenbaitentzat emakume guztiek izan nahi dute ama euren egoera biologikoagatik, errealizatuak sentitzeko. Natura argudio bezala erabiltzen dutenek, parean aurkituko dute hau agindu sozial bat dela diotenak.

Puntu honen kritikak Esnearen Ligara eramango gaitu. Berdintasuneko feminismoaren inguruan dabilzan pertsona askok, Esnearen Ligak aldarrikatzen duenari kontra egiten diote:

una forma de vivir la maternidad vinculada al eterno femenino. Nos referimos a esa visión, que en la actualidad tiene grandes adeptas, que define la maternidad como un estado natural gozoso, cuasi místico, que exige prácticas como el colecho, el portabebés y define al biberón y la leche artificial como enemigos a batir. Este modelo de maternidad coloca al bebé como eje de la vida de las mujeres y difumina de forma clara la presencia de los padres en el proceso. (Castejón, 2013).

Amatasunaren prozesu guztia naturalizatuz bere izaera soziala alboratua dela diote askok, eta honek aniztasuna ukatzen duela, hau da, unibertsaltasuna dakarrela. (Blázquez,2009). Baina naturalizazioaren defendatzaileek egoera beste modu batera ikusten dute, eta halako argudioak ematen dituzte euren postura defendatzeko:

Los nuevos métodos de investigación arqueológica y el enfoque interdisciplinario de los equipos científicos han provocado una drástica revisión de la prehistoria y permiten conocer cómo era la vida hace seis mil años antes de nuestra era, una vida de paz y amor, de respeto a la vida y la naturaleza, impregnada de una fe ardiente a la Diosa Naturaleza. (Blázquez,2007:8).

Beraz, amatasuna naturalizatuz, mundu harmoniatsura bideratzen dutela diote.

e. Amatasun intentsiboa eta feminismoaren interpretazioa

Amatasun intentsiboaren gaiari dagokionez, M.I. Blázquezek bere tesian nola definitzen duen ikusita, argia dela iruditzen zait:

Sharon Hays (1998:14–15) habla de la “maternidad intensiva”, como un modelo actual, ya que ésta exige no sólo atender a las necesidades de las criaturas, que por otra parte cada vez se presentan como más numerosas y costosas, por lo que se requieren de recursos económicos para su cobertura, sino también mantener un fuerte compromiso emocional por parte de las mujeres con sus criaturas, lo que hace que vivan esta experiencia con una enorme cantidad de exigencias y, desde luego, puedan aparecer contradicciones. (Blázquez,2009:112).

Gizartean amatasun mota honetaz gutxi entzuten bada ere, feminismitik gogor kritikatu den zerbait da. Emakume-ama lotura horretan, talde homogeen bat bilatzen du sistemak, eta zeregin konkretuak ezartzen dizkio, Beatriz Gimeno definitzen dituen bezalaxe:

Las mujeres no son individuos, son todas iguales, todas madres y, sobre todo, todas la misma madre: La Madre Patriarcal. La entregada a su prole, la que siempre y en todo caso está dispuesta a sacrificarse por los intereses de sus hijos, sean reales o no. La que nunca puede escoger el propio bienestar, aunque eso no haga ningún daño a su hijo o hija porque “propio bienestar”, es tabú; es lo peor que puede ser una madre: egoísta. (Gimeno,2011)

Amatasun intentsiboak berarekin bi kontzeptu bereiztea dakar: ama ona eta ama txarra. Zenbaitek paralelismo bi egiten dituzte. Ama ona gizartean santua da, amabirjina, eta ama txarra gizartean okerren ikusia dagoena: puta. Honela, zenbait ahots entzun ditzakegu ama txarraren figura goraiapatuko dutenak.(Gimeno,2014&Castejón,2013).

Azkenik eta amaitzeko, aitatasunari dagokionean Blázquezek bere tesian dioen bezalaxe, edoskitzearen inguruko artikuluko gehienetan gizonezkoen aipamenak urriak dira. Aipatzen da, noizean behin, edoskitzearen mantenuan inguruan dagoen jendeak duen eragina, berau jasotzen den laguntzaren araberakoa baita askotan. Baina asko horretara mugatzen dira, eta emakumeek prozesuaren karga gehiena beregan hartzen dutenaren kausa edo ondorio izan daiteke hau. (Blázquez,2009). Edoskitzaroan bikotekideek daukaten eraginaren dibertsitatean sakontzeko, oso interesgarria litzateke bikote lesbianak ikertzea, konparaketa egiteko. Betiere kontuan izanda genero sistema batean txertatuak gaudela eta hauek ez direla kolektibo homogeen bat, baina bai direla genero berdinetik datozen pertsonen osatutako bikoteak. Gauza bera gerta liteke bikoteak beharrezkoak edo kopuru anitzetako taldeak osatzen dituzten pertsonetan.

4. Ikerketa enpirikoa

4.1 Ikerketa prozesuaren zailtasunak

Halako tamainako ikerketa bat egiterakoan lehen zailtasuna oinarri sendo bat jartzea izan zen, behin hori eginda egin beharreko bidea parez pare irekitzen baita. Irakurri, marko teorikoa idatzi eta elkarrizketatu beharreko pertsonen zerrenda bat egin eta gero elkarrizketatuekin zita jarri. Hortxe nire komeriak. Udaran jendearekin kontaktuan jartzeak izan ditzaken zailtasunei amek hurrekin egin beharreko planak gehituz gero, batzuetan zita bat jartzea benetan zaila izan da. Honi bi pertsonen erantzun eza gehituz gero, irailaren hasieran planto erabakia hartzea izan zen. Beraz, hasierako ikerketa diseinutik, bi elkarrizketa ezin izan nituen egin: hirugarren hilabetean edoskitze naturala eman duen pertsonari elkarrizketa, eta erditze ostetik bi urte pasata edoskitze naturala eman duen pertsonari elkarrizketa. Bi elkarrizketa hauen falta nabaria bada ere, emaitza ona izan da.

4.2 Elkarrizketatuen profilak

a. Amaberri Feministen profilak

- Lehen hilabetean eta hirugarren/laugarren hilabetean.
 - Karmele:
 - 30 urte.
 - Baionakoa.
 - Abokatua
 - Militantea urte luzez ezker abertzalean.
 - Feminista.
 - Bikotekidea, Jon, preso da, 34 urtekoa.
 - Semea: Kimetz, 5 astekoa eta geroago hiru hilabete eta erdikoa. Bularreko esneaz elikatu da 3 hilabetez eta orain esne artifizialaz elikatzen da.
 - Leire:
 - 35 urte.
 - Irungoa.
 - Animatzaile soziokultural ikasketak ditu, gaur egun langabezian dago.
 - Irunen bizi da bikotea, semea eta hiru txakurrekin.

Feminista.

Bikotekidea: Haritz, 37 urte, langabezian.

Semea: Kimetz, 3 astekoa. Semea bularrez elikatzen du egun.

○ Naroa

36 urte

Hernaniarra.

Lanean.

Feminista. Talde feminista batean militatua, egun sarean militatzen du, baina ez aktiboki. Betaurreko moreekin soinean.

Bikotekidea: Txema, autobusetako mekanikoa.

Seme-alabak: Ortzi 4 astekoa eta Saioa 5 urte.

Saioa lehen egun eta erdian bularrez elikatu zen eta gainontzekoan biberioiaz. Ortzi lehenengo momentutik biberioiaz.

• Bi urte pasata gutxienez.

○ Ainhize:

33 urte.

Lasartekoa, Pasaian bizi da egun bere bikote, alaba eta semearekin.

Erizaina. Bi urtez lan egin zuen amaberrien unitatean Donostiako Unibertsitate Ospitalean.

Feminista.

Bikotekidea: Iñaki, 39 urtekoa. Fabrika bateko langilea.

Seme-alabak: Idoia 5 urtekoa eta Unai 18 hilabetekoa.

Alaba elikatu zuen bularrarekin bi urte eta erdiz eta semea edoskitze mistoarekin 7 hilabete.

○ Arritxu

34 urte.

Lasartekoa.

Kimikoa.

Feminista. Parekidetasuna ere lantzen duen talde batean militatua.

Haurdun 39 astez elkarrizketaren momentuan.

Bikotekidea: Oinatz, kimikaria. 18 urtetatik daramate elkarrekin.

Alaba: Jaione. 3 urtekoa. Lehen egunetan bularrez elikatua baina gainontzekoan biberoiaz elikatua.

b. Osasun langileen profilak

- Elkarrizketa sakona:
 - Donostia Unibertsitate Ospitaleko edoskitzaroko erizain erreferentea: Carmen.
60 urte.
Nafarra baina Donostiarra sentitzen da.
Erizaina dela 40 urtetatik.
Edoskitzaroko erreferente gisa 8 urtez lanean¹⁰.
 - Eztabaida taldea:
 - Maider:
31 urte.
Andoaingoa.
Erizaina. 10 urte erizain gisa lanean eta amaberrien unitatean 6 urte eta erdi.
Ez da ama, baina bere iloba zaindu behar izan du txiki-txikitatik egunerokotasunean eta denbora luzez. Gaur egun berarekin bizi da, baita bere bikotekide eta pisukidearekin..
 - Amaia:
33 urte.
Zarautzekoa, egun Donostian bizi da.
Erizaina. 12 urtez erizain gisa lanean eta amaberrien unitatean 8.
Izeba da.
 - Mila:

¹⁰ Donostiako Unibertsitate Ospitalean amaberrien unitatean aste barruan goizez edoskitzaroko erizain erreferentea egoten da. Bere lana edoskitzaroaren inguruko laguntza, gomendioak eta formakuntza ematean datza. 2006 urtean sortu zuen Osakidetzak postu hau.

55 urte.

Anoetako, Tolosan bizi da bere senar, seme eta alabarekin.

Erizain laguntzailea. 15 urte erizain laguntzaile gisa lanean, amaberrien unitatean 9.

Semea eta alaba bularrez elikatu zituen, lehena 3 hilabetez eta bigarrena 10-15 hilabetez.

Lehenak egun 25 urte ditu eta bigarrenak 18.

4.3 Elkarrizketen analisisa

a. Amaberi Feministen elkarrizketen analisisa

Edoskitzaroko bizipenetaz hitz egiten

Bizipenak anitzak izan dira. Oso ezberdina da haurrak koxkortuak dituzten emakumeekin hitz egitea edota jaio berriak diren haurren amekin hitz egitea. Lehenengo haurrarekin lehen hilabetean hitz egiterakoan, gauza asko hausnartu gabeak dituztela esan didate. Aldiz bigarren haurrarekin, hausnarketa lehenarekin egin eta gero, erantzunak bestelakoak dira. Haur nagusiagoak dituzten amekin gauza bera gertatzen da, denbora pasa ahala hausnarketa maila handiagoa dela nabari da. Hala ere edoskitzaro naturalari dagokionean, bada emakumeek behin eta berriz errepikatzen duten gauza bat: sozialki oso polita jartzen dute baina oso zaila eta gogorra da. Ainhizeren hitzetan:

eske jartzen dizute dana super arrosa super polita, bua izangoa hasieratik... bueno nik ikusi nun bideo hoi jartzen dizute tripa gainean eta trepatzen du titia hartzeko eta eh, eh, ez, umea jarri behar dezu, titia hartu, jarri gorago, beherago, pezoia ahuan sartu...

Jarraian, egoera gogorra izan arren, inguruan prozesua bizi izan duen jendea edukitzeak ideia egiteko laguntzen duela adierazten du, eta hau izan ez duen jendeak mundu berri batekin egin duela topo.

lehenengoakin esaten nun bueno ni saiatuko naiz, ez nekin oso ondo zer zan, bueno ni saiatuko naiz, baina ezta ere agobiorik gabe. (...) eta gero hain esperientzia polita eta luzea eta ona izan zan, Unaiekin ya ezberdina zian zan. Esan ziaten bularra emango diozu? Eta ni BAI, eta ondokoak esan zidan a ver como te va, eta esan nion ez, nik emango diot, oso argi neukan. Baina lehenengoakin, eske ez dakizu zer dan ez... ezta ere ez ditut euki lagunak eta... nere lagunak ez dituzte umerik, ez diot inori ikusi.

Arritxuren egoera bestelakoa izan da, inguruko lagunengandik informazio asko jaso baitu.

ni ez naiz izan ama lehenengotarikoa, nik egin det lehenengo masterra ingurukoekin. Ordun ba jaso det ere informazioa beste ama eta aitengandik beren esperientzia onekin eta gauza

asko ez dituzunak planteatu ere beraiek botatzen dizkizute eta gero etxean erreflexionatzen horren inguruan eta esatezu ostra ba egia da. Eta laguntzen dizu.

Gizartearen begiradari dagokionean, Naroak emakumeak euren erabakiagatik epaituak direla sentitzen du, bere baitan bizi izan duelako biberoiez elikatzeagatik gizartearen epaiketa. Berak bularra ematea nahiz ez ematea emakumeen eskubide bezala aldarrikatzen du. Hau azaltzeko kontatzen du nola lehen umearekin jendeari bere erabakiagatik esplikazioak ematen zizkiola eta bigarrenarekin erabakiaren konbentzimenduarekin, hau egiteari utzi diola. Osasun langileen aldetik oro har errespetua aurkitu badu ere, zenbaitetan bere erabakiaren zergatia azaltzeko eskatu diote, edota komentario ezatseginak egin. Horregatik erditze aurreko saioak Donostian dagoen talde batean egin ditu, sare pribatutik, bertan lehenengo momentutik errespetatua sentitu delako.

aukeratu nun leku hau baita ere beraiek (...) esperientzia asko daukate eta ordun beraiek badakite zer den orokorrean hobeagoa, bai erditzeari begira baita ere gero ba hori ez edoskitzea edo biberoi edo alternatiba ezberdinei begira baina gehien gustatzen zaidana da respetoa. (...) baina leku askotan ez dago, nik dakit lekuak jun izan dena eta lenengo saioan jun dena.

Jendeak kalean biberoiarekin ikusi duenean justifikazioa eskatu dio modu batera edo bestera:

Nik bai nabaritu et esplikazio pila bat eman behar dituzula,(...) resian egun terdira erabaki nunean esnea moztea, pediatrari esaten, (...) goatzen naiz kriston esplikazio pila eskatu zizkiala (...) Y zan como, oye, ¿Tú cuando una persona decide darle pecho le haces tantas preguntas? (...) hori, bai, o sea jendeak ematen du por hecho biberoia ematen badiozu dela ezin diozulako eman, eta gainera ere dago sozializatua que hay gente que no tiene leche, que hay gente que tiene leche de mala calidad, pos eso... la gente sabe de todo tipo de pechos, de leche... (...) Eta gero ospitalean bertan (...) sartzen dira erizainak eta garbitzaileak oso ondo nik ez dakit, las de rosa, las de azul... ordun bakoitzak kontatzen dizu nahi duna, eta egiten dizu nahi dun komentarioa. (...) ordun ez badituzu gauzak argi...

Baina bigarren haurra edukitzerakoan bere jarrera desberdina izan da, egoerari konbentzimenduaz egin dio aurre eta ez du bere burua justifikatzeko beharrik izan.

Nik uste det hori dela, zu zure erabakiarekin gustora bazaude que le den por culo a la gente. O sea de... horregatik iruizten zait izan behar dela indartsua.

Horrela, egoera horietan eman dituen erantzunak ere bestelakoak izan dira, hala nola ospitalean:

las de rosa como les llamo yo... Jun zen abitaziora y me dice: “¿qué, al final biberon?” Y yo... no al final no, al principio, (...) ez baina da hori, al final... pero ahí te esta juzgando...

Gaiarekin lotuta, berak edoskitze gaiak libreki hitz egiteko toki baten beharra aldarrikatzen du. Azken finean, bera kontziente da jende askok gaizki pasatzen duela isilean eta horren erakusle kontatzen du nola zenbaitek Naroarengana jo izan duten barrenak husteratzen:

ni kontuatzan naiz o sea eske jendeak kontatzen dizkizu gauza batzuk pues como a mi no me cuentas tu vida... kar kar kar. En plan... pero en bularraren kontuakin eta nik uste det niri edo Txemari ikustean biberoiakin jende batek esaten du ostia! honek ez nau epaituko.

Orokorrean edoskitze naturalaren hautua egin duten emakumeek laguntza egokia jaso dute osasun profesionalen aldetik. Eta hasieran edoskitze naturala egin dutenek eta denbora batera artifizialera pasa direnek ere errespetua aurkitu dute profesionalen aldetik. Hala ere, aurrerago aipatu bezala, Naroaren kasuan ez zen hala izan, epaitua sentitu baita bai lehenengo haurrarekin eta baita bigarrenarekin ere edoskitze artifiziala eman dielako.

Denek aipatzen dituzte egin daitezken hobekuntzak, eta asko kontziente dira egoera partikularrek edukitako eraginez. Karmeleren kasuan bera ospitalera erditzera joan zenean berau bete zegoen, eta beraz ez zen amatasun-unitatean egon. Bakarrik eta galdurik sentitu zen askotan, informazio eta laguntza gehiagorekin hobeto sentituko zela uste du. Eta, Arritxuren kasuan, ospitaleari kritika egiten dio. Erreferente baten beharra ikusten du, norberaren kasua eramango duena eta bere eboluzioari jarraiki gomendioak emango dizkiona. Bera abuztuan erditu zen, asteburuan, eta egun horietan plantako egoera kaotikoak laguntza falta sentiarazi zion, aholku asko eta haien artean kontrajarriak jaso zituen.

Edoskitzearen gizarteko eredu eta diskurtsoak

Elkarrizketatutako emakume guztiek bat egiten dute euren haurdunaldi eta edoskitzaroan hamaika mitoren berri izan dutela esaterakoan. Gainera hamaika komentario entzun behar izan dituzte, batzuk errespetuarekin eta besteak ez. Izan ere, amaberri guztiek kontatu dituzte bizitako zenbait egoera, jendea euren amatasun jarrerak epaitzen sentitu dutenak eta lezioak eman dizkietenak. Denek esan dute egoera horiek ez zaizkiela gustatu.

Zenbaitentzat errazagoa izan da egoera eramatea, batez ere bigarren haurrarekin euren buruaz ziurrago egonda, erantzunak emateko gai izan direlako edota gutxiago erasan dietelako entzundako gauzek. Gizartearen begiradapean amatasuna, maila batean, haurdunaldian hasten dela pentsa dezakegu, hala bizi izan baitute elkarrizketatuek, gizartearen erdigunean kokatu baitituzte

euren sabel puztuek. Honi jarraiki, haurdunaldian gaizki eraman duten egoera ohikoena tripa ukitzea izan da, jende ezagunak nahiz ezezagunek, hala kontatzen du egoera Arritxuk:

*amorru asko ematen ditena eta ez det esango gorroto baina, jende askok ohitura dauka tripa ikutzea. Eta ez dakit zegatikan, ipurdia ez diate ikutzen. Eske kriston joera dago. (...) nere laguna baldin bazea ez zait inporta baina tratu kanpoko tratua daukan edozein hartu eta nere tripa ikutzea, eske nere tripa nere ipurdia bezela da, edo nere sorbalda bezela berdin zait, eske berdin du, eta **ematen du publikoa dala**¹¹, eta amorru pila bat ematen dit horrek.*

Ziurtasun falta horretan kanpokoek nahiz etxekeok zer esaten duten eragina daukala Ainhizek esaten du. Hasieran zalantzak izanik gogorra da beretzat komentarioak entzutea.

Alaba neria da. Berarekin denbora gehiena egon dana ni izan naiz, ordun bai, zu ere ama izango zea (bere amaginarrebaz), nahi dezuna, baina bakoitzak ezberdinak gea eta ez... (...) Zaude super pozik alde batetik, beste alde batetik piskat urduri ze ez dakizu ondo ai zean, zalantzak dituzu normala dalako, eta que si frio, que si calor, que si esto.. -ai ama, eta ile hauek? Moztu beharko dizkiogu! -Utzi ilea pakian! -Ai, ¿es que se esta arañando! -¡si no le va a quedar cicatriz!

Familiarekin halako egoerak kudeatzeko garaian, Naroak estrategia garatu du bere bikotekidearekin, era horretan famili arteko haserreak ekiditeko. Lagunekin prestatu zen honetarako eta orokorrean ondo bizi ditu egoerak; bere hitzetan edozein pertsonak edozeren iritzia ematen du, baina bere gurasoekin iritzi ezberdinak izaterakoan lanketa handia egin dute. Hala ere, bigarren haurrarekin hobeto antolatu dira jendea euren terrenoan ez sartzeko, eta azpimarratzen du nor bere erabakiez ziur egoteak duen garrantzia. Azken finean, indartsu egotea.

Haurra jaiotzen denean jendeak esaten du nahi duna. O sea nahi duna ezagutzen ez zaitun jendeak, ezagutzen zaituna. Ya haurdunaldian, (...) ta gero, jaiotzen denean. (...) lehengoan ni Kontxan nengon eta zan lehenengo aldia gainea, kendu nun kamixeta eta eman nun krema ondo eta paseatzen eta emakume batek esan zian, que por favor me tapara la tripa que eso era muy malo para el niño. Eta esan nion: pues no me voy a tapar la tripa.(...) Bai, esateizut kriston ariketa eginda eh, baina ez naiz sartu eh, ez nere amarekin ezta nere bikotearen amarekin. Ze askotan nik uste igual nere amaren kasuan ez da bakarrik amatasuna, historikoki iritzi ezberdin asko izan ditugu gai askoren inguruan. Eta ordun errespetatzen ditu eta nik ere(...) Hori hola, eta nere bikotearen amarekin pues... da berdina, zu momentu batean plantatzen badiozu batzutan beretzat arduratzea pues errespetatu behar dituzu gauza batzuk, bera bai dela gehio de la vieja escuela de hau egin behar da horrela, hau horrela, o sea... nik ustet haurra eduki baino lehen o sea harremana errexagoa zela, o sea haurra edukita igual... baina hori ere adostua daukagu, bere etxean berak hitz egiten du, eta nere etxean nik hitz egiten det, eta batzutan ez det ikusten.

11 Nik neuk azpimarratua

Oso maiz aipatzen dituzte jende ezezagunak egindako komentarioak, eta baita jende honek haurra ukitzeko daukan joera. Ez hori bakarrik. Edoskitze artifizialari dagokionean, jendeak haurrari biberioa ematen uzteko joera handia daukala komentatzen du Arritxuk, eta berak biberioira pasatzeko prozesua gaizki zeramanez, hau gorrotagarria egiten zitzaion.

Oso metetea da. Txupetea, adibidez, dauka kriston ohitura jendeak txupetea jarri behar izatea umeari, negar eta poonle txupete, eta si yo no quiero qué pasa. Eta zu gainera bazaude bularraren historiarekin gomendatzen dizute orokorrean ez jartzea txupetea. Eta ordun zuk nahi dituzu pauta batzuk eraman irizpide batzuk eta jendeak ez du errespetatzen. (...) Eta gero con el biberón, denek eman nahi diote biberioa. Eta zuk prozesu hori eraman dezunaren arabera, agian ez zaizu inporta, nik jende asko ezagutu det ez daukana inungo arazorik, baina nik ez diet utzi. Nik ez nien utzi nik ez nuelako biberoirik eman nahi, neretzako frustrazio bat zan biberioa ematea. Neretzako bularra ez ematea sinbolizatzen zun nola lehen esan dizudan zilborrestearena, ba apurketa hori. Ya guztiz, umea ez dago zure... zuk bularra ematen badiozu zu zera, berdin zait, nei kriston enbidia ematen ziaten esaten ziatenak, jo marmita bat badirudit, ni bakarrik esnea naiz. Eta ni, jo ze suertea dakazun nei umea besotatik kentzen diate, eta ez dakazu inolako loturarik. Oso txikiak dira beraien afektibitatea adierazteko eta zu bereziak izan nahi dezu, zu bere ama zara.

Komentario eta egoera estresagarriari dagokionez, Karmelek berari espexera egindako bisita batean gertatutakoa kontatu zidan. Kontatzen zuen heinean berriro urduritu eta haserretzen zela antzematen zitzaion, bere eremuan sartu izanak min eman zionaren erakusle.

Bai, nik hori ez dut soportatzen, ya besteak lekzioak ematea, ya eh. Ez duena ezagutzen, zuk ezagutzen duzu zure umea, eta aurreko batean bisitan nintzen, itxoitzen eta bera akitua zen, eta ez zuen lortzen eta justo sartzeko tenorea, (...) negarrez ari zen, eta emazte batek, hori bero egin behar zuela edo bero ukan behar zuela, eta erran diot barkatu baina nere ninia da, ezagutzen dut eta badakit zer duen. Zenta hori hainbeste entzuten duzun eta hainbeste holan, eta gainera jendeak batzutan lagunak dira eta fan, depende nola erraiten den bakizu?(...) eta bisita baten bukaeran ari zen negarrez eta negarrez, eta emazte batek gosea du. Nik banekien gosea ez zela, zen justo ordu bat lenago jan zuen. Eta bai holako negarrak gosearenak dira eta... bera negar eta negar baina akitua baitzen, eta hori eta beharbada bero eta dena bakizu hiru ordu eta gero. Eta ba bai, hori gosearena dela eta ya behar nion, eta joan nintzen zenta entsegatzen nintzen, bera kalmatzen eta etzen hori. Eta buuala, jendeak holako... ez... (...) Da erakusteko haiek badakitela edo, ez dakit.

Azkenik, Naroak komentatzen du nola jendeak edoskitze naturalaren oztipoekin topatzerakoan, artifiziala konponbide bezala ikusten duela, eta hala sustatzen dela.

Jendea ez dago ohitua gaizki pasatzera, ordun en cuanto estan un día y medio mal es como: dale un biberón.

Informazio iturriak eta bertan ematen diren diskurtsoak

Gehienbat emakumeak osasun zentroko informazioaz baliatu dira. Bertan izaten diren erditze aurreko klaseetara joan dira denak, eta batek arestian esan bezala, honetaz gain sare pribatura ere bai. Gero zenbaitek bertan emandako liburuxkak irakurri dituzte, beste batzuek liburu konkretu batzuk eta azkenik lagunartean eta euren amari galde eginez informatu dira. Informatzerako garaian garrantzia eman diote erditze prozesuari, eta gero zenbaitek elikatzeko hautuari ere bai. Osakidetzak emandako informazioa edoskitze naturalera bideratzekoa izan da, eta ez dute printzipioz edoskitze artifizialarena jaso.

Ainhize lehenengo haurrarekin eta bigarrenarekin joan zen erditze aurreko klaseetara. Bertan bi garaietan ikuspegia ezberdina izan du, batez ere bigarren haurra izan zuenean bazekielako edoskitze naturala praktikara eramatea zaila zela. Gauzak honela, klaseez hausnarketa egiten du:

Nik esaten nien, ze gañea Andreak (emaginak) bazekin ze nik beti esaten nion berdina. Esaten dezuna hola da, oso oso polita da, baina hasiera oso oso gogorra. Eta denak eh? Eske ez da nere esperientzia bakarrik, karo nik ya Unaiekin laugarren berdian lan eginda neukan, eske pertsona guztietan ikusiet, a ber, batenbat agian libratzen da, baina esaten, oso oso polita da baina neretzako, lehenengo hilabetea pasa ondoren. Hortik aurrera dena oso oso polita. Oso oso gogorra da, eta oso zaila, bueno zaila ebai ze azkenean teknika bat da eta teknika hoi ikasi arte zu eta umeak.

Leire, aldiz, erditze aurreko klaseetara joan zen baina bere filosofia bestelakoa izan zen. Bere iritziz ez zen asko informatu gauzak ez planeatzeko. Gauzak planeatu eta gaizki atera daitezkeenez, honela frustrazioak ekidin nahi zituen. Edoskitze taldea bere herrian ez da sortu, eta horregatik pena du, bertara joateko gogoa bazuelako:

Pena horrekin geatu nintzan, ze jun nintzan eta emagina eta biok egon ginen bakarrik. Ondo ze neretzako bakarrik zeon bera, baina bai gustatuko litzaidake jun eta beste batzuekin egon eta komentatu, ni hau eta ni beste hau ez? Beste ama batzuen iritzia entzutea baita ere askotan balio zaizu.

Bai Ainhizek eta baita Arritxuk ere klase gutxi direla komentatzen dute hain zabala den gai batentzat, eta gizonen parte hartze eskasiak harritu egin zuen Arritxu, 14 emakume haurdunen bikotekideetatik, soilik 2 gizon joaten zirelako klaseetara. Bestalde, edoskitze taldeetan bizitako esperientzia oso positibotzat jotzen dute. Honela azaltzen du Ainhizek:

Juten nintzen ostiralero, a las clases de lactancia, iten zan ambulatorioan, iten zan goizeko 11 tan juten ginan ama batzuk eta erizaina hor dago, eta umea titian jartzea eta begiratzen dizu eta bakoitzak kontatzen ditu bere esperientziak, como un Alcohólicos Anónimos.

Hala ere, esan beharra dago elkarrizketatutako batzuek edoskitze taldeen beharra ikusi badute ere, Karmelek adibidez dio ez zaizkiola gustatzen, emakumeak esnea ematera mugatzen dituztela sentitzen duelako.

Ni ez naiz hori badira hori letxe ligue eta holako hori... ez. Ni ez, zerta, ba! Nik ez dut hori maite, ez zait, zeta hori esnearen titiarena, bularra maite badu ematen, ados, ahal baduzu eta. Baina letxe ligue da kasik hori, behar bat bezala sentitzen eta ama hortan baf, ni ez naiz... (...) Bestela ama bakarrik, ez naiz behi bat. (...) Haunditu behar da eta nere ustez, erraiten du ez du utzi nahi, baina ezez, da amaren arazo bat gehiago tikiarena baino. Ze tikiak azkenean zuk duzu hezitzen eta beraz zuk duzu ohituratzen eta zuk duzu... zuk erabakiz gero tikiak egiten du. Beraz ez, letxe ligue eta holako ez, ez.

Beste informazio iturri bat komunikabideak izan daitezkeela ikusirik, telebistan ematen den informazioa garrantzizkotzat jotzen du Naroak. Bere iritziz telebistak asko engainatzen du, eta hori jendearen komentarioetan nabaritzen da.

Hasi nintzenean prestatzen erditzea esaten nun, pero si esto no tiene nada ke ber kon, entzun dezun guztiarekin, telebistan ikusi dituzun erditzearekin (...) Ni goatzen naiz Marianek momentu batean matrona horrek esan zigun media erditzearena zela 27 ordu, karo nere bikotea zegon komo komo 27 ordu? Horrek esan nahi du daudela 40koak eta daudela 15ekoak, baina 15 edo 10koak baina gutxiagokoak ez daude. (...)Eta Goenkalen... (...) Joe Goenkale, izango da nahi deguna, baina sozialki jende pila batek ikusten du. (...) Lantzen dituzte gai pila bat hobeto edo okerrago baina lantzen dituzte. Eta ordun, dago neska bat gaztea, ez? o sea jo tio, landu, gaur egun, gehio horren inguruan gainera dagon teoria guztiarekin no se que, pa empezar no va a una klase prepato ni de peitx, o sea hori. Jarri zen erditzen bere bikotearen amarekin zegola etxean sofan, eta deitu zun ambulanzia bat eta etorri zenerako ambulanzia ya erditua zegon prakak jeitsi gabe, o sea... (...) eta nik benetan esaten dizut, gu prepartora goaz, eta (...) jendea zuk badakizu, dago jendea que vive en su mundo o sea, eta jende bat egia da bere ingurunean ez ditula haurrak eduki, edo familiarrak eduki dituztenak edo. Baina ni goatzen naiz aurreko batean 8. hilabetean emakume batek preparton galdetu zun: ¡a! ¿Pero te puedes duchar? O sea en plan... bai, ¿Te puedes duchar? ¿Y si rompes aguas? Eta bikoteak esaten zun: en fin, Qué llevas, 8 meses sin ducharte? (...) ta ordurarte seguro que no se habian planteau que se podían duchar... (...) eta orain duela bi aste o sea ginan pos hori laugarren edo bostgarren saioan eta erakutsi ziguten dilatazio gela eta paritorio eta ez dakit ze. Eta ordun dilatazio gelan eta esaten zun matronak imajinatu que ahí vais a estar una media de 8 horas, eta tipo baten erreakzioa zan como ¿Pero habrá tele ahí no? O sea eta ateatzen zaio con toda su naturalidad, ¿Por qué? Porque berak imajinatu du que en un sillón que hori, (...) eske telebistan beti da, rompe aguas, eta pin pan pun umea jaiotzen da ez?

Beste informazio iturri bat liburuak eta Interneta izan dira. Liburuaren artean honakoak aipatzen dituzte: Karmeleren kasuan bere amak bere haurdunaldian erabilitako liburu bat izan da ardatz, bertan topatu baititu zalantzen erantzun guztiak. Arritxu aldiz, interneten umearen

eboluzioaz informatu da haurdun zegoenean, eta liburu hauek irakurri ditu: “Duermete niño” Estivill Eduard-ena, “Un regalo para toda la vida” Carlos Gonzalezena, “Bésame mucho” Carlos Gonzalezena, eta besteren bat. Liburu hauetako batzuk kontrajarriak dira eta interesgarria egin zaio gai berdinen inguruko postura ezberdinez hausnartzea. Hauen berri anaiaren, koinataren eta emaginaren bidez izan du.

Amaberri feministen posizionamendua amatasun intentsiboaren gaian

Orokorrean elkarrizketatuek ama mota ezberdinak daudela esaten badute ere, gizarteko ereduaren deskripzio zehatzena Naroarena da. Naroak amatasun praktiken arabera emakume mota oso bereziak daudela azaltzen du:

Nik ikusten det dagola eredu bat ama eredu bihurtzen dena. Eta neri arriskutsua iruditzen zait. (...) ama ereduaren barruan ikusten ditut bi: bat planteatu ere egiten ez dutenak, hau da ama dira beraien funtzio ardua eta egin beharra da eta ez dute ezer kuestionatzen. Eta noski batzuk agian landu juxtua dakate eta besteek ez dakate ez aisialdirik ez beste nolako espaziorik, eta gero badago beste jende bat eduki duna bere espazioa, o sea pertsona bezela eta emakume bezela bere garapena eta bere egitekoak, eta guzti horren gainetik jartzen dula amatasuna. (...) Bestea izango zen ni saiatzen naizena garatzen eta argi eta garbi esaten dizut kriston buruhausteak sortzen dizkizu kriston gatazkak zure buruarekin kriston ariketak in behar dituzu, batzutan sinplifikatzen ikasten dezu baina o sea ez da errex (...) nik beti esaten det gauza da antolatzea eta erabakiak hartzea eta jakin berriro esaten det nere bizitza pila bat aldatu da eta gustatuko litzaidake gauza askoz gehiago egitea (...) O sea hori bat eta gero bi eh... beste arlo sozial edo militantzia proiektio guzti horri lotua ere. Lehenengo urtean egon nintzen nahiko geldi edo, (...) baina gero berrartzea eta hor berdinean ez, egiten det o sea lehenengo nere buruarekin ditut gatazkak baina sozialki ere ez direlako baliabideak jartzen amak militatu edo parte hartu ahal izateko. Ze jarraitzen degu berdinean, ze mutilak aitak izan daitezke eta ez dago inolako muga arazorik, ez ordutegiarekin ez ezerrekin baina hemen jarraitzen dute gauza gehienak arratsaldeko 7 terditatik 8tatik aurrera izaten (...) Eta gero hirugarren eredu badago nere ustez eta da bueno pues haur bat edukitzen dezu ez eta jende bati ez zaio bizitza aldatzen, o sea amatasun prespektiba hortatik. (...) ze berak jarraitzen du lan egiten, kirola egiten, bere espazioak edukitzen ez dakit ze, eta normalean haur horren zaintza beste pertsona batzuen eskutan uzten du.

Gainera azpimarratzen du nola bera kaletik dioanean eta haurrik gabe badoa, jendeak behin eta berriro galdetzen dion ea haurrak non utzi dituen, edota non “aparkatu” dituen. Horren aurrean bera ziur da bere bikotekidea kalean bakarrik ikusten dutenean, berari ez diotela galdetzen haurrak nun utzi dituen. Gizarteak oso barneratua dauka bere ustez ama uneoro ama dela, ez aldiz gizona aita.

Amatasun intentsiboaren kontzeptuari dagokionean, amaberri bakar batek ere ez zuen ezagutzen amatasun intentsiboaren kontzeptua. Baina behin definizioa entzun eta gero erreakzioak desberdinak izan ziren. Gehienek ez zuten errealitatearekin bateragarria ikusten, baina bi pertsonak aipatu zuten nahiz eta errealitatean halako amak ez ikusi sistemak halako jarretara bultzatzen dituela emakumeak, eta berau patriarkatuaren ondorio dela.

Batzuk, gaiaren harira, haurrekin denbora pasatzearen garrantzia azpimarratzen dute. Euren amatasun eredia gehiegi kuestionatu gabe, egunen arabera jokatu eta haiekin denbora pasatzea da euren taktika. Leirek begirale bezala jardun duenez urteetan zehar, bertan bizitako esperientziatik ateratako ondorioa du bere eredia.

Begirale moduan egon naiz denbora dextente orduan ikusi izan ditut ama batzuen jarrerak eta ohiturak eta horrelako gauzak eta ba ni... bai neukan buruan pos hori ni nere semearekin bai apuntatu dezakezula pos ludoteka batera edo udaleku batzutan baina ez zuk denbora libre eukitzeko baizik eta ba zure semea beste eredu batzuk ikasteko, eta beste haur batzuekin egoteko (...) Eta karo ni ya badituz ya ba oinarri batzuk ez, ordun ikasketa hoiekin, orduan ba badakit zer garrantzi daukan zuk zure semearekin egotea eta jolastea, ze balore erakutsi. (...) ez jostailu bat erosi eta hor utzi jostailuarekin baizik eta zu berarekin baita ere jolastu jostailuarekin eta berarekin jolastu.

Naroak aldiz, sistemak ezartzen duen ama ereduari kontra egiteko, bere eredia bilatzerako orduan lan asko egiten duela komentatzen du. Honek buruhaustea eragiten dizkio askotan, baina hala oso gustura sentitzen da praktikara daraman amatasunean.

Nik hor, amatasunaren inguruan neukan espektatiba zan o sea kriston bizipena izan behar zula eta izango zala, o sea neretzat kristona zan pentsatzea. Eta orain izan dela, ez, nola holako animala txiki bat hezten dezun ikasten dun, o sea erakusten diozun, ze aurrerapen ematen ditun eta abar, eta horrekin o sea... ikusita hori argi neukan denbora bat dedikatu behar zaiola. Zure bizitza aldatzen dela ez? Eta hainbat kontu... baina ere argi neukana zen o sea pertsona bezela, Naroa bezela, emakume bezela, nere bizitza egin behar nula, nahi nula eta interesgarria zela ere eredu hori garatzea, bai ordun bai haurdunaldian eta baita ere gero o sea beti landu deten gauza bat da. Bai ama naiz eta bai noski nahi det dedikatu denbora nere haurrari, nere bikoteari bezela, kasu honetan bikotea daukadala, baina nahi det dedikatu denbora bai nere lan munduari, bai nere aisialdi eremuari bai nere militantzia ereduari nere kasuan.

Bere ildoari jarraiki daukagu Karmeleren bizipena. Gaiaz hitz egiterakoan komentatzen du bere eredia gurasoak izan direla, eta hauek militanteak eta feministak direla. Hala ere, bera kontziente da sisteman gaudenaz, eta nahiz eta modelo horietatik kanpo bizi, sistemaren sarea nabari da zenbait gauzatan. Amatasun intentsiboaz diosku sistemak honetara bideratzen duela

emakumea, eta berari txikitatik etxean bizitako eredia askoz gehiago gustatzen zaio. Hala ere, hain barneratua dugunez gizartean, bere ustez honen inguruko kontzientzia gutxi dago, sistemak ondo erakusten digulako, barneratua dugula azken finean.

Hori eta gero eskatzen dena emazteari baina emazteak berak ere barruan sistemak hori inposatzen baitu emazteak berak egiten duena azkenean. Batzutan eskatu gabe edo, fa! Sistemak eskatuta baina inkontzinetekin ere egiten duguna. (...) Bai eta erraiten da ikusiko duzu haurra eukitzean, izaten da haurra zentrua, zure bizitza guztia. Noski aldatzen dela, eta beste bat zure beharra duena, beraz zu gabe ez du deus egiten baina...jum. (...) Nere ustez ainitzetan ba hori emaztea hortan mugitu nahi dugu, mugatu nahi dugu azkenean, emazte bat hor dela umeak egiteko eta umeak hor direlarik haietaz okupatzeko azkenean. Sistemak hori erraiten digu, baina noski ez dela, ez naizela ados. Emazte bat ez da ama bat bakarrik. Ama bat da baduelarik ume bat, baina ez da behartua gainera umeak eukitzea ere, ez badu nahi. Eta ama delarik emaztea da honaino. Eta gero egia da zaila dela hori egitea ere eh... nik ikusten dut hor lehen egunetan edo lehen astetan ez dakit zertan naizen, baina hori umea partez gauzak egiteko ba egitea zuretzat eta da... erokeri bat eh. Ba hori nik ez dut lortzen. Nik badakit gero oroitzen naiz lagun batek ukan zuen umea eta erran zuen, ikusiko duzu nik ez dut ezta lortzen dutxa hartzea eta ez dakit ze, eta ni hor naiz nik egunero nere dutxa hartzen dut, ni altxatzen naiz gosaltzen. Batzutan zaila da dena egitea eta ez dizu uzten eta batez ere dena hartzen baina pausatzen duzu bera hamakina, eta esplikatzen diozu eta negar batzuk egiten ditu baina zure dutxa hartzen duzu. Ez dakit bost minutu dira eta fite-fite egiten duzu ez duzu batere gozatzen baina bederen, erran nahi dut badira extremu batetik bestera ere, bo nere ustez hoberena da erraitea izaitea. Haurraren beharrei erantzun behar duzu noski ze zure beharra badu baina berak ere ikusi behar du ez dela fa, ulertu behar du ez dela bakarra eta, eta emazteak ba ama da baina emazte bat da ere, edo batez ere.

Gainera amatasun intentsiboa eta bularraren artean lotura nabaria ikusten du:

Noski haurra duzularik zuri, bortxaz janaria zu zirelarik bortxaz titia duzu zurekin beti ukaitea jartzen zaitu. Egia da hiru edo bi ordu hartzen duelarik ez duzu denbora ainitzik tartean gero zure gauzak egiteko, hori mugatzen du. Hortako batzutan mistoarena egitea ere, zen egiten ahal da biberioa ere eta bularra eta beraz, bai bai bai, noski, noski ez duela laguntzen ez zure momentua kokaitea.

Arrixuk, Karmelek bezala, bere etxean jasotakoa praktikara eramaten du. Honekin esaten du argi daukala ama batek ama izan behar duela, eta ez laguna. Amatasun intentsiboaren gaiari eutsiz, bere ustetan emakumeek joera dute praktikara eramateko, ez daki sistemak bultzatzen duelako edo instintiboa den. Lehenik bere amatasun ereduaz mintzo da:

Pentsatzen det zure amatasuna esperientzia ona izan badezu zure gurasoekin ba azkenean errepikatzen dezula zurekin izan dutena. Ni iruitzen zait ez naizela horren okerra atera, nere guraoen lana ez dala hain gaixki egon. (...) Nik argi daukatena da, ama gauza bat dela eta laguna beste bat eta adibidez filosofia hori nere ama nere lagun hoberena dela, nik

ez det guztiz sinisten horretan. Eta orduan nik uste det seme alabei markatu egin behar zaiela zenbait gauza. Autoritatea bai. Bai. Nere ustez presente egon behar dula. (...) igual jakin baino zer nahi deten, igual argiago daukazu zer ez dezun nahi.

Jarraian, aldiz, amatasun intentsiboaz:

Maila batean joera daukazu eh? (...) Bai eta ez dakit sistemak bultzatua edo instintiboa den. Baina nik argi daukat nei jartzen diate aukeran momentu horretan lenengo urtean eh, baina umearekin zaudela ikusten dezula oaindikan ez dela independientea eta hori, jartzen dizute aukeran bikotea edo umea eta ez dakat zalantzarik eh. Eta gero sistema nola dagoen garatua. Esan nahi det. Nik estatu espainolaz hitz egiten ari naiz. Baina Suedian, ematen dizute diru laguntzak eta amatasuna lantzeko urtebetez edo eta gero urtebete pasa eta gero eszedentzia jornada erdia eskatu dezakezu eta ama egon daiteke aita egon daiteken moduan. O sea bakoitzaren arabera, nik nere beharrei begira baina karo, hemengo gizartean saldu digute, saldu edo, aprobetxatu dira gu batez ere ezkerrekoak bultzatu deguna emakumearen integrazioa lanean eta nos la han vendido como patatas. Azkenean egin dutena da lehen pertsona bakar batekin lortzen genun ekonomia oain bi behartzea hortara. Ordun behartuta zaude bi pertsona lan egitera. Nik aukera izango banu eta Oinatz lanean egongo balitz nik eszedentzia hartuko nuke eta lenengo umearen bi urtean umearekin egongo nintzateke. Baina eszedentzia. Nik bi urtera nere bizitza berreskuratu nahi det. Baina ulertzen dedana bizitzaren etapa bat ez umeak ama behar duela eh? Amak umea behar du. Nere sentsazioa da. (...) Eta nik adibidez nere esperientziaren arabera aitaren aldetik ez det ikusi behar hori. (...) baina horrek ez du bultzatzen sistema hola izan behar denik, are gutxiago, nik parte aktibo izan nahi det bizitzan eta nik lana egin nahi det eta nik nere profesioa bultzatu nahi det, baina igual bai daudela, aukera izan dezagun, nahi duenak urtebete umearekin egon ba egon dadila.

Lanaldi murriztuen inguruko hausnarketak

Gurasotasuna gauzatzeko orduan berebiziko garrantzia dauka lanen banaketa amaberri feminista hauentzat. Azken finean ez dute sinisten eurak ama izateagatik haurrari dagozkion ardurak edo arduren gehiengoa bere eskuetan egon behar denik. Horretarako tresna baliagarria izan daitekeela iruditzen zaie bai eurak edo baita euren bikotekideak lanean lanaldi murriztua hartzeko aukera. Ainhizek kontatzen du nola emakumeak diren hala ere lanaldi murriztu hauek hartzen dituztenak gehienbat, hala da bere kasuan ere, eta hau lan banaketa ez proportzionalaren isla dela. Baina bere barnean kontraesana eragiten dio egoerak, berak ez baitu nahi lanaldi osoa izan eta bere bikoteak lanaldi murriztua hartzea, hurrekin egoteko behar handia baitu.

Hombre jeneralki azkenean jornada murrizketa hori emakumeak hartzen du, zeozerrengatik izango da. Nik hola ezta ere ez det, nere inguruan ez det ikusi... (...) baina normalki lehenengoa ama dela aita baino lehenoa, bai. Azkenean zergatik ez dute? Bueno, Iñakik ez dauka aukera, bueno aukera, ez dago ondo ikusia ere lantegian adibidez. Ze batek eskatu zun eta esan zioten, ba eman behar ziotela derrigorrez baina oso aurpegi txarrakin eta bai. (...) bai lantegi bat da eta gehienak mutilak dia eta ez... ordun ba bueno, baina gehienetan

nik ezagutzen ditudan gehienak, emakumeak ditugu hartuak jornada murrizketak.(...) Nik nahiago nun murrizketa ni hartu eta nik egon umeakin bera baino. Berak agian nahiko zun, baina nik ez. Ez da lan ez egiteagatik, ze ni lanea oso gustora juten naiz, eta gainera nahi det beraiekin egon. Batzuk, jo parkera, nei berdin zait, neri gustatzen zait. Normalen norbaitekin gehio elkartzen zera... bai, ordun nei gustatzen zait.

Bestalde, Naroak kontatzen du nola bere kasu konkretuan lanaldi murriztuak egunerokotasuna asko erraztuko liokeen, batez ere bigarren haurra izan dutenean. Bere bikotekideak, aitzitik, ez du eskaria egin nahi bere lankideei ez kalte egiteko, baina horren ordainetan Naroari eta etxeko antolaketari kalte egiten diola diosku. Enpresak berez ez du oztoporik jartzen eskaria egiteko, eta bien artean eztabaidak izan dituzte gaiaren inguruan. Adostasunik ez dute lortu oraindik, baina Naroaren printzipio parekideek Txemaren iritzia onartezina egiten diote.

Nik esaten diot eskatzeko enpresan redukzioa, ze eskatzen badezu redukzioa ordubetekoa aukeratu dezakezu turnoak ez dakit zenbat urte izan arte. Eta nik esaten diot hori egiteko, eta beti egitea goizez. Pero ez du nahio. Beak esaten du ke da putada bat bere lankideentzat. Kontua da beaiek bikoteka lan egiten dutela. (...) Berak esaten du dela lankideengatik, pero nik uste det aste horretan hobeto bizi dela... (...) Baina nik esaten diot lankideak ez dituzu joditzen baina ni joditzen nauzu. O sea en plan... eta ez dakit, badakit lortzeko que me tengo que poner burra; o sea lo tienes que hacer y punto. (...) Eta batekin o sea bale, gu moldatu gea, ni batekin beti esan det, neri bizitza aldatu zait baina gauza asko jarraitu det egiten. Birekin badakit hasieran (...). Pero nik uste horrek lagunduko zula pila bat, Txemak aldatzea.

Amaberri feministen amatasun kontzeptua eta edoskitzaroa

Edoskitzaroa, amatasuna bera bezala, modu ezberdinetan bizi izan dute elkarrizketatuek. Eta amatasun intentsiboaren eta edoskitzearen arteko loturarik baden galdetu eta gero, zenbaitek ezezkoa eman dute eta zenbaitek baiezkoa. Bi pertsonak aipatzen dute sistemak erakusten dizula zer den ama ona izatea, eta ama onari edoskitze naturala eskatzen zaio lehenago esan bezala. Leirek elkarrizketan azpimarratu zuen nahiz eta bere aukeraketa edoskitze naturala izan (bere ustetan onena eta naturalena zelako), edoskitze artifizialaren hautua egiten duen emakumea ez dela ama txarra.

Hala ere esan beharra dago, haurdun geratu aurretik, zenbaitek edoskitzaroaren inguruan ez zuten ia hausnarketarik egin, eta behin haurdun geratuta batzuen erabakia ondo sentituz gero aurrera jarraitzea izan da. Hori da Karmeleren kasua.

Bularraren buruan hor nintzen, ahal badut eta ttikiak hartzen badu eta ongi pasatzen bada baietz, eta ezin bada ezin da eta puntu. Nik nahi nuen baina ez nekien gustatuko zitzaidan

ia, zenta hori, beharbada hor zira eta ez zaude... edo posible izango zen, edo arazorik edo... (...) ongi..ongi pasatzen baduzu, ze beti bada ere kulpabilizazio hori amak ez badu nahi, ze batzuk ez dute nahi ere. Eman eta hori ez baduzu nahi, edo ez bazira ezta ere beste munduko ezer, egia da ttikiarendako erraiten dela amaren esnea hori, handitzeko eta hoberena dela bainan ez baduzu nahi edo ezin baduzu

Bestalde, Arritzuk garrantzia eman izan dio beti edoskitze prozesuari. Berarentzat edoskitze naturala amatasunari oso lotua baitago. Hori dela eta bere edoskitze prozesua modu zail batean bizi izan zuen, ez zuelako edoskitze naturala lortu eta ez zuelako edoskitze artifiziala nahi.

Nik probatu nahi nun, beti iruitzen zitzaitezela politena zala ez?(...) iruitzen zait amatasuna eta edoskitzea neretzako lotuak dijoazte. Eta azkenean neretzako da zilborrestea bezela. Eta oso argi neukan bestetik dela naturalena.(...) lenagotik entzunda neukan ez zela errexa, baina ez zitzaitez iruitzen hain zaila izango zela.

Edoskitzaroko balorazio orokorra

Elkarrizketatutako emakumeei euren edoskitzaroko bizipenak kontatzeaz gain, denboraldi horretako balorazio orokor bat egiteko eskatu nien. Balorazio positiboa egiten zutenen artean ditugu Leire eta Ainhize. Azken honek elkarrizketan behin eta berriz esandakoa azpimarratzen zuen, hasiera gogorra dela, baina behin fase hori gaindituta oso garai polita dela. Bereziki gustatzen zaio haurrekin sortutako harremana eta loturak, eta honetaz gain edoskitze naturalaren erosotasuna azpimarratzen du.

Azken ideia honi jarraiki, Karmelek gauetako erosotasuna azpimarratzen du, gauean biberioak prestatu behar izateari neketsua baiteritzo. Aurrekoek bezala haurrarekin sortutako harremana eta goxotasuna gustukoa izan du baina, hala ere, zenbait alderdi txar badituela ere esaten du. Adibidez haurdun gelditu aurretiko bizimodua ezin berreskuratzea, izan erabili beharreko arropa motagatik, izan norberarentzako denbora ez izateagatik. Eta hasierako beldur eta ziurgabetasun horietan, bularraren bidez haurrak zenbat esne hartzen duen ez jakitea alde txar bezala ikusten du Karmelek. Ideia hauen aurrean, edoskitze artifizialari ere bere alde on eta txarrak ikusten dizkio. Haurrari biberioa jende gehiagok eman diezaioke, beraz lana banatzeko tresna izan daiteke. Norberarentzat denbora berreskuratu daiteke eta hau beharrezkotzat jotzen du, jarraian ikusten den bezalaxe:

Maiatzean joan nintzen depilatzerara. Ez dut denbora hartu ni egiteko gauza aski egiteko eta ya uda zen eta nahi banuen zerbait eraman galtzak aparte, eta beraz joan nintzen nere amak pronatu zuen silletan siestaren ordua zen justu eta hiru orduz ibili zen eta ez zen honaino egon ni gabe. Orain egoiten da piskat gehiago besteen besotan eta ni gabe, piskat

eh... kakots artean. Baina hor zen ,momentua non ezin, ni gabe , eta hor konturatu nintzen nere lehen hiru ordu laurdenak neretzat, bera gabe. Eta bai, bitxi egiten zen. Egon nintzen, jo, lehen aldia da hiru hilabetez hartzen dudala neretzat denbora eta bai, aurrerantzean ikusi behar dut nola antolatzen naizen baina antxeman behar dut nola.(...) nik badut lagun bat etorri zen nerekin ni joan nintzen hamar egunez bisitak egitera (...) Eta berak baditu bi ume 7 eta 4 urtekoak, eta (...) lehen aldikoz pasako zituen 2 edo 3 gau beraiek gabe. Eta etorri zen eta pozik egon zen ze lehen egunean akidurarekin eta gaizki. Lehen goiza bizpairu orduz edo gaizki, eta gero ongi, eta erran zidan ze lasaitasun eta estresik gabe eta. Eta kontent zen, ikusiz posible zela eta ongi pasa zuela eta gustora. Ez pentsatzea hau egin behar, bestea... bainan eta nik badakit ez dut itxoin behar 7 urte.

Lan banaketa horren garrantziari begira, Naroak bigarren haurrarekin bizitzen ari dena ikusita, bere ideiak indartu ditu edoskitze artifizialaren hautuan. Orokorrean alde onak ikusten dizkio, eta alde txarrak ez zaizkio hainbesterakoak iruditzen.

Bai ba eske pixkat hor indartzen det esaten nuna, askatasuna ematen dizu, eman ahal diozu zuk nahi dezun guztia kantidadez, ikustezu zenbat dan, edozein tokitan montatzen dezu, egia da garbiketarena zaindu behar da pila bat (...) Eta urrekoan esan nizun diruarena, eta da pasada bat igo da gainera esnearen prezioa. Farmaziakoak ere izututa, aste batean igo zan lau euro, eta punto sistema bat jarri dute, eta laugarren botea dohainik ateratzen da, azkenean antzeko. Bote bat astean gastatzen degu, baina bueno, baina ondo. Eramaten degu. Eske nik abantailak ikusten dizkiot biberioari. Jarrantzet esaten pentsatzen detela oberena berez naturalena zure esnea dela, pentsatzen det. Pero vivimos en el siglo XXI, emakumeak gera eta eskubideak ditugu, eta batez ere emakumeak. Pertsonak gera emakumeak.

Azkenik, azken adierazpen hauei kontra eginez edo, Arritxuren kasua dugu. Bere hasierako erabakia edoskitze naturala izanik, hau oso modu traumatikoan bizi izan zuela diosku, eta azpimarratzen du oso gogorra eta esklaboa dela. Baina hala ere, edoskitze artifizialari ez dizkio abantailak ikusten. Berak gauzatutakoa hau izanda ere, behartua bizi izan zuen biberioa ematea, eta berak eginiko akatsen ondorio zela sentitzen zuenez, erruduntasun sentimendu itzelarekin bizi izan zuen garai hau.

Aitaren parte hartzea edoskitze erabakian

Egoerak desberdinak izan badira ere, behin eta berriro errepikatzen dute amaberriek edoskitze erabakia eurek hartua izan dela. Nahiz eta aiten iritzia entzun, eta euren animoak jaso, emakumeek argi erakusten dute edoskitze hautua haiena dela, gorputza euren delako eta azken finean beraiek egin beharreko lana delako. Hala azaltzen du Ainhizek.

Ez, baina ezta ez nion galdetu zuri ze iruitzen, ze azkenean hori nere gauza da, eta hola hitz egiten eta saiatuko naiz. Baina bueno gero arazoakin eta. Ze bueno Idoia hasieran Idoiak

ez zun pisua hartzen (...) eta esan zidaten, lasai. Eta hor bai komentatu niola jo ba ez dakit eh... agian utzi beharko det titia eh, eta hor berak bai animatu nindula, benga saiatu jarraitzen. Eta hasieran haurdun nengola, nik esaten nion saiatuko nintzela, eta ez dakit erizainak gealako edo ze, ze bakizu gauzak daudela onak umeantzako eta zuretzako, azkenean, que si cancer de mama, que si no se que... ta berari ez nion galdetu, aber nik uste esan niola ni saiatuko naiz. Azkenean nere aukera da. A ver, umea biena izangoa, baina titia nik eman behar diot ordun... ni oso argi nekan.

Aldiz Ainhizek komentatzen du nahiz eta bere bikotearengandik ez izan, bere amaginarrebaren aldetik bai jaso zuela edoskitze naturala uzteko presioa. Edoskitze naturala uzteko presioa norengandik sentitu zuen galdetuta, honela erantzun zuen:

(...) amaginarrebak. 14 egunetan mantendu egin zan ez zun pisua hartzen, horregatik esan zidan (Iñakik) nekan kriston egoera (titi puztuak) eta esan zidaten jarraitu. Eta kao etortzen zan egunero Iñakin ama; -¿Qué tal el peso de la niña? -ba ez du hartu. -Pues txika dale un biberon ya. Eta nik ba ez, (...) kriston mina, titiak bete beteak, mina, gauetan bustita, eta gainea Idoiak gauean lo pillá iten zun eta gainea esnatzen, kriston... ez? Eta gainea presioa bai, eta bueno nere amak ez dakit ze esan zidan baina gutxio. Baina Iñakiren ama askotan.

Aipatzen duten beste jarrera bat erabakiak delegatzean datza. Hau da Arritxuk kontatzen duena, Oinatzek bere erabakia errespetatu du uneoro, eta berari utzi dio erabakiak hartzen.

Eske Oinatz horretan santu bat da. Nola da hori... vosotras decidis...? Oinatzek nik esaten detena...(...) Berak onartu du eta gainera Jaioneren esperientzia ikusita, onartu du bai daukagula emakumeek amaren sena hori. Eta orduan horregatik esan dizut asko delegatzen dutela pentsatuz guk jakingo degula, baina egia da nahiz eta ez jakin, agian, ez det esango beti, baina hobeto egingo degula, badakazulako beste historia hori ez? Ni goatzen naiz hemen pasilloan negar batian, eta karo lehenbiziko egunak hain traumatikoak izan zian guretzako bularraren kontuarekin (...) eta karo, negarra=gosea, ordun Oinatzek prestatu zun biberioia eta biberioia ematera. Eta hau nahiko zikina izan da betidanik eta esnea dena botatzen zun, ez zun hartzen eta Oinatz insistitzen, jan hemen dakazula eta umea negarrez kristo bat... baina egunekin eh... eta hor ya bikotearen mobidak hasten dia. Porque karo, ni oso posesiba izan naiz eh, nik nere burua ikusten det como una perra en celo. Baina karo gauza bat da zu natura dena edo, zure instintoa, hor ateratzen zaizu zure instintoa ez? Eta bizi geanez hiri zibilizatu batean in behar dezu borrokatu zure moralidadea eta instintoarekin eta ordun entzuten nunean umea negarrez, esaten nun, aber Arritxu lasai, bera ere aita da, eskubidea du, eta utziozu. Eta ba ez dakit aguantatu nun minutu erdi bat eta agertu nintzen hortik eta en plan de laguntza behar dezu? Eta eske ez det... esan nion Oinatz lasai, nik hartukoet txanda, eta ni nekatzen naizenean hartukoezu eta txandaka eta. Eta hartu nun umia eta hasi nintzan, zenta ikusten nun ez zula hartzen eta biberioia utzi nun eta hasi nintzan berekin pasilloan bueltaka eta pixkat abesten eta lo gelditu zan bost minutura edo hola, eta Oinatz etorri zen eta lo gelditu da? Eta bai... eta gelditu zan ola bajoiak, iruitu zitzaitez bajoiak, eta esan nion Oinatz ze pasatzen da? Eta esan zian joe, egia da zuek beste sen bat dakazuela eh.. ze nei ez zitzaitez okurrituko logurea zekala eta horregatik zegola negarrez. (...) Eta ordun ba Oinatzek ez dit ezer eztabaidatzen.

Bestalde Leirek bularra ematea erabaki bazuen ere, aitzak bere tokia hartzearen zailtasunaz kontziente, aitari masajeak ematearen ardura egotzi diote. Atxikimendua lantzeari garrantzia ematen diotenez, hori masajeekin egiten dute, ez elikadurarekin. Aiten tokia hartzearen gaiari jarraiki, Naroaren egoera dugu, elkarren artean kudeatzen dute biberioia ematea. Eta bere bikoteak edoskitze artifiziala defendatzen du.

Berak argi dauka es un defensor. Dentro de que beraiek bere lekua hartu, biberioiak laguntzen du beren lekua hartzen eta bere funtzioa.(...)De hecho gauak hasierako asteetan berak egiten ditu, oain ya egiten dugu gauaren arabera, bai pixkat sobre la martxa.

Azkenik, egoera berezi bat medio, Karmeleren kasua dugu. Bere bikoteak Karmele ondo egonez gero aurrera egiteko animatu du, sostengatu eta zaindu. Bera espetxean egonik egoera berezia bizi dutela kontziente da eta horregatik Karmelek euren lotura zaindu nahi du, horregatik edoskitze mistoa tresna bezala ikusten du. Aita egunero etxean balego gauzak antolatzeko beste modu bat ere egon daitekeela dio, adibidez gaueko hartualdiekin laguntzeko. Jonek laguntzeko baliabide gutxi izanda ere, bisitetan moldatu da Karmele animatu eta mimatzeko.

Berak ahal duena egiten du azkenean, bainan ongi. Gainez hor da, hamar egunez hor nintzelarik berak ateratzen zidan janaria, bo gordeka, ze nik ez nuen denborik deuse, ze hemen erosi nituen bakizu supermerkatuan jateko prestatuak diren ta berotzeko mikroondasean, eta dira kakamierda batzuk eta Jonek ateratzen zidan jatekoa.(...) arroz integrala eta pizzak eta holakoak...bueno ahal duena egiten du. Eta bisitetan ni lo eta bera ttikiarekin eta...

Haurrak hiru hilabete izaterakoan Jonek Karmeleri espetxera biberioia eramateko eskatu zion, Frantziako espetxetik Espainiara eraman behar zutela ikusita, eta elkarrekin berriro noiz egoteko aukera izango zuten ez zekitenez, berak ere elikatu nahi zuelako. Karmelek baiezkoa esan zion eta espetxera biberioia eraman zuen.

Ongi pozik zen, esaten zuen biberioiarekin ongi zela. Bai, beste zerbait eta. Poz pozik.

Ekofeminismoaz hausnartzen

Elkarrizketa batean, Karmelerenean hain zuzen ere, ekofeminismoaren gaia atera zen, emakume-ama-natura hirukoteaz mintzo ginelarik. Bere hausnarketa interesgarria iruditu zitzaidan, marko teorikoan aipatutako ekofeminismoaren ideiei kontra egiten zielako berak.

Bai baina azkenean ez dut uste feminismoa denik, zenta berriz kokatzen duzu ama etxean haurrarekin kokatua eta funtzio bakar batekin. Eta da berdin lagun batzuk erran zidaten: satarrak (painalak) nola nahi duzu? hori ekologikoak garbitzen direnak? Eta erran nun: ez ez ez. Ya zenta hor kokatzen duzu justuki izan zen, ados, ekologikoki ez da batere batere

ona, baina hori emazteandako satar botatzen diren satarrak sortu zirelarik edo egin zirelarik izan zen amarendako kriston askatasuna. zenta ez zira behartua jadanik kriston makinak (garbigailua) egiten dituzula ze garbitu egunero hiru aldiz aldatu behar duzula eta ez dakit ze, eta gainera satarrak garbitu behar baduzu edo. Ze berez hori amak egiten du, emazteak du egin behar ze bera da etxean eta bera da... eta nik erran nien ez ez, nik satarrak botatzen direnak eginen dut ze hortara kondenatu, hortik ez zira ateratzen, eta hori... ola, beraz hori ekologiarri egiten duzu momentu batean tak (begia estali) ez duzu begiratzen.

Amaberriek eskaintzen dituzten aholkuak

Elkarrizketen amaieran amaberriei etorkizuneko amaberriei aholku bat helarazteko aukera eman nien. Denek parte hartu zuten honetan, eta erantzunak oso ezberdinak izan ziren, bakoitzak garrantzia gauza ezberdin bati eman zion. Jarraian datoz zerrendatuak.

Lehena Naroarena:

Nik emango niokena edozein pertsonari haurdun geratu dela edo geratu baino lehen ere, dagola informazio pila bat eta aprobetxatzeko eta informatzeko (...). Prozesua, dauden aukerak ez dakit ze, o sea uste det dela super inportante, eta iruditzen zait oaindikan jendea iristen dela jakin gabe, eta hor hasten da haurrarekin, haurdunaldian ere, baina hor hasten da nere ustez pertsona bat bere buruarekin ondo egotearen istoria. Eta ama eta aita, edo ama-ama aita-aita, harreman hori haurrarekiko. Ordun o sea informatzea, eta hortik aurrera noski, dagon informazio guztia erabiltzea, eta hortik aurrera bakoitzak bere erabaki propioak hartzea baina bizitzako beste eremuetan bezela. Eta hori, askotan gauzak askoz errexagoak direla, hori sentido comun ateratzen da askotan. Eta gero ez daude ondo edo gaizki, da bakoitzak egiten du ahal duna ahal dun ondoen, eta berdin berdin maite du bere haurra eta haurrak maite du bera, ama edo bere aita. Zuk haur bati kalte haundia egiteko egin behar diozu zerbait oso iraunkorki eta oso era gaiztoan eta hori ez da gertatzen.

Bigarrenik Arritxurena:

Lenengo galdetu ingo nuke zer nahi dun berak. (...) Baina lenengo gauza esaten dietena argazkia, tipika argazki edoskitzearena amatxo ola eta umia eta gezurra dala. Hori esan behar diot.(...) Ez sinisteko jendeak esaten duna, gezurra pila bat esaten diala edo gauza asko ez diala esaten. eta benetan horrek ez dula batere laguntzen ze azkenean sentitzen zera zu zerala gaizki egiten ari zean bakarra. Eta gerora enteratze zera hau hori ura, eta jakin izan bazenu, ba agian ez zinake hain errudun sentituko.-Errudun sentitu izan zera ez?-Errudun? Bai gauzak gaizki egin izanarena, bai, bai. (...) inguratzeo berak entzun nahi duena esango duten jendeen artian. Eta adibidez biberioa eman nahi dezula eta, ba bueno biberioa ematen dun jenden artian ibiltzeko. Bularra eman nahi dezula, ba bularra ematen duten jendeen artean ibiltzeko. Laguntza jasoko dute bin aldetatik eta gainea ildo berdinetik jungo dia eta sentituko zea eroso. (...) Eta bai gomendatuko nukela ba hori masajeen kusotara jutea, edoskitzearen kursoetara jutea. Nahiz eta biberioa eman eh, ze biberioa hobeto zure erabakia izan bada. Ze azkenean holako tertuliak ateratzen dira beste

gauzak, ez edoskitzearena, nereak kolikoa dauzka, biberoia eman edo bularra eman. Ba hara ba nik egiten det hau, nik, gero zuk jakin behar dezu filtroak egiten eh, edo osteopata batengana doa edo ez dakit ze,e do homeopatia. Nik ikusten ditut taldeak Alcohólicos Anónimos antzekoak? Bai eta da pixkat azkenean gremioko jendea egoera antzekoa bizitzen ai zeana, laguntzen dizu, ulertua sentitzen zean leku batean.

Hirugarrena Karmelerena:

Nik ez dakit aholkurik emango nioken. Ze bakoitzak bizitzen duguna desberdina da, egia da, eta haur bakoitza desberdina da, bakoitza desberdina da, eta orokortasunak egitea piskat... gauza batzutan agian egiten ahal dugu baina... adibidez erraitea pisa eta kaka egiten duelarik erraitea ondo dela, nik orrekin hastapenean ya...

Jarraian Leirerena:

Bere burua nahiko irekia eukitzea. Eta ez sartzea inungo espektatibarik ez ezer, ze ez dakizu inoiz nola jungo zaizkigun gauzak, edo nola izango dian gauzak. Bai se eske bestela... zure buruan gauzak esaten dituzu eta gero ez dia nahi bezela ateatzen, orduan hor etortzen dia frustrazioak eta desesperazioak, eta guzti hoiak, eta pixka bat irekia bazaude, eta gauzak etortzen dian bezela eramaten badituzu, pos nik uste errexago eramango diala gauzak, eta lasaitasuna eta pazientzia.

Azkenik, Ainhizerena:

Hasieran pazientzia eukitzea, ze zaila da, baina ikasten da. Bai oso inportantea, ze nahi degu umea azkar ikastea, esaten digutena, hasieran esaten dizute nabaritu behar dezu nola hustutzen dizun, ba ez barkatu hori hasieran ez da nabaritzen(...) Eta bai pazientzia, ze bakizu mina ematen dula eta, baina hori dena pasatzen denian eta ondo juten danian hori dena ahazten zaizu.

b. Osasun langileen elkarrizketen analisisa

Garai bateko edoskitzaroko usteak. Atzera begirada bat

Eztabaida taldeari dagokionez, atzera begira hasi ginen elkarrizketan. Lanean hasi aurreko garaiak oroitzuz, denek esan zuten edoskitzaroa prozesu eta praktika bezala sinpleagoa zela uste zutela, ez zuten uste hain zaila izango zenik. Esperientziak erakutsi die mundu zabal bat dela. Atzera begirada bat eginik Milak bere haurrekin edukitako esperientzia kontatzen du, eta bere ustetan generazioen artean salto nabari bat egon da. Hasiera batean biberoia izan zen sustatzen zena eta jarraian titia ematea, honen eraginez generazio ezberdinek informazio ezberdina jaso dute eta ez dago adostasun bat. Gaur egun erreferentzia falta izugarria dagoela azpimarratzen dute hiruek. Jarraian Milaren hitzak:

Nik etxean badakit gure etxean titia ikusiet. Nei ez zitzaian...nik umea hartu nun eta nik titian jarri nun o sea eske (...) aber nik gauen izan nittun eta ekarri zizkiaten hurrengo goizean, eta nik o sea ezer esan gabe, hartu nun umea eta titian jarri, eta ya eske...izan zen hain naturala, baño badakit jende batzuk arazoa izan duenak eta nola batzuk biberoia eman

duen, lehen esaten zuen fabrikako eskulana behar zenen eta esne artifizialak hasi zianen esaten zien txarra zala, esnea artifiziala hobea zala amana baino eta ordun asko atzeatu in zien eta titia ematei utzi in zien. Eta hor dao tarte bat, generazion titia eman ez duenak, eta ikusi ez duenak eta ordun hola jartzen die (keinua egiten du etzanda balego bezala eta besok zabalik) buruz gora edo lagundu in ber diazu, edo jarri in ber diazu, porke ez due ikusi, ez daukea inor erreferentzi bezela ikusteko nola...

Maiderek hau zioen laneko lehen egunez:

Nik ezin nun baloratu guzti hori hasiera baten ze nik ere ez nekin guzti hori eztare. Ni hasi nintzanen, lehenengo egunen esaten zuten jun begirutzen ea umeek ondo hartzen duten titia. Ni jun nintzan geletatik eta zemuz hartzen dizu titia, eta ondo, eta ikusten nun umea titian eta sin mas, ondo. Eta zemuz, ondo, umeak titian zeuden eta sin mas, eta gero juten zeanian ikusten eta joe, honek ez dit hartzen, eta pixkana-pixkana juten zeanean hartzen, (...) ikasten ba hasten zera ikusten ba diferentzia guzti hoiek, dakitenak ez dakitenak, espektatiba batzukin datozenak, beste espektatiba batzukin datozenak ta orduan hor hasten zera pixka bat bereizten ba kasu ezberdinak. Eta bueno gero gelditzen zera pixkat bat harrituta ze bueno esaten dezu ez nun pentsatzen ez. Hasiera batean esan ziguten bai kurtso bat egingo dezue ikasteko, formakuntza 5 egun.. eta ni, puff 5 egun! (parreak) eta gero lanean zaude, bai bai eta gehio...

Osasun profesionalak jasotako ikasketei dagokienez, unibertsitatean nahiz oposaketetan edoskitzaroaren atala ez zegoela komentatzen dute, soilik patologiarara bideratzen dela profesionalen formakuntza, ez bada edoskitzeko kurtso espezifikoak egiten dituzula.

Edoskitzaroko erizain erreferenteak, Carmenek, atzera begira kontatzen du lehen bularreko esneaz ez zekiela asko zientzialari munduak. Hauek edoskitze naturala jaisten ari zela ikusi zutenean, Ameriketako Estatu Batuetan, honen sustapenari ekin zitzaion, eta hala sortu zen *Esnearen Liga* erakundea. Bere hitzetan Pelargoiak¹² bizitza asko salbatu zituen baina edoskitze naturala suntsitu zuen.

Pelargón. Claro hasta entonces las madres se veían obligadas a hacer un esfuerzo tremendo, ¿Por qué? Porque la mortalidad infantil era tremenda, porque muchos niños se morían por no poder mamar, por leches artificiales, porque empezaban a meterles leches de vaca, porque no existía el Pelargón. Pues es verdad que el Pelargón, pues salvó muchas vidas probablemente, porque muchos pudieron ser mejor alimentados, pero empezó a acabar con la leche materna. Porque, claro, además los que lo vendían se encargaron bien de promocionarlo y decir “ha salido una leche que los bebés la toleran genial”. Se pusieron todos gordísimos y entonces, claro, lo de gordísimo era sinónimo de salud. Entonces empezaron a pensar que el niño de lactancia materna “¡oh! Tu hijo pues sí mama, pero mira que qué delgadito, este otro se ha puesto rollizo, se le han puesto unos muslos así”. Y entonces todo el mundo ¡hala al Pelargón!, y haciendo un esfuerzo tremendo de..., pues me paso al Pelargón aunque me cueste dinero ¿no?. Entonces, esa fue

12 Espainiako guda zibilaren ondoren sortutako lehen haurren esne artifiziala.

la pena de aquel tiempo. Entonces ahí se dieron cuenta de “¡anda!, aquí ha aparecido esta leche y las madres están dejando de dar el pecho” y entonces dijeron “bueno vamos aquí a..,” pues eso, en EEUU se formó la Liga de la Leche, gente interesada en que la lactancia no desapareciese. Y bueno, yo creo que gracias a eso hemos ido tirando.

Gaur egun, aldiz, egoera bestelakoa da: ikerketa gehiago egiten dira eta mezu bat zabaltzen da; ama eta umeen osasunean inbertitzen ari da osasun mundua, hau da, edoskitze naturala sustatzean osasunean inbertitzen da. Carmenen hitzetan hala definitzen da edoskitze naturala:

Cuando tú das de mamar estás invirtiendo en salud, o sea, que probablemente la salud de tu hijo sea mejor por tu leche, que tiene muchas ventajas y que es beneficiosa, no solamente para el bebe, también para la madre. El dar de mamar parece ser que hace que las madres tengan menos cáncer de mama y menos cáncer de ovario, que está aumentando muchísimo ¿no? (...) le puedes dar en cualquier momento, es comodísimo, es barato, es bueno. Si que es verdad que a veces exige esfuerzo, pero el dar de mamar, aparte de alimentar a tu hijo, es dar muchas cosas, es la cantidad de tiempo que te pasas con él teniéndole a tu lado, mirándolo, mirándolo como come. Esas sonrisas que te empieza a echar, el como se te agarra, el como te toca, el contacto que tienes, lo importante que ese contacto es para tu bebe. (...) eso verdaderamente es un acto de mucha generosidad por parte de la madre.

Osasun profesionalak eta edoskitzaroaren sustapena

Bai eztabaida taldean eta baita Carmenekin elkarrizketan ere, profesionalen artean berezitasunak daudela esaten dute. Honek bat egiten du zenbait amaberrik elkarrizketetan esandakoarekin. Beraien aburuz pediatrik haurraren atentzioa jartzen dute, eta orokorrean umea pisua irabazten badoa dena ondo doan seinale da. Ginekologoez diote ez dakitela edoskitzaroaz gehiegi, eta emaginak edoskitzaroaren aldeko muturreko jarrera dutela. Erizainen eta erizain laguntzaileen aldetik jarrera irekiagoa dela komentatzen dute, iritzi ezberdinak daudela baina orokorrean emakumearen erabakia sustatzera jotzen dela:

- Mainer: *Animatzen degula baina ez degula inor behartzen, o sea, animatzen degula eta gañea saiatzen geala irtenbideak erakusten. Bai ez dela bat edo bestea, titia edo biberioia. Ez. O sea nik uste beti aurrean jartzen dana da amak nahi duena, horren inguruan ba ya juten zea ikusten, eta bere dudak eta posibilitatea pixkat neurtzen daukagun denbora gutxikin. Momentuan baita pertsona ez dagola bere momentu onenean gauzak egiteko.*
- Amaia: *Pixkat etortzen diela engainatuta. Dana ondo,*
- Mainer: *idealizatua*
- Mila: *dena ondo, dena politte... hola etortzen die, eta gero etortzen die: eta hau zer da?*
- Mainer: *Hemen azkenian da pixkat pufff...*
- Amaia: *errealitatea jeistea. Ze etortzen dia dana idealizatuta eta dena, eta partua ebai*

- Mila: *dena-dena-dena.*

Amaberriek elkarrizketetan aipatu bezala, edoskitzaroaren ideia distortsionatua dutela esaten digute osasun profesionalek. Hau osasun zentroetako erditze aurreko klaseetatik datorrela diote, eta ez dute uste honek emakumeari onura egiten dionik. Haiek emakumearen iritzia eta erabakia sustatzeari garrantzia ematen diote, behartutako edoskitzea ondorio txarrez betea ikusten dutelako.

- Mainer: *Bai baina laktantzi bat forzatua*
- Amaia: *bai hori da*
- Mila: *desastre.*
- Mainer: *Azkenean laktantziak behar du elkarkidetza bat.*
- Amaia: *Bea gustoa egotea.*
- Mainer: *Eta gustoa egitea. Eta laktantziak ekartzen ditun gauza onenatariko bat o sea da, erlazio hori, eta hori ez badakazu zu minez baldin bazaude eta bildurrez umea jartzeko titian mina emango dizulako edo ez dizulako hartzen edo ez dakit zer.*
- Mila: *Zuk eon behar dezu ondo eta gustoa.*
- Mainer: *Eta behartua sentitzeko ez dezulako nahi baina zure senarrak bai, zure familiak baitituzte hoi da.*
- Amaia: *Ba azkenean psikologikoki, zu ez zaude lasai, ez zaude eroso, umeari urduritasun eta ezinegon hori transmititzen diozu eta hori ez da ona ezta ez.*

Azkenik, elkarlanaren garrantzia azpimarratzen dute, batez ere amaberriei informazioa emateko garaian denak bide beretik joateak duen garrantzia. Bestela hauek informazio nahastu asko jasotzen dutela diote. Honetarako lankideen arteko kohesioa¹³ eta koordinazioa sustatu beharko litzatekeela uste dute. Carmenek denek hizkuntza bera hitz egitearen garrantzia azpimarratzen du, emakumeek askotan hizketaldi batekin lasaitua hartzen dutelako, eta honetarako formakuntzaren garrantzia azpimarratzen du.

Osakidetza eta edoskitzaroaren sustapena

Osakidetzak sustatzen duenari dagokionez, argi ikusten dute teorikoki edoskitze naturala dela sustatzen duena, baina gaur egun plantan egiten diren kontrol neurriekin (azukre kontrolak, pisu galeren kontrolak...) edoskitze artifiziala ere sustatzen dutela iruditzen zaie. Izan ere beldurraren aurrean emakume askok esne artifiziala edo mistoa ematen bukatzen dute. Euren iritziz adostasun falta bat dago.

¹³ Lankideen kohesioaz mintzatzerakoan lehen arreta maila (Osasun zentroak) eta hirugarren arreta mailaren (Ospitaleak) arteko kohesioaz ari dira. Baita ospitalean bertan gremio ezberdinetako pertsonen artekoaz: Erizain, erizain laguntzaile, emagin, sendagile eta abarren artekoaz.

- Mila: *Seitun esaten zaio, kontuz, pixu asko ai da galtzen, kontuz ikeatu iteue. Ama asko ikeatu iteitue. Nik nere amai galdetzen nion, zuek ze ite zenuen esnea etorri bitarten. A, ahal genduna, ura azukrekin ematen zuela, eta aurea.*
- Maider: *Beste batzuk ogia arduakin.*
- Mila: *Beste batzuk mantzanilla, edo zeoze in arik eta esnea etorri arte. Ordun ez zan ezer pasatzen.*
- Amaia: *Baño ematen zioten zerbait kalostrotik aparte. O sea laktantzi materno eskusiboa leno re ez zan iten, iten zan titia eta gero aparte ura auzkriakin edo... papilla oi, hirinakin edo, izen bat daka horrek (...) ez dakit nola dan, baina bueno en fin beti ematen zitzaiola zerbait zure kalostruan aparte edo beti zenekan famili arteko bat titia ematen ai zana beste ume bati eta hari pasatzen zenion. Laktantzi materno eskusiboa bastante berria da.*
- Mila: *Baño hemen etortzen die eta segitun esaten die, pixua galtzen du eta, ai asko galdu du eh... etortzen die eta bi ordun ezer hartu gabe eta aix, suplementoa emango diot, eske ezin da hola euki.*
- Maider: *eske nik pentsatset dagola kontrobersia pixka bat ofizialki ez, sustatu behar du edoskitzea, baina bueno, egia da ez dala asko nabaritzen, ze kartelenbat dago de nola eman titia ondo eta nola heltzen dizun ondo edo gaizki, baina bueno, ez dago propaganda handirik, eta baita profesionalen artean ere badago denetarik, eta gero nik batez ere ikusten detena da ez dagola adoskidetasun bat. Ta nik uste hor dagola arazo inportante bat ze ez dakizu batzutan nola jokatu.*
- Amaia: *Ze dakate informazio kontradiktorioy pillo bat.*

Bestalde, Osakidetzak edoskitzaroko erizain erreferentearen lanpostua sortu zuen. Horretan dihardu Carmenek, eta enpresak berari zer eskatzen dion galderari, hala erantzuten dio: amak laguntzea, pertsonala formatzea, edoskitze naturala sustatzea. Hau dena uneoro emakumearen erabakia errespetatuz. Carmenek azpimarratzen du edoskitze naturala sustatzerako garaian berebiziko garrantzia duela entusiasmoak, baina betiere errealista izanda. Izan ere, emakumeei osasun zentroetan ematen zaizkien jarraibideek haiei on egiten ez dietela uste baitu, errealistak ez direlako. Hala ere, ospitaleak edoskitze naturala sustatzeko erizain erreferentea soilik aste barruan eta goizeko txandan jartzeak baliabide eskasa dela deritzo, aurpegia garbitzeko egiten dutela, baina benetan gaian gutxi inplikatzeko direla.

Amaberriak eta haien ardurak

Eztabaida taldean argi dute amaberriei informazio kontraesankor asko iristen zaiela, baina esaten dute ere, emakumeek ardurak hartu nahi ez dituztenez, profesionalengan kargatzen dutela asko. Hau emakumeek sozialki jasotzen duten presioarekin lotzen dute. Euren iritiz, emakume

askok ez dute bularra eman nahi, baina sozialki erakutsi zaie hau dela egin behar dutena, eta beraz osasun profesionalak erabiltzen dituzte karga horretaz liberatzeko.

- Mainer: *Baino gero hemen daukaguna da, zu juten zea eta esaten diozu gauza bat, hori uste dezulako eta atzetik beste bat juten da eta beste iritzi bat dauka eta esaten dio, eta orduan hurrengo egunean juten zea...eta ya...uff...ateatzen zea...*
- Amaia: *eta gero gainea ba hori, ulertzen dutenan artean eta...*
- Mainer: *gauza bat ulertzen dute, gauza bat esaten diozu eta ulertzen dute beste bat eta gero burua...*
- Amaia: *edo ulertu nahi dute beste gauza bat espektatibean arabera*
- Mila: *bai,bai.*
- Mainer: *Da nahiko zaila.*
- Mila: *Eta nahi du zuk ematea, zuk esatea ze in ber dun, geo esateko , bai nik hau in det harek esan zitelako. Utzi diot o eman diot o ez diot eman...esan zien zu saiatu zea eta esan dit uzteko.Bilatzen dute era zuk zure iritzia emateko eta era hortan haiek pixkat liberatzeko errespontsabilitate hori. Eta guk ematen dieguna da posibilitatea eman, ba egin dezakezu hau. Bueno nik behintzat egiten detena beti saiatzen naiz, o sea nik ezin dizut esan zer egin behar dezun, baina daukazu hau egitea, hau egitea, hau egitea, nahi baldin badezu biberioia eman dakazu hau egitea, nahi badezu titia eman dakazu hau egitea, baño jendeak askotan behartzen zaitu, saiatzen da zuri behartzen.*

Edoskitzearen araberako ama motak

Ama motei dagokionez, orokorrean lau ama mota bereizten dituzte: Lehena edoskitze naturala nahi duela argi eta garbi daukana, normalean arazorik izaten ez dutenak dira hauek. Bigarrena saiatuko naiz esaten duena. Hirugarrena edoskitze artifiziala egiten duena, normalean plantara etorri eta epaituak ez izateko euren erabakia esplikatuz euren burua justifikatzen dutenak. Laugarrena edoskitze mistoa egiten duena, eta hemen bi mota daude. Lehena kanpotar gehienak (afrikarrak, hegoamerikarrak eta asiarrak), mistoa egiten dute inongo konplexurik gabe, ez diote garrantzia handirik ematen horri. Eta bertakoak titia eman nahi dutenak baina edoskitze artifizialeko abantailekin.

Carmenek bereizketa sinpleagoa egiten du: konbentzitu gabe dagoena eta argi duena bere erabakia. Honen harira edoskitze artifiziala ematen duen emakumea desmitifikatu beharra dagoela azpimarratzen du, urteetan zehar emakume hauei ama txarren etiketa jarri baitzaie.

Mira, yo creo que a la mujer que da lactancia artificial hay que desmitificar eso, porque unas te lo dicen muy claramente “me siento mala madre, es que me habéis hecho sentir mala madre”. Yo cuando una mujer me dice eso me siento fatal, porque pienso vamos si yo

he hecho esto algo he hecho mal o sea, estoy haciendo algo mal. ¿Cómo voy a hacer sentirle a una madre culpable? O sea, es que lo he hecho mal.(...) Entonces, que es diferente, pero que lo va a hacer igual de bien y que aquí esto es una opción, esto es una opción. Que estamos, por suerte, en unos tiempos en los que no hay que buscar nodriza ¡eh!. Si tú por lo que sea, por la razón que sea, a mí no me lo tienes que explicar, ni a nadie, es tu razón ¡eh!. Y a nosotras no nos queda otra que ser superrespetuosas y a esa madre lo mismo, animarle y explicarle como preparar un biberón, cómo coger a su hijo, lo mismo que a la otra, y quizás en unos años se nos olvidó.

Osasun profesionalak eta amatasun intentsiboa

Amatasun intentsiboaren kontzeptuari dagokionean eztabaida taldean muturrekoa iruditzen zaie eta horregatik ona ez dela. Hala ere, gizartean halako kasuak daudela ikusten dute, eta ez zaie bidezkoa iruditzen emakumeak honetara bideratzea.

- Amaia: *Bida nere ahizpak daka lagun bat bere gizona matrona dana eta ume bat ekarri nahi due eta hamar urtetan ezin due ekarri, baina bueno, esan zion, lo ke esta klaro es ume bat ekartzen baldin badezu lehenbiziko 2 urtetan zea umian esklabua, zu ez zea inor.*
- Mainer: *bai umea jaio eta ama juten baldin bada parranda botatzea hori gaizki ikusten da.*
- Amaia: *Aita juten baldin bada desaogatu in berko, atea in berkou lagunekin.*

Carmenek amatasun intentsiboaren kontzeptua ez du ezagutzen, baina estigma eta estremoak onak ez direla dio. Azken finean amak ezin direla errudun bilakatu.

Yo a veces oigo a profesionales, que a veces oyes a profesionales, o algunas madres, porque dentro de la Liga de la Leche a mí a veces me ha sorprendido aquí cuando hablan de talibanes “ es que estas son unas talibanes”, digo a ver .. ,pues es que los extremismos siempre son malos, todos los extremismos, todos los fundamentalismos. O sea, es que eso es un desastre. Entonces, pues no me gusta nada porque me parece una pena el oírles a unas mujeres que otras sean exactamente igual porque yo lo he hecho genial. Porque mira, qué suerte que mis hijos han salido estupendos, que no sé qué, porque claro los tuyos igual se han torcido, porque claro porque tú, porque mira que como tú has fumado, porque tú te marchabas de viaje y...(…) Yo cuando oigo a mujeres hablar así, ¿Cómo puedes culpabilizar a nadie de todo esto?

Edoskitzaroaren garrantziaren jatorria

Gure gizartean edoskitzeari garrantzi berezia ematen zaiola komentatzen dute eztabaida taldean. Hau haurra jaio eta lehen hilabetetan ematen dela diote, gerora garrantzia galtzen baitu gaiak. Hasieran ama onak bularra ematen dio haurrari, eta sozialki dena honen inguruan eraikia da.

- Amaia: *gero iristen da momentu bat hilabete batzukin gehienak ematen dutela seguraski biberioia edo mixta edo...*

- Maider: *Hori ya beste bigarren plano batera dijoala. Eta jendea igual kontzentratzen da gehiago ba hori ba ea apuntatzen dezun estraeskolarretan, edo juten zean umearekin beti edo partidu guztitara juten zeala edo hori... holako gauzetan ez? Ez dakit... gero beste plano batera dijoala, hasieran igual bai baino gero beste plano batea dijoala.*
- (...)
- Amaia: *Bai. Eta nik uste hasierako egun edo hilabete hoietan dala oso punto inportantea.*
- Maider: *Horren inguruan dao dena eraikia, laktantzian.*
- Amaia: *Bai horren inguruan. Bai ze azkenean hasieran egiten duna umiak da jan eta lo eta kaka in eta holako gauzak eta orduan loa o sea ez dakit pixkat ba zer jaten dunaren arabera dijoa ez? Jaten du ondo ez dakit ze lo egiten du, ez du jaten ondo ez dakit ze ez du ondo lo egiten ez? Ez da hola baino bueno... hola erlazionatzen dute. Orduan gaizki egiten badu lo da gaizki jaten duelako edo ez dakit ze ordun haien arazo printzipala da jatea eta hortan... ba hortan dago klabea.*

Inguruko jendea eta edoskitzaroa

Inguruko jendeak eragin handia du halako prozesu bat bizitzen denean, askotan nekeak gain egiten baitu. Inguruko laguntza ezinbestekotzat jotzen dute, baina ez da beti hala izaten. Honen harira bere esperientzia kontatzen du Milak:

Joe ni goatzen naiz nik zarrenakin titia ematen nion eta zeuzken kolikok, hasten zan ilutzean 8k alde, near da near da near. Eta jendea... titia bai baina esneik ez dezu eukiko, ure eukikozu, ume honek gosea dauka. Ume onek gosea besteik ez dauka, honek ez dakit ze... gaizki ai zea titia ematen ez dakit ze... geo juten nintzen astero pediatrangana, eta pediatrak jartzen ziten umea baskulan gainean eta astero kiloerdi irabazten ziten... (parrak) eta esaten zian aber zuri iruitzen ziazu ume onek gosea daukala? Eta.. ume honek ez dauka gosea. Etxea juten nintzen eta ni...lo falta lo falta eta asteburua iristen zan eta nik ordun iten nun libratu egun batean bakarrikan. Goizeko bostetan jeikitzen nintzen eta seitan trena hartzeko eta zazpitan honea lanea iristeko eta hala itten nun. Umea uzten nun, o sea asteburutan egun bat egoten nintzan jai umea jaiota. Nei esaten bazie ez nula jai ingo nere burua trenen botako nun. Benetan esateizut eh... eta hartzen nun asteburun umea eta juten nintzen aman etxea eta esaten nion tori umea, eta pumba ohera. Eske hola, baño nearrez, nearrez esanez jolin jo eske, juten nintzen meikuna eta dena burua janda...(...) nik zaharrenakin esateizut, eon nintzen erdi erotuta, esateizut ze in nun, gaizki pasa nun... Zaharrenakin nik aurreneko eunen goizeko seiak arte lo in zunen, nik hola sehaskan beidatzen nun aber arnasa hartzen zun, ea bizik zeon. Eta txupetea sartzen nion azukrekin, ilunpetan...prast! Baño hola eh... nik jeiki izandu naiz, goizeko ordubaten lo hartu, baño bost minutu eta raio attu, nere gizonak jartzen zun programa radioko eta goizen despertadorea radio jartzen zun eta ra esnatu nintzen eta radio, ah! Lo hartuet, trena galdukoet! Jeiki eta begiek pintatzen ai nintzela, el largero de la noche.. la una de la mañana, eta ni begiek pintatzen lanea jutekoa... esateizuet eh...

Laguntza faltari lotuta ikusten dute askotan bereziki haurren amonak¹⁴ amaberrien edoskitzearen gaian asko sartzen direla. Honen zergatia galdetuta, emakumeen gainetik jartzeko egiten dutela erantzuten dute hiruek.

- Amaia: *bueno amonak y las suegras con el biberon...*
- Maider eta Mila: *bai, bai...*
- Ni neu galdetzen: *suelen ser probiberon ez?*
- Hiruek: *Probiberon...*
- Amaia: *eta hotzakin, eta ez dakit ze.*
- Maider: *Atxisakin.*
- Amaia: *Bai denakin, denakin. Nei tokatu zait suegranbat, nola esaten da suegra... amaginarrebanbat tokatu zait tipo, es que le toca biberon, es que hay que darle, tipo beak*
- Mila: *beak emateko, beak manejatzeke, bai...*
- Amaia: *bai kontrolatzeko bai. Bai, amonak eta etortzen dianean ematen du jarri nahi duela eh... umia izan dunan gainetik. Como que etorri naiz, zu lasai, nik kontrolazten det. Asko rollo hortan etortzen dia.*
- Mila: *Nik esateiet, amei esateiet, zuk laguntza ber dezu baño azulejok eta garbitzeko, ez umiakin garbitzeko. Zui etxea etortzen zaizkizunen jarri mopa eskuan eta esan hasi garbitzen. Eta zu silloien umea zaintzen. Zure laguntza da denboa uztea umekin eoteko, eta zuri laguntzea ez da umea kendu eta zu uztea, ez. Eta hori amona askon aurren esaten diet.*
- Amaia: *Eta hemen asko ikusten da hori, amonek buff! eske sartzen dia denak... bai bai, eta daude igual zortzi hamar lagun aman ingurun eta denak opinatzen.*

Bisiten gaia aterata, nabaria da ospitalera jende gehiegi joaten dela, eta honek inori on egiten ez diola esaten dute. Azken finean, profesionalei oztopatzeaz gain, amaberriak bisitetara egoteak nekatuak uzten ditu, eta gauzak korapilatzen dira. Atentzioa beren buruengan eta haurren ez edukitzeak, gerora larritasunak ekartzen ditu.

- Amaia: *Nei askotan o sea ematen diet pauta eta igual atxaldeko 3tan turno hasieran eta deitzen diate 9tan eske umeak ez du ezerre jan... eta hori? Eta eon dia bixita pillla bat, edo ez? Ez da ez dakitela edo ez diozula esan.*
- Mila: *Jendea jartzen da bixitari kasu iten, eta iruitzen zaie, ez duela jan bear bixitan aurren ez duela titia eman behar bixitan aurren, titia atea eta...*
- Ni neu galdetzen: *bixita asko egoten dia hemen.*
- Hiruek: *Gehiegi.*

14 Kontuan eduki behar da bereziki amonak esaterakoan, amonek rol sozial bat dutela eta hau betetzen saiatzen direla.

- Ni neu galdetzen: *Eta hori zergatik da?*
- Maider: *Nik uste beti izan dala ume baten etorrera beti dala festa bat bezala, eta orduan...*
- Mila: *ez due pentsatzen nekauta eongo danikan edo... iruitzen zaie...*
- Maider: *eta emakumeak ezta re ez dia kejatzen bixitaz, or daude jiji jaja, eta gero daude leher inda.*
- Mila: *Gero iruitzen zaie ez diela esan behar bixita batei...gaizki daola, beti esaten due agobiauata nao bixitakin baño geo ez dia atrebitzen esaten bixitai ez etortzeko.*
- Amaia: *Ez dia atrebitzen esaten bixitai ateatzeko titia emateko.*
- Mila: *Nei askok esaten die, nahiago det honea etortzea geo etxea etortzea baño.*
- Amaia eta Maider: *Hoi da.*
- Mila: *Askok esateue hoi. Hemen kentzeitut gañetiken eta lixto.*
- Amaia: *En plan compromiso social.*
- Ni neu galdetzen: *Eta gañea etortzen dienak beti dia lehenengo lerroko familiarrak?*
- Mila: *Etetete...*
- Amaia eta Maider: *ez ez...*
- Mila: *el vecino de la escalera...*
- Amaia: *pacientian izena re ez dakienak.*
- Mila eta Maider: *Bai.*
- Amaia: *Eske ikusiet senarra hortikan... bai, altua, moreno... edo etortzen dia, Iker ikustea nator. Eta zein da Iker. Ume bat oain jaio da. Eta bere gurasoak. A ba... senarra da alto bat begi urdinekin...*
- Maider: *Tolosakoa.*
- Amaia: *Bai Tolosakoa, eta zuk esaten dezu, a bale.*
- Ni neu galdetzen: *Eta esaten badiozu pertsona horri amaren izena eman behar diazu, tokatu zaizue noizbait esatea, eh... pero como, o sea... pero no te fias de mi! Edo esaten diozunean, hemen ingresatua dagona ama da...*
- Amaia: *bai ofenditu...*
- Maider: *bai gaizki sentatu.*

Lanarekin gustura egotea

Azkenik haien lanarekin gustura zeuden galdetu nien osasun profesionali. Orokorrean haiek oso gustura sentitzen dira egiten duten lanarekin, baina bai ospitaleari dagokionean eta baita amaberriei dagokienean ere, askotan ez dira baloratuak sentitzen.

- Amaia: *Baño bueno normalian jendia ez baezu iten beak nahi duna moskeatu iten da.*
- Maider: *En general ospitalean.*

- Amaia: *Bai, o sea zuk iten baezu beak nahi dun guztia, jo eske enfermera oso ona zea. Baño bestela...bai, moskeatu iten da.*
- Maider: *Deitzen badizute gaueko 3tan baso bat ur eskatzeko eta ondoan senarra lotan dagola aldamenean eta esaten diozula bueno oain ekarriko dizut baño hurrengoan esnatu zure senarra horretarako dagola, era onian esanda, ba gaizki sentatzen zaie. (parrak) edo jeisteko persiana, gaueko ordu txikitan dala oso oso garrantzitsua karo. Edo tiritita bat emateko oain dela lau ordu ba ez dakit moztu in dala.*
- Mila: *Edo kolakau bat emateko bere gizonai ze ez dio denbora eman afaltzeko.*
- Amaia: *Edo almoada bat, ze gaixoa oso nekatuta dago.*
- (...)
- Ni neu galdetzen: *baloratuak sentitzen zeate?*
- Amaia: *Ez, no rotundo. Edo ni ez behintzat,*
- Mila: *Para nada. Porque zu aitzen zea, hau ta beste, eta gero askotan juten die despeditu gabe ez ezer.*
- Amaia: *Eske ezta re despediu, nei askotan pasa zait pasa atxalde guztia gela batian ume horrekin eta hurrengo goizean esan eske ayer por la tarde no me ayudó nadie...*
- Maider eta Mila: *bai bai.*
- Amaia: *O sea nik ez det eskatzen eskertzia ezer, baño...*
- Maider: *eta turno berdiñean, esaten eske nadie me ha esplicau nada.*
- Amaia: *Y que le digas, si te he dicho yo.*
- Maider: *Pero si he estado contigo 20 minutos.*
- Amaia: *Edo pediatria aurrian, a! No no, no sé, nadie me ha dicho nada.*
- Mila: *Baño si nei aurreko baten, si nadie me ha dado suplemento, ¿Cómo que no? si yo bañuan delante del padre le he dado 20. Eta geo beste batek eman eta gaintiken goiz guztin inork ez ziola jaten eman umiai.*

Baina zenbaitetan esker ona ere agertzen da:

- Maider: *Bai eta gero nei behin baino gehiagotan gertatu zait gelditu in diate kalian. A ba zu zea enfermera, oso gustoa eon giñan... bai, bai, dela gutxi gertatu zitzaidan, 4 hilabete zekala umiak. Esan zian jo ba eskerrikasko... eta hola bai topatu izan naizela jendiakin..*
- Mila: *nei ebai, bigarrenakin etorri eta goatu, zu ziñen gauetan...*

Amaitzeko esan Carmenen dagokionez bestelako balorazio bat egiten duela. Bere ustetan lana ona egiten da orokorrean, lehen zorroztasuna zen nagusi eta hau ez zen ona, orain malguagoak dira profesionalak eta hobe da. Amaieran azpimarratzen du amaberrien esker onagatik oso asebeta sentitzen dela.

c. Análisi bateratua

Hasteko deigarrien egin zaidan puntuarekin hasiko naiz. Elkarrizketatutako amaberrien artean desberdintasuna nabaritu dut eta nagusiki bi taldetan bereizi daitezke. Alde batetik inoiz inongo taldean militatu ez dutenak daude, eta bestetik talderen batean militatu izan dutenak. Lehenengoari dagokionez, euren hitz egiteko modua, diskurtsoa sentimenduetatik zetorrena izan da, hausnarketa sakonik gabea, gauzak bizi izan dituzten bezala adierazi dituzte, beraien aitortu dute gauza askoren inguruan ez dutela inoiz pentsatu. Bigarren taldeari dagokionez, sentimenduen bidez hitz egiteaz gain, analisi landuago bat egiteko gai izan dira. Euren sentimendu eta ideien arteko kontraesanen jabe, arazoaren erroa jotzeko gaitasuna adierazi dute, eta sistema patriarkalean txertatua gaudenaren jabe, euren amatasun eta edoskitze praktiken inguruan hausnartu dute.

Deigarria ere egin zait azken talde honek osasun profesionalek izan duten diskurtsoarekin duen antzekotasuna. Elkarrizketatutako osasun profesionalek ez dute inoiz inongo taldean militatu, eta biomedikuntzaren motxila soinean dutela kontuan izanik, balio berezia du hauen iritziak militatutako amaberrienarekin bat egiteak. Gizarteak eta sistemak inposatzen dituzten rol, praktika, eredu eta abarrak hor daudenaren jabe izan baitira.

Amatasun intentsiboaren gaiari dagokionean, osasun profesionalek eta talderen batean militatutako amaberriek kontzeptua ezagutzen ez bazuten ere, biek ala biek gizartean halako eredia badagoela eta berau sustatzen dela aitortu dute. Aldiz, amaberrien beste taldeari dagokionean, gaiaren aurrean jarrera defentsiboa hartu dute, euren buruak justifikatu dituzte eta eurek praktikara eramaten ez dutela argi utzi dute. Elkarrizketetan ezin izan dugu arrazoieta haratago joan, edo ez dugu asmatu behintzat.

Azkenik edoskitze artifiziala eman duten amaberriek eta osasun langileek Osakidetzaaren aldetik dagoen diskurtsoa identifikatzerako garaian ados daudela ikus dezakegu. Izan eraikuntzatan kartel guztiak edoskitze naturalaren aldekoak direlako, izan erditze aurreko klaseetan bularreko edoskitzeaz ematen den informazio idealizaturaino, amaberriek egokiena edoskitze naturala delako ideia jasotzen dute, errealitatean zerbait bere baitan egokia izan ahal balitz bezala.

5. Ondorioak

Lehenik esan beharra dago -lanean zehar ondo justifikatua geratu den bezala- edoskitze hautua, pertsonala bada ere, genero sistemak zerikusi handia duela erabakitze prozesuan. Sistema horretan kokatuak, ez dago gizaki isolaturik, eta arrazoi bat edo beste bat medio, edoskitze hautuak garrantzi handia du amatasun izaera definitzerako orduan, amatasun proiektioan.

Bigarrenik, edoskitze motak bikote harremanean eta lan banaketan zerikusi handia du, zenbaitentzat edoskitze artifiziala lan banaketa parekide baten jardunean tresna izateraino. Beraz, amaberri feminista askorentzat edoskitze naturalean lan banaketaren inguruan kontraesana topatuko dute, haurra etengabe lehen hilabeteetan gertu edukitzeko beharragatik.

Jarraitzeko, amatasun intentsiboaren gaiari dagokionez, kontzeptuak gizarteak bideratzen duen ama mota islatzen duela ikusiko dugu, eta hau amaberri feministentzat erronka bat da; badakitelako horretara bideratuak direla baina ez dute horretan erori nahi. Gainera, amaberriak etengabe epaituak dira euren amatasuna bizitzeko eragatik, bereziki lehen hilabeteetan, euren haurrak elikatzeko sistemaren erabakiagatik. Etengabe ama txarraren mamua dute atzetik, baina aitek, aldiz, ez dute halako presiorik jasotzen.

Halaber, edoskitze prozesuaren izaera naturalari dagokionez, ikusiko dugu naturalaren argudioak behin eta berriz entzuten badira ere, edoskitze hautua ez dela naturala eta edoskitze ekintza bera are gutxiago.

Gainera, edoskitze naturalaren alde txarrak ezkututzen dira, bai biomedikuntzatik eta baita gizartearen aldetik ere, amak edoskitze mota honetara bideratzeko. Gizaki kritiko eta autonomoak beharrea, menpeko eta akritikoak sortzen ditu sistemak. Egoera hau aldatzeko proposamen bat osasun heziketa zabala ematea izan daiteke, eta bertan edoskitzea ekintza eta ama esnea produktua bezala bereizteak lagundu dezakeela uste dut nik. Behin eta berriz naturaren argudioa entzuten badugu, prozesua soziala dela argi uztea eta produktua, ama esnea, haurraren beharrei hoberen egokitzen dena argi utziko bagenu, gurasoekin edoskitze prozesuak suposatzen duena beste modu batera ikusteko gaitasuna jorratu genezake.

Informazio iturriari dagokionez, kontuan izanda bai osasun langileentzat eta baita amaberrientzat ere erditze aurreko klaseek garrantzi handia dutela, bertan hobekuntza nabariak egin

daitezkeela ondoriozta dezakegu osasun heziketari dagokionean. Honetarako aukera bat erditze aurreko klaseak erdigunean kokatuak izango dituen ikerlerroa zabaltzea izan daiteke, sistema hobetzeko ezinbestekoa.

Bestalde, gizartean edoskitzaroa idealizatua dagoela eta berau amaberriei garai idealizatua bezala eskaintzen zaiela marko teorikoan eta elkarrizketa guztietan agertu dela ikusirik, arestian amatasun erromantikoa kontzeptua definitua izan den bezala, ondoriozta dezakegu gizartean egun dagoen egoeran edoskitze erromantikoaz hitz egin daitezkeela.

Amaitzen hasteko, ezin lana bukatu amatasun eta edoskitze eredu berri eta anitzen behar handia dagoela esan gabe; marko teorikoan esandakoaren nahiz elkarrizketen ondorio da hau. Honetara bidean, amatasun eta edoskitze subertsiboek genero sisteman iraultza suposa dezakete. Nire lanaren helburua gizartean hobekuntzarako hazia jartzea bada, hona nire proposamena: edoskitze mota subertsiborako bidean aukera bat aiten edoskitze naturala sustatzea izan daiteke¹⁵, honetarako ikerketak bideratuko balira, hau nola gauzatu daitekeen ikas genezake, eta mahai gainean aukera gehiago zabaldu. Beste aukera bat edoskitze era berrien sorkuntza da (Esne bankuak, edoskitze sareak, doako esne artifizialak...).

Azkenik, halako ikerketa batean nahiko nituzkeen eremu guztiak jorratu ezin izan ditudanez, interesgarria iruditzen zaizkidan bi ikerlerro aipatu nahiko nituzke. Lehena -lanean zehar aipatutako- bikote heterosexuala osatzen ez dutenen (banako, hirukote, edo dena delako, gizon, emakume edo queer-ak) amatasun eta edoskitze esperientzia jasotzea. Eta bigarrena gure aurretik ama izan diren horien esperientziak jasotzea. Izan ere, esperientzien aniztasunean aurkituko baititugu aurrera egiteko bide berriak.

15 Gizonezkoek edoskitzea zenbait kasu berezitan egin dezakete. Ikus Argia aldizkariko artikulua: “Gizonek ere bularra eman dezakete” (Alkorta,2013).

6. Bibliografia

1. Alkorta, N. (2013/IX/10) Gizonek ere bularra eman dezakete *Argia*
<http://www.argia.com/blogak/nahia-alkorta/2013/09/10/gizonek-ere-bularra-eman-dezakete/>
Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
2. Badinter, E. (1980) *¿Existe el amor maternal?* Paris: Paidós Iberica.
3. Badinter, E. (2011) *La mujer y la madre* Madrid: La Esfera de los Libros.
4. Blázquez, M^oI. (2009) *Ideologías y prácticas de género en la atención sanitaria del embarazo, parto y puerperio: el caso del área 12 de la comunidad de Madrid* (Tesi doktora) Universitat Rovira i Virgili. Departament d'Antropologia, Filosofia i Treball Social, Tarragona
5. Blázquez, M^oJ. *Ecofeminismo y lactancia* Ponencia presentada en el Curso de Maternidad entrañable y gozosa de la Universidad de verano de Zaragoza (campus de Jaca).
6. Blázquez, M^oJ. (2007) *Maternidad y paternidad : mujeres y hombres escriben sus experiencias* Zaragoza: Prensas universitarias de Zaragoza.
7. Bolufer, M. (1992,Otoño) Actitudes y discursos sobre la maternidad en la España del siglo XVIII: La cuestión de la lactancia *Historia Social* (14), 3-22.
8. Castejón, M. (2013/II/08) La maternidad ¿un feliz acontecimiento? *Pikara Magazine*.
<http://www.pikaramagazine.com/2013/02/la-maternidad-%C2%BFun-feliz-acontecimiento/>
Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
9. Del Olmo, C. (2013) *¿Dónde está mi tribu? Maternidad y crianza en una sociedad individualista* Madrid: Clave Intelectual.
10. Del Olmo, C (2014) *Construir un discurso maternal decente*
<http://dondeestamitribu.blogspot.com.es/2014/04/construir-un-discurso-maternal-decente.html>
Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
11. Diez Mintegui C. (1995) *Maternidad: ¿hecho natural?/¿Constructo ideológico?* Donostia: BiTarte.
12. Diez Mintegui C. (1999) *Maternidad y orden social. Vivencias del cambio en Perspectivas Feminista desde la antropología social* Donostia: Ariel
13. Esteban, M^oL. (2006) *Amatasuna: eztabaida antropologikoak eta feministak en Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak* Donostia: Udako Euskal Unibertsitatea.

14. Esteban, M^o L & Uria, J.L. (2007) Presentación. En Esteban, M^o L. *Introducción a la antropología de la salud* (7-10) Bilbo; Osalde.
15. Esteban, M^o L. (2007) Antropología, sistema médico-científico y desigualdades de género en salud. En Esteban, M^o L. *Introducción a la antropología de la salud* (69-88) Bilbo: Osalde.
16. Esteban, M^oL. (2000) *La maternidad como cultura. Algunas cuestiones sobre lactancia materna y cuidado infantil* en Comelles J.M. & Perdiguero E. *Medicina y cultura. Estudios entre la antropología y la medicina* Barcelona: Ediciones Bellaterra.
17. Esteban, M^o L. (2001) *Re-producción del cuerpo femenino. Discursos y prácticas acerca de la salud* Donostia: Gakoa.
18. Gimeno, B.(2011/X/04) Estoy en contra de la lactancia materna *Picara Magazine* <http://www.pikaramagazine.com/2011/10/estoy-en-contra-de-la-lactancia-materna/>
Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
19. Gimeno, B.(2012/I/04) El antifeminismo que nos viene *Picara Magazine* <http://www.pikaramagazine.com/2012/01/el-antifeminismo-que-nos-viene-crece-en-la-izquierda-una-corriente-que-llama-a-revalorizar-lo-femenino-sin-criticar-al-patriarcado/>
Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
20. Gimeno, B. (2014/II/13) Construyendo un discurso antimaternal *Picara Magazine* <http://www.pikaramagazine.com/2014/02/construyendo-un-discurso-antimaternal/> Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
21. Hernández, E. (2008) Genealogía Histórica de la Lactancia Materna *Rev Enfermería Actual en Costa Rica* 15(sep2008-mar2009). Aukeran: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2745761> Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
22. Hernandez, M.T. & Martín-Calama, J. (2008) Recomendaciones nacionales e internacionales. Siglos WW y XXI. En Comité de lactancia materna de la Asociación Española de Pediatría *Manual de la lactancia Materna. De la teoría a la práctica* (25-32) Madrid: Editorial Panamericana.
23. Herranz Atance, Á. (2008) *Beneficios de la lactancia materna en situaciones especiales* Madrid: Mayo Ediciones.

24. Iglesias, S. (2008) Lactancia materna en un hospital comarcal: factores socioculturales y sanitarios que pueden influir en su eleccion y mantenimiento *Enfermeria clinica* 18(3): 142-6.
25. Imaz, E. (2010) *Convertirse en madre. Etnografía del tiempo de gestación* Madrid: Ediciones Cátedra.
26. Landa, L. & Paricio, J.M. (2008) Aspectos Antropologicos en la historia del amamantamiento en Historia de la lactancia. En Comité de lactancia materna de la Asociación Española de Pediatría *Manual de la lactancia Materna. De la teoría a la práctica* (9-11) Madrid: Editorial Panamericana.
27. Maher, V. (1992) The Anthropology of Breast-Feeding. En Maher, V. *The Anthropology of Breast-Feeding. Natural law or social construct* (i) Oxford: Bloomsbury Academic editor.
28. Maher, V. (1992) Breast-Feeding in Cross cultural Perspective: Paradoxes and Proposals. En Maher, V. *The Anthropology of Breast-Feeding. Natural law or social construct* (1-36) Oxford: Bloomsbury Academic editor.
29. Maher, V. (1992) Breast-Feeding and Maternal Depletion: Natural Law or Cultural Arrangements? En Maher, V. *The Anthropology of Breast-Feeding. Natural law or social construct* (151-180) Oxford: Bloomsbury Academic editor.
30. Martín-Perdiz, A. (2008) Entre la idealización de la lactancia materna y la realidad. La experiencia de amamantar a un recién nacido prematuro *Enfermería Clínica* 18(5):278-80.
31. Martínez, A. (2007) Cultura, enfermedad y conocimiento médico. La Antropología médica frente al determinismo biológico. En Esteban, M^o L. *Introducción a la antropología de la salud* (11-44) Bilbo: Osalde.
32. Martínez, J.M. & Delgado, M. (2013) El inicio precoz de la lactancia materna se ve favorecido por la realización de la educación maternal. *Revista de Associação Médica Brasileira* 59(3):254-257.
33. Massó, E. (2011) *La lactancia materna como catalizador de revolución social feminista (o apretando las clavijas al feminismo patriarcal): calostro, cuerpo y cuidado* http://caso.omiso.org/docs/masso_lactancia.pdf Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13
34. Moreno, A. & Soto, P. (1994) *La madre feliz: el regreso de un mito* Viento sur. 16:107-117.

35. Oliver-Roig, A., Chulvi-Alabort, V., Lopez-Valero, F., Lozano-Dura, M.S., Seva-Soler, C. & Perez-Hoyos, S. (2008), Momentos críticos de abandono de la lactancia materna en un seguimiento de 6 meses *Enfermería clinica*. 18(6):317-20.
36. OME (2005) *Constitución de la Organización Mundial de la Salud* (1.or). <http://www.who.int/governance/eb/constitution/es/> Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13.
37. Osakidetza (2011) *Zure haurra badago etxean* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
38. Paricio, J.M. & Hernández, M.T. (2008) Aspectos Históricos de la alimentación al pecho. En Comité de lactancia materna de la Asociación Española de Pediatría *Historia de la lactancia en Manual de la lactancia Materna. De la teoría a la práctica* (12-24) Madrid: Editorial Panamericana.
39. Scheper-Hughes, N. (1997) *La muerte sin llanto. Violencia y vida cotidiana en Brasil* Barcelona: Ariel.
40. Sterken E. (2006) *Riesgos de la alimentación con leche artificial* <http://www.laligadelaleche.org/images/pdf/riesgos%20formula.pdf> Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13.
41. Toro, R. (2010) Evolución Histórica de la lactancia materna. Derechos y conciliación familiar *Rev. ROL de Enfermería* 33(12): 840-846.
42. Yalom, M. (1997) *Historia del pecho* Barcelona: Los 5 sentidos.
43. Van Esterik, P. *LACTANCIA MATERNA: Un asunto feminista* <http://www.waba.org.my/resources/otherlanguages/spanish/asuntofeminista.htm> Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13.
- Web guneak
 1. 10 razones para NO dar Fórmula a tu bebé. <http://www.laligadelaleche.org/images/pdf/10razonesNOformula.pdf> Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13.
 2. Harluxet hiztegia: Gaixotasunen sailkapena. <http://www1.euskadi.net/harluxet/> Azkenekoz ikusia 2014-VI-15
 3. Iniciativa Hospital Amigo de los Niños <https://www.ihan.es/index13.asp> Azkenekoz ikusia: 2014/IX/13.

7. Eranskinak

ERANSKINA 1: Karmeleri elkarrizketa

2014ko Maiatzaren 14an Baionan

- G. *Kaixo Karmele, lehenik aurkeztu egingo naiz. Nik egiten det lan ospitale batean amaberriekin eta egoten naiz haiekin ospitalean egoten diren egunetan zehar. Erditze momentuan ez naiz egoten, egoten naiz gero han. Ya dela lau urte erizaina naizela, eta hor ikusi nitun gauza ezberdinen harira sartu nintzen antropologia ikastera, ze erizaintzan faltan botatzen nun alde sozial hori edo aportatzeko antropologiak. Eta bertako ikasketetan konturatu nintzan zenbait gauza eskapatzen zirela erizaintza ikasketetatik eta sortu zitzaidan ikerketa bat egiteko gogoia, eta horren harira sartu nintzen masterrean Edurnerekin eta feminismokoa, eta ikusten nuna zan amatasunaren inguruan zeudela gauza pilo bat ez zeudenak ikertuta, edo igual ikertuta zeudela baina ez nik nahi nun alor horretatik. Eta pixkat ikusi nahi nun amatasun estrategia ezberdinak eta lehenengo egun hoietan ni egoten naizenez han amatxoekin, ikusten nun haurra nola elikatu eta garrantzia eduki zezakela amatasun estrategia hoietan, ez? Ba batzuk ematen dute bularra, besteak biberioia, beste batzuk momentu batean gauza bat gero bestea. Eta pixkat hortik noa, ea zertan lagundu dezakezun edo. Ordun egingo dizkizut galdera batzuk, eta hor ez dezuna nahi ba ez erantzun zalantzarik gabe eta hori a ver.*
- K. Ados. Bai.
- G. *Ba bueno lehenengo igual zure profila osatzeko pixkat esplikatu baldin badezakezu...*
(umea bularrean dago eta botaka egiten du, esplikatzeko du aireak ditula eta azkar jaten dula eta horregatik asko botatzen duela, masajeen inguruan eta hitz egiten dugu).
- K. Sentitzen det.
- G. *Ez lasai. Lehenik eta behin azaltzea, zu zera Karmele.*
- K. Bai.
- G. *Zenbat urte dituzu?*
- K. 30.
- G. *Eta zure txikiak dauzka...*
- K. 7 aste. Martxoaren 21ean sortua.
- G. *Uztaritzekoa zera, ezta?*
- K. Bai.
- G. *Eta bere aita?*
- K. Bere aitak baditu 34 urte, Berako da eta momentu honetan presondegian dago 7 urtez.
- G. *Zuk zure burua kontsideratzen dezu zure burua feminista, ez?*
- K. Bai.
- G. *Militatu dezu inoiz talde feminista batean?*
- K. Ez.
- G. *Bueno Segin bai, ez?*
(parrak)
- K. Bueno, hortan espezifikoki ibiltzen dena ez.

- G. *Ez, ondo. Bai hori da bilatzen detena, e? Ez du izan behar militantea, e? Ze azkenean asko murrizten da.*
- K. Bai,
- G. *Oso ondo. Egingo dizkizut galdera batzuk, izango dira haurdun gelditu aurretikoak, beste batzuk izango dira erditze momentu aurretikan, erditu ondoren eta beste batzuk edoskitzearen inguruan.*
- K. Ados.
- G. *Haurdun gelditu aurretikan, ze espektatiba zenitun amatasunaren inguruan, ze ama eredu zenitun eta ze eredu bilatzen zenun zuk edo? Oso galdera irekia da, e? Baina zer etortzen zaizu burura edo?*
- K. Ba deus.
(parrak).
- G. *Ondo, ondo deus baldin bada bada zerbait, e?...*
- K. Ez... bai hor... ez dakit... nik sekula ez dakit, hamar mila galdera pausatu nire buruari, e?
- G. *Oso ondo.*
- K. Ba ez dakit ereduia duzuna beti zure ama da, pentsatzen dut, behintzat ikusten dudana, eta nola bizi izan dan... Nik dudana ereduia nire amarena da. Nik atxemaiten dudana ereduia da. Eta gero egia da ez didala mila galdera pausatu, ez, ez aski natural etorri den zerbait, baina... bai norbaitekin zira, zerbait nahi duzu eraiki eta bai ume bat, ez dakit... ze eredu? eredu bat ez dut, e?... Ereduek bai ez ama etxean kokatua eta ez, ez dakit ama...ama...ama, aita izaiten ahal ziran bezela eta ez dakit... ez dakit sobera zer erantzun me...
- G. *Oso ondo, oso ondo erantzun dezun, perfektu. Eta ikusten dezun hola jendartean edo gizartean horrela badaudela patroia batzuk amatasunaren inguruan?*
- K. Ba noski. Hori... ikusten da ama hori, erraiten da orain ez dela gehiago lehengo ama baina nire ustez gelditzen dira oraindik, ama etxean umetaz okupatzen eta ez dait ze. Eta garbiketa, sukaldia, eta hori gelditzen da gaur egun. Bai, baina nik ez dut, fa!. Etxean aski ongi, badut hori, gurasoak ere militanteak dira, feministak dira biak eta beraz eredu on bat ukan dudala uste dut.
- G. *Pixkat ezberdina horrekiko, patroia konkretu horrekiko.*
- K. Bai. Ez zenta nik gehiago ukan dut aita etxean ama baina. Ama lanean eta aita etxean eta, ikasketak egiten eta aita gehien sukaldian eta ama gutxiago, fa!. Hori normal, bakoitzak egiten zuena... gustatzen zaiena eta hori. Beraz bai, modeloetatik gizarteak inposatzen duen modeletatik pixkat kanpo, guztiz ez ze sistemak bortxaz..., sisteman gira beraz, ez horren eragina badu bortxaz, bestela...
- G. *Oso ondo. Eta haurdun gelditu aurretikan, adibidez klasean konturatu gera pertsona batzuk ez dutela inoiz horren inguruan pentsatu, baina zuk zer uste zenun bularraren inguruan, eta edoskitzearen inguruan? Pentsatua zenun igual ez zaizu bururatzen eta ondo dago e?, baino...*
- K. Bularraren buruan hor nintzen, ahal badut eta ttikiak hartzen badu eta ongi pasatzen bada baietz, eta ezin bada, ezin da eta punttu. Nik nahi nuen baina ez nekien gustatuko zitzaidan ia, zenta hori, beharbada hor zira eta ez zaude... edo posible izango zen, edo arazorik edo... Kimetz aizu (umea protestaka) baduzu bukatzeko nahia eta ez zaizu iristen nahi duzun bezala...bularrez aldatzen du. Bularraren inguruan hementxe jartzen dut eta ez bada ibiltzen ez da ibiltzen eta ibiltzen bada... ba biziki ongi.
- G. *Ya... Eta lagunak eta eduki dituzu inguruan bularra ematen eta...?*

- K. Gehienak bai. Bai, ba bai, gehienak eman dute bularra, bai.
- G. *Eta zer iruditzen zitzazun?*
- K. Ongi, ongi, ongi, ongi. Ongi pasatzen baduzu, ze beti bada ere kulpabilizazio hori amak ez badu nahi, ze batzuk ez dute nahi ere. Eman eta hori ez baduzu nahi, edo ez bazira ezta ere beste munduko ezer, egia da ttikiarendako erraiten dela amaren esnea hori, handitzeko eta hoherena dela bainan ez baduzu nahi edo ezin baduzu, me hola da eta hala , ezta? Ez... mmm... ez horrekin aski... momentu batean hor odola duela...dela gutti uste nuen ez nuela esnerik ze ukan nuen hola bajoi bat eta beraz pixkat joan naiz esnea eroatera eta ukan dut biberoi bat, esnearekin eta azkenean bo berriz igo zait eta dena, baina hor nintzen, ez badut ez dut gehio eta hala.
- G. *Oso ondo. Eta erditu aurretikan haurdun zinela ze informazio iturri edo eduki dituzu haurdunaldiaren inguruan eta edoskitzearen inguruan? Non eduki dezu informazioa, edo nundik jaso dezu edo nundik bilatu dezu? Edo igual ez dezu euki. Batzuk esaten diate : “ni ez naiz deus informatu”.*
- K. Bai egia da, haurdunaldiaren inguruan liburu batzuk hola, baina gutti, e? Azkenean, lehen hilabetetan zen, eta ez nuen beharra sentitzen. Eta gero ba badituzu buruan galderak, eta bueno prestakuntzan... Gero batzutan pentsatzen dut ere bai amari pausatu dizkiodala, badakit ez dudala batzuk erditu baino lehenago begiratzen dute badakizu, sortu eta... eta nik bate, baina deuse, sortu eta gerokoa... Haurdun izan eta ez det deus, e? Ez dut eskatu, ez begiratu ez, e? Deus, deus. Izan behar zen haurdunaldia bizi behar dut eta gero gerokoa, eta momentuan ba hori. Eta badakit haurdunaldiaren denboran, e?... batzutan badituzu paranoia batzuk hor sortzen zaizkizunak...
(parrak) Egia, e?... Paranoia bilakatzen zara garrantziarik antzemaiten ez duzun... batez ere janaria eta ez dakit ze... gaizki edo txarra baldin bada eta txikiari pasatzea... badakizu holako... me hola.
- G. *Baina bestela, paranoian pixkat sartzea, eta hor begiratu behar duzu. Baina bestela... ordenagailuan begiratzen zenuen igual?*
- K. Mmm... ez, ez sobera. Ez ze interneten dena ona eta txarra antzemaiten ahal duzu eta hori, egia eta guztiz kontrakoa antzemaiten dezu, beraz ez, gehienbat... ama eta amaginak.
- G. *Oso ondo. Eta ordun emaginarekin prestakuntza saioak izan dituzu?*
- K. Bai.
- G. *Hemen nola funtzionatzen du? Hola osasun zentroan ama ezberdinekin edo, bakarka edo?*
- K. Ez, ez da osasun zentroa, ez dira hemen liberalean, pribatuak hemen, ez zenta ospitalean ez dut egin... baina ospitalean publikoan ere egiten ahal da, baina petatua da uste dut. Eta hemen bertan banuen, hemendik bost minutura eta oinez juten nintzen. Eta taldean, hiruzpalau ginen aldi oro. Zortzi dira prestakuntzan, beraz, erditzeko momentua, epidurala, bularretakoa edo biberioa, depende..., gero zesaria ez dakit ze, fa!, badituzu...
- G. *Zortzi gai edo?*
- K. Bai zortzi gai desberdin, batzutan aita batzuk etorri dira haien neskalagun edo emazte edo... dena delakoarekin.
- G. *Hori da.*
- K. Eta nik ondoan sofrologia ere egin dut, prestatzeko hautatzen ahal zenun, sofrologia egiteko, prestatzeko, zea hori eta.
- G. *Eta hori zer da sofrologia?*

- K. Sofrologia da arnas ariketak, bakizu hori kontrakzioak eta dena kudeatzeko eta dena, arnasarekin, lan bat eta esplikatzen dizute nola kontzentratu eta ez pentsatu minari, baina mina kontrolatzeko eta pixkat.
- G. *Egoera kudeatzeko.*
- K. Hori da.
- G. *Erakutsi dizute?*
- K. Bai.
- G. *Eta liberala hori zer da, seguru pribatua?*
- K. Pribatua da, baina gero seguridade sozialak dena ordaintzen du, nik ez dut deus ordaindu.
- G. *Ai! Bale.*
- K. Baina ez dira ospitale publikoan, dira instalatuak haien lokala, haien lekua badute.
- G. *O sea, da zerbait kontzertatua, zuek ordaintzen ez dezuena.*
- K. Hori da.
- G. *Eta herrian bertan eskeintzen dizuena lokal batean?*
- K. Bai.
- G. *Ai! Ez det ezagutzen hori.*
- K. Bai.
- G. *Bale, eta esan didazu pentsatu zenula minaren arabera edo nola sentitzen zinen erabaki zenula aurrera egitea bularra ematen edo ez. Baina zergaitan erabaki zenun baietz?*
- K. Bularra ematea?
- G. *Bai.*
- K. Ez dakit. Momentuan pentsatu baitugu, gero zaila izan da pixkat, lehen egunetan eta. Eta gero iruditzen baitzen esnea banuela eta aitzina. Eta bai...gero lehenago erran nuen: “entsaiatuko dut”. Eta gero ez nekien batere gustatuko zitzaidan, banituen zalantzak, e?.Ai! Nola sentituko nintzen. Eta bo azkenean ez. Momentuan ongi sentitu eta bera ere, beraz...
(Kimetz aldatzen du, goiko pisura goaz, bere etxera)
.....
- K. Jarrai dezagun. Non geunden?
- G. *Geunden ea zergaitik erabaki zenun titi ematea.*
- K. Ez dut, e?.. Hori... ez da zergaitik nere ustez, da hori. Haientzat ongi baita eta indartsu egiten baitira, omen eta... ongi pasa dugu eta beraz, bai.
- G. *Eta zure bikoteak ze esaten zun?*
- K. Deuse.
- G. *Ez zun iritzia ematen hola?*
- K. Ez, ez, ez. Zenta ez dakit ea bien artean aipatu dugun bularrarena edo. Beharbada aipatu dugu. Berak ikusten du bularra, e?, hori. Gehienbat tikiaren onurarako azkenan. Ze hori ona baldin bada beretzat, e?...hola. Baina, eta aurrekoan hori berdin erraiten zidan, biberioia, jeitsiera hori ukan nuelarik, biberioia hartu behar badu, hartzeko. Eta hola.
- G. *Es que ikusten degu lanean bikote batzuk laguntzen dutela, beste batuk paso egiten dute, beste batzuk behartzen dute. Horregaitan...*
- K. Bai...
- G. *Oso ezberdina da bikote ezberdinen jarrera, ezta?*
- K. Bai, gero bera egunerokotasunean ez denez hor.
- G. *Aldatzen da.*

- K. Bai pentsatzen dut desberdina dela. Egunero hori izango bazen, beharbada laguntzeko edo ez dakit zer, nik hori berdin ere esnea ateratzeko eta berak biberioa ematea ere. Ze harreman berezi bat sortzen da ere, eta aitak bere lekurik ez du, eta nik pentsatzen dut hori aitak haurrarekin harremana egitea ere, eta bo, hola deno...
- G. *Adibidez, kartzelan bisitak dituzunean ez duzu ateratzen esnea eta berak ematen?*
- K. Ez, orain arte ez dut aukerarik izan ere. Pentsatu dut, e?, badut hemen esnea ateratzekoa, ikusita egon naizela edo bete betea edo jeitsi, ba bah! Momentuan ikusiko dugu beharbada. Nahi nuke, e?, berak emateko.
- G. *Ba bueno, eta nola bizitu dezue jendearen atentzioa zure amatasunaren inguruan? Orokorrean, e?, bai haurdun zeundela edo haurra eukitzerakoan edo... sentitu dezue gehio galdetu dizutela, atentzio gehio eman dizutela horregatik, edo asko begiratu zaituztela edo...?*
- K. Mmm... atentzio gehiago pentsatzen dut baietz, baina pentsatzen dut dela egoeragatik. Zenta ezin duzu jakin zer den ea den batetik amatasunaren hori, edo haurdun izatearena edo... egoera berezi batean bainaiz eta suposatzen duen guztiarekin eta. Beraz atentzioa bai eta mmmm..., me betiko hori, ez da beti atentzioa izan dutenak ere atento, hori segitu dute, erran nahi dut. Gero beharbada batzuk gehiago, ez dakit. Eta beraz ez dakit, bai, bai pentsatzen dut jende batzuen partetik, baina beti hor izan dira ez presente edo galdetuz baina beti hori, eskatzen edo beharbada ez niri zuzenean baina... beraz bai, jendea badudala ondoan eta pentsatzen dut gehiago egoeragatik, gehi haurdunaldia, gehi egoera.
- G. *Gero adibidez jende kanpotar bat edo ez duena ezagutzen zure egoera, edo ni beti ikusten dudala norbait haurdun badut begirada edo... ama zirenean haurdunaldi hortan jendeak beste... uzten zaitu gauza gehiago egiten.*
- K. Uzteko pasatzen edo jartzeko baina ez betti, e?... ez betti. Batzutan eskatu behar duzu, eta jendeak begiratzen zaitu eta gero begiratzen du tripa eta... gero gehiago bai hori segur, e?... eta gero bada hori triparena. Uste dut hortik pausatuko duzula galdera, ez? Ze denak hori eskuak triparen gainera, batzuk eskatu gabe, beste batzuk ez dutela eskatzen eta badira moldeak egiteko. Nik ez dut, e?... nik ez dut hain gaizki, batzuekin bai gaizki bizi izan dut. Eta badakit lehen hilabetetan eta nire ama, adibidez, nire amarekin nintzen sukaldean eta hasten nintzen tripa ikutzen eta bera konturatu gabe hurbildu du bere eskua nire tripatik, eta nik me momentuan, e?... eta bai, bai, zenta nire tripa, eta ez zen oraino borobila eta nik beti tripatsua izan dute ta beraz nere triparen, eta erran: “ze, ze egiten duzu”. Eta momentuan ez da konturatu bakizu, eta ai! barkatu, eta egia da hastapenean ez zen ikutu behar nire tripa. Eta batzuk bai kakingarria zen, batzuk eskatu didate: “ukitzen ahal du?” Eta bai. Eta depende nola ukitzen den, eta batzuk ez dute eskatzen eta hola etortzen zira, eta baina zer da hori?. Eta batzuk eskatu ere baina oso goxo eta beraz ez da bai...
- G. *Eta erditu ondoren? Kimetz sortu zenean osasun langileen aldetikan ze jarrera eta ze laguntza edo sentitu zenun edo batez edo...?*
- K. Ospitalean?
- G. *Bai, adibidez.*
- K. Piskat berezia izan da, zenta erditu dudalarik bete betea zen.
- G. *Aja.*
- K. Bete betea eta ez zuten tokirik deusendako eta beraz ez ziren batere presente. Eta nik, bai erditzeko momentuan eta bai gero, sentitu dut piskat utzia eta hortako momentu piskat zailak ukan ditut ze ez nintzen batere lagundu sentitu. Eta gainera bakarrik izanda, zenta aita ez zen

hor ondoan, besteak badituzte gauean aita hor ere, egunean zehar ere, eta beraz horren aldetik piskat zaila zen. Ni ez nintzen maternitate zerbitzuan, nintzen ginekologian, ze ez zen toki gehiago maternitatean, eta beraz amaginak pasatzeko, pasatzen ziren baina egun batez, adibidez, sortu zen ostiralarekin, ostiral gauean, eta igandean ez nuen amagina bat ikusi, eta maternitateko zerbitzutik ez zuen nehor ikusi. Pediatratik eta neomaternitatetik etorri zire erizainak laguntzera. Baina maternitatetik nehor, eta berak bazuen bakizu hori delarik, horitzen direla, bazuen ainitz.

G. *Bai, iktericia.*

K. Bai, eta berak bazuen ainitz, eta hori estomakian, ez dakit nola esaten dan, mukiak eta, badakizu?

G. *Bai, bai nausea eta eukiko zun.*

K. Beraz hastapenean ez zuen jaten ze estomaka betea zuen eta botatzen zuen ainitz eta hori ez zuen hartzen, eta gero horitasunarekin lo ainitz egiten zuen eta ez zuen jaten.

G. *Bai okerrago.*

K. Eta igande guztia pasa zuen lo. Eta nik, zer dakit nik, esnatu behar dela pixkat hartzen eta justu igande gauean izan nituen esne igoerak, eta titiak puntak ezin hartu eta beraz biziki biziki gaizki eta laguntasunik ez nuen ukan, eta ez nekien batere eta... beraz holako gauza batzutan nere ustez saihesten ahal genituen lehenagotik jakiten eta pixkat laguntza izango banu. Ze izan dira momentu pixkat..., ze nere ustez ekipak onak ziren, e?... Gehienbat momentuan hori dena zen...bete, bete, betea. Astelehen gauean zerbitzua itxi zuten eta amak ez zituzten onartzen erditzeko ez baitzen tokirik inun. Eta erditzeko ere nik epidural gabe egin dut eta zorionez nere ama hor izan dela, ze nik nahi nuen erditu bakarrik. Nahi nuen nere ama ondoan izan lanaren denboran, baina erditu bakarrik pentsatuz amaginak nerekin izanen zirela. Baina azken momenturarte pusatzerako hor ziren, baina lehenago ezin izan dute hor izan eta beraz hor nere ama eta zorionez hor izan dela eta momentuan erran dit: "nahi duzu ni joaitea", eta ni: "ez, hor egon". Ze laguntzarik ez dut ukan eta ama hor, eta zorionez ze bestela ez dakit nola lortzen ahal nuen, ze biziki luzea izan zen, eta pusatu dut ordu batez eta izan da luzea...

G. *Ze kañeroa...!*

K. Bai, lodia baitzen eta ateratzeko zailtasunak. Hola zuen burua eta beraz jotzen zuen eta beraz ez zen pasatzen ertsiago den lekutik... eta ba...

G. *Eta erran duzu bakarrik nahi zenuela, medikurik gabe?*

K. Ez, nehor gabe, amarik gabe, amaginarekin baietz, baina ez nuen ama edo...

G. *Zure nahi zenun, momentu bat zuretzat.*

K. Zen edo Jon edo behor. Eta Jon ez zenez hor.

G. *Eskatu zenuten Jonentzat?*

K. Ez.

G. *Eskaerarik edo...?*

K. Ez, ez nuen ezta pentsatu.

G. *Eta ezin da atera, uste dut Asierrek galdetu nahi duela, Sarak haurra izanen du.*

K. Bai, baina Espainian errezagoa omen da.

G. *Bai, ze Arrasaten eginen dute, bai.*

K. Erresago egiten da.

G. *Orain euki behar du nere bikotekidearen lehengusinak espetxean haurra.*

K. Ai, bai?

- G. *Picassenten Valentzian. Nahiarekin da.*
K. Ai!
G. *Bai, bost lagun daude, lauek ya haurra dute eta Ixiar haurdun.*
K. Ados.
G. *Egon zan Frantzian lehenago, Fresnesen egon zan eta orain han. Bere bikotea ere preso dao eta hori da pixkat... Biak daude eta...*
K. Ixiar nola?
G. *Mujika. Ordiziarra.*
K. Aja.
G. *Beste egoera bereziak, ezberdinak.*
K. Bai hori da.
G. *Eta zuk erditu ondoren senitartekoen eta inguruko laguntza eta nola bizitu zenun?*
K. Hori bai, bai, bai. Nere amak aste guztia pausatu zuen eta gero hemen nire bizitzearena inguratua izatearena, hori da inportantea, eta batez ere hori, bakarrik eta mila galdera dituzu, eta ez dakizu ondo egiten duzun eta. Baina ere momentu batea, hor adibidez jun naiz 10 egun Jon ikustera eta bakarrik berekin eta on egin dit bakarrik ikustea, txikiarekin bideak bakarrik lortzen ditugula eta badakizu. Ongi pasa dugu azkenean, bai gosoan, badira momentu zailak eta leher eginda bukatu dut baina ez ongi, ongi ikustea kapaz naizela eta ez dudala nehor behar gauzak egiteko eta...
G. *Zu haurdun zeundela ere hemen bizi zinan?*
K. Bai.
G. *Eta ospitalean zenbat egun egin zinen?*
K. Egon naiz aste bat kasik.
G. *Ai! Bai, e? Hemen gehio egiten zerate edo?*
K. Ez normalean ni joan behar nintzen astelehenarekin. Salbu nik igandean erran nien ez nuela oraino esne igoera ukan, igande gauean ukan dut. Eta nik igandean erran nien: “ez naizela ikusten bihar joatea, barkatu baina. Ai! Ez, ez lasaia, egiten dugu bihar joaiten bazinen bezela baina”. Eta ikusita bera horia zela eta ainitz zuela egin du fototerapia bi aldiz egin ditu. Ze ainitz zuenez eta hemen bazuen holako (buruan) kaka lodi bat eta beraz...
G. *Bentosarekin atera zuten edo hola?*
K. Zer da bentosa?
G. *Holako gauza bat.*
K. Ez, ez, zen egon baita blokeatua eta beraz jo du..
G. *Kaput esan zizuten?*
K. E?
G. *Kaput deitzen da hori?*
K. Zer?
G. *Euki zuna. Bai.*
K. Kaput.
G. *Bai, izen txungoa da, baina hola deitzen da. Eta erditu ondoren zure bikotea, nola sentitu dezu, zuri laguntzen edo ahal zuenean edo...?*
K. Ongi, e?. Zenta egin dugu lehen bisita bi astetara, berak bi aste zituelarik sartu naiz ostegunarekin eta ondoko ostiralean edo abiatu gira eta ez nekien batere nola egingo zen lehenengoan. Eta biziki ongi, bai. Ba bai, ez, ez. Berak ahal duena egiten du azkenean, bainan

ongi. Gainez hor da, hamar egunez hor nintzelarik berak ateratzen zidan janaria, bo gordeka, ze nik ez nuen denborik deuse, ze hemen erosi nituen bakizu supermerkatuan jateko prestatuak diren ta berotzeko mikroondasean, eta dira kakamierda batzuk eta Jonek ateratzen zidan jatekoa.

G. *Berak egiten zizun jatekoa?*

K. Bai, arroz integrala eta pizzak eta holakoak...

G. Ai, ze ondo...!

K. Bueno ahal duena egiten du. Eta bisitetan ni lo eta bera ttikiarekin eta... (parrak).

Bai aitatxoren besoetan lo, beraz orain... (umea protestaka dago), gauetan egiten du baina egunean zehar... sehaskan kostatzen.

G. *Edoskitzeari ze oztopo, ze alde txar ikusten diozu?*

K. Zer duzu edoskitzea?

G. *Bularra ematea.*

K. Ze oztopo?

G. *Bai, ze alde txar eta ze alde on?*

K. Alde ona da gainean duzula. Gainean duzula, zenta batez ere bisitetan eta yadanik nituen hamar zaku eta gainera biberioia eta dena... imposible. Gainean duzula eta gero

G. *Prestaketa gutxi hori?*

K. Bai. Alde txarra da batzutan ba hori mina duzularik eta han Mulentxen nintzelarik ukan dut bularra betea gehi mina...

G. *Grietak edo...?*

K. Bai. Eta buaf! Eta berak ez zuen tiratu nahi titi hortan, noski eta hola zen geroz eta gehio, eta medikura jun naiz infekzioak eta saihesteko, eta gero dena ondo atera zait, hartu baitu eta hustu, e?... Eta gero bai, bazen zaila ze ez dakizu zenbat hartzen duen, eta hastapenean ea aski hartzen duen eta sobera, ze ez duzu ikusten. Eta batzutan gutxiago duzu ze akitua zira eta gutxiago eta berak gehiago nahi du, eta batzutan beraz bi ordun eskatzen eta fa!, hola. Pixkat hortan erritmoa pixkat zaila finkatzea. Bainan beharbada alde txarra izaten ahal da. Me gauetan hartzen duzu eta prest da, ematen duzu titia eta ez duzu biberioia prestatu behar.

G. *Oso ondo. Eta hemen badaude edoskitze taldeak, elkartzeko da jendea laguntzeko?*

K. Bai, uste dut baietz, baina ez dut maite hori. Ni ez naiz hori badira hori letxe ligue eta holako hori..., ez. Ni ez, zerta, ba! Nik ez dut hori maite, ez zait, zeta hori esnearen titiarena, bularra maite badu ematen, ados, ahal baduzu eta. Baina letxe ligue da kasik hori, behar bat bezala sentitzen eta ama hortan baf!, ni ez naiz... Adibidez, hori nik berari pentsatzen dut abuzturarte emango diodala titia eta gero ez dut nahi bi urterarte eman titia eta ez dakit zer eta ba! Bestela ama bakarrik, ez naiz behi bat. Ematen dugu, goxoan gira biak baina da hori, ez dut ama batzuk bezela txikiak ibiltzen dira ta etortzen dira altxatzen dute kamiseta, ta hartzen dute eta da bere... ,ez. Holako gauzak ez ditut maite, igual aldatuko dut iritzi baina oraingo ez. Beharbada abuztutik, ze irailean hasiko naiz berriro lanean eta beharbada gauean atxikimendu hori usatzeko eta biak, bainan yasta, ezetz. Haunditu behar da eta nere ustez, erraiten du ez du utzi nahi, baina ezetz. Da amaren arazo bat gehiago ttikiarena baino. Ze ttikia azkenean zuk duzu hezitzen eta beraz zuk duzu ohituratzen eta zuk duzu..., zuk erabakiz gero ttikiak egiten du. Beraz ez, letxe ligue eta holako ez, ez.



- G. *Eta euki dezu espero zenuena eta aurkitu dezunarekin talkarenbat? Batzuk esaten dute: “nik hau ez nun espero”. Amatasunaren inguruan ere, esan nahi det, batzuk eukitzen dute talka fuerteak eta hola, zuk euki dezu zerbaiten inguruan?*
- K. Nik gehiago nituen, e?, kezka, justuki nola zer harreman sortzen duzun, bai ta nola sortuko nuen harremana ttikiarekin eta egiten den naturalki. Eta entzuten dituzu gauza pila eta ikusten duzu. Eta beraz horren inguruan kezka batzuk, ze ez naiz gai izanez, ttikiarekin hitz egiteko, bakizu? Ze ni ez naiz biziki adierazgarria, nik ez dut... jendearekin, e?, ez dut erreski egiten. Maite ditut hurbilak direnak eta, baina bestela ez zait ez... eta beraz hor nituen ttikiarekin ba ez dakit. Eta biziki ongi, e? Segitan egin dugu., eta batzuk erraten dute ikusiko duzu tripan hutsune bat sentituko duzu, eta ni atera den momentutik tripa...bai egia da, zenta batzuk erraiten dute ze ongi zen tripan. Eta haurdunaldia ondo bizi izan dut eta ez dut arazorik izan, eta goxoan eta. Batzuk erraiten dute izugarria da, eta ikusiko duzu nik haurdunaldia maite dut. Eta goxoa da eta baina ni ez nintzen geldituko aldi oro. Batzuk nahi dute haurdunaldi eterno bat edo, eta nik ez. Asko gustatu zait, momentu zailak eta akitura azkenean egiten du ainitz. Bainan ez talka handirik ez, gehienbat hori kezka baina buelta eman diot eta azkenean sortu den momentutik gure harremana sortu dugu, eta biziki naturala eta biziki ongi sentitu naiz berekin.
- G. *Eta ze aholku emango zenioke ama berri bati, orain ama izango den bati?, emango bazenion.*
- K. Bai hori da, ze nik ez dakit aholkurik emango nioken. Ze bakoitzak bizitzen duguna desberdina da, egia da, eta haur bakoitza desberdina da, bakoitza desberdina da, eta orokortasunak egitea piskat... Gauza batzutan agian egiten ahal dugu baina..., adibidez, erraitea pisa eta kaka egiten duelarik erraitea ondo dela, nik horrekin hastapenean ya... eta badakizu pisa eta kaka horia eta granoekin eta erran nahi du ondo dela, eta ni horrekin lasaitu nintzen pila. Tontakeri batzuk baina hola. Ikustea pisa eta kaka egiten duela...
(umea protestaka dago eta lotara darama)
- G. *Ezagutzen dezu amatasun intentsiboa kontzeptua?*
- K. Ez.
- G. Ez, esplikatzetuz. Ea zerbait etortzen zaizun burura. Amatasun intentsiboa feminismitik eta definitua izan da zeinak esaten du badagoela amatasun eredu bat etengabe jarri behar direnak haurraren beharrak norberaren beharren aurretik, ama onaren figura, baina ama ona da ama konkretu bat, etengabe ematen ari dena, bere burua beti atzeko plano batean, edaten ez duena erretzen ez duena, zainketa konkretu batzuk ematen dituna, etengabe ama dena, ez duena, o sea, bere bizitza amatasunaren inguruan eraikitzen duena. Eta definitu da piskat bat ikusi izan delako bueno, pertsona batzuk edo sektore batek ere feminismoa ikusten delako emakume batzuei hau eskatzen zaiela, ez? Eta ordun ezaguna egiten zaizu kontzeptu bezela?
- K. Ez kontzeptualki ez.
- G. *Eta praktikoan?*
- K. Praktikoan bai. Hori eta gero eskatzen dena emazteari, baina emazteak berak ere barruan sistemak hori inposatzen baitu emazteak berak egiten duena azkenean. Batzutan eskatu gabe edo, fa! Sistemak eskatuta baina inkonstzientekin ere egiten duguna.
- G. *Norberak bere buruari eskatzen diona.*
- K. Bai, eta erraiten da: “ikusiko duzu haurra eukitzean, izaten da haurra zentrua, zure bizitza guztia”. Noski aldatzen dela, eta beste bat zure beharra duena, beraz zu gabe ez du deus egiten baina...jum.
- G. *Ezaguna egiten zaizu?*

- K. Bai.
- G. *Eta ze iritzi daukazu amatasun eredu horren inguruan?*
- K. Nere ustez ainitzetan ba hori emaztea hortan mugitu nahi dugu, mugatu nahi dugu azkenean, emazte bat hor dela umeak egiteko eta umeak hor direlarik haietaz okupatzeko azkenean. Sistemak hori erraiten digu, baina noski ez dela, ez naizela ados. Emazte bat ez da ama bat bakarrik. Ama bat da baduelarik ume bat, baina ez da behartua gainera umeak eukitzea ere, ez badu nahi. Eta ama delarik emaztea da honaino. Eta gero egia da zaila dela hori egitea ere, e?... Nik ikusten dut hor lehen egunetan edo lehen astetan ez dakit zertan naizen, baina hori umea partez gauzak egiteko ba egitea zuretzat eta da... erokeri bat, e?. Da hori, nik ez dut lortzen, nik badakit gero oroitzen naiz lagun batek ukan zuen umea eta erran zuen: "ikusiko duzu, nik ez dut ezta lortzen dutxa hartzea, eta ez dakit ze". Eta ni hor naiz, nik egunero nere dutxa hartzen dut, ni altxatzen naiz gosaltzen. Batzutan zaila da dena egitea eta ez dizu uzten eta batez ere dena hartzen baina pausatzen duzu bera hamakina, eta esplikatzten diozu eta negar batzuk egiten ditu baina zure dutxa hartzen duzu. Ez dakit bost minutu dira eta fite fite egiten duzu, ez duzu batere gozatzen baina bederen, erran nahi dut, badira extremu batetik bestera ere, bo nere ustez hoherena da erraitea izaitea. Haurraren beharrei erantzun behar duzu noski, ze zure beharra badu baina berak ere ikusi behar du ez dela fa!, ulertu behar du ez dela bakarra eta, eta emazteak ba ama da baina emazte bat da ere, edo batez ere.
- G. *Ordun ez dezu ikusten hor zure burua amatasun intentsibo horretan, ez?*
- K. Ez, beharbada gaur egun bai naiz, gainera bakarrik izanda, asko aldatzen da. Bai, eta noski egun guztia berekin pasatzen dut eta gainera izan dugu momentu piskat zaila eta nerekin izaten dut leku aldaketa anitz, ari da bidaiak egiten eta piskat hola. Eta bez, nere beharra duela eta sentitzen da segurtasun falta hori, e?... Baina ari gara buelta emaiten, e? Baina izan dugu piskat momentu berezi edo zailak.
- G. *Edoskitzea, bularra ematearekin eta amatasun intentsiboarekin ikusten duzu loturaren bat?*
- K. Me, noski haurra duzularik zuri, bortxaz janaria zu zirelarik, bortxaz titia duzu zurekin, beti ukaitea jartzen zaitu. Egia da, hiru edo bi orduro hartzen duelarik ez duzu denbora ainitzik tartean gero zure gauzak egiteko, hori mugatzen du. Hortako batzutan mixtoarena egitea ere, zen egiten ahal da biberioia ere eta bularra eta beraz, bai, bai, bai, noski, noski ez duela laguntzen ez zure momentua kokaitea, bai.
- G. *Kostatzen da tarteko bide bat aurkitzea.*
- K. Bai.
- G. *Eta gizartean ikusten dezu jendea konsziente dela honetaz edo...? Ez bularra bakarrik, e?, dena, amatasun intentsiboaren gaia adibidez zuk zure lagunekin edo ikusten dezu hori badagoela edo asumitzen dela horrela, izan behar duela eta?*
- K. Gero depende ze tokitan zenta egia da kontzientzia duenak edo feminista, haien burua feministatzat jotze dutela, nere ustez horren kontzientzia dute edo ukan beharko lukete. Eta nere ustez denek ez dute. Eta gero orokorrean ez, ez, ze sistemak dizu hori erraiten, ama bat izaitea zer den eta da hori zure haurra zuk zaintzea eta...
- G. Adibidez, hori kontatzen genuna klasean eta zen feminismoa bereizten baldin badegu berdintasunezko feminismoa eta desberdinketarena eta horrela. Badaude adar batzuk desberdinketarenak, alegia nahi dutenak bereizketa markatu bat egitea eta abar, bai aldarrikatzen duna emakume berdina ama berdina naturala. O sea, adibidez, hori testuak eta badaude ekofeminismoan eta horrela... ba bueno badago adar bat horren inguruan.



- K. Bai, baina azkenean ez dut uste feminismoa denik, zenta berriz kokatzen duzu ama etxean haurrarekin kokatua eta funtzio bakar batekin. Eta da berdin lagun batzuk erran zidaten: “satarrak (painalak) nola nahi duzu?, hori ekologikoak garbitzen direnak?” Eta erran non: ” ez, ez, ez”. Ya, zenta hor kokatzen duzu justuki izan zen, ados, ekologikoki ez da batere, batere ona, baina hori emaztendako satar botatzen diren satarrak sortu zirelarik edo egin zirelarik izan zen amarendako kriston askatasuna, zenta ez zira behartua jadanik kriston makinak (garbigailua) egiten dituzula, ze garbitu egunero hiru aldiz aldatu behar duzula eta ez dakit ze, eta gainera satarrak garbitu behar baduzu edo. Ze berez hori amak egiten du, emazteak du egin behar, ze bera da etxean eta bera da..., eta nik erran nien: “ez, ez, nik satarrak botatzen direnak eginen dut, ze hortara kondenatu”. Hortik ez zira ateratzen, eta hori... hola, beraz hori ekologiarri egiten duzu momentu batean tak (begia estali) ez duzu begiratzen eta...
- G. *Koherentzia ezin da bizitzako arlo guztietan mantendu, ezta?*
- K. Ez, ez...
- G. *Zuk eman behar diozu lehentasuna gauza batzuei...*
- K. Bai ze bestela ez zira hortik ateratzen puf!
- G. *Ondo, hoixe zan dana, eskerrik asko.*
- K. Ez da deusetaz.

ERANSKINA 2: Karmeleri bigarren elkarrizketa

2014ko Uztailaren 10ean Baionan

- G. *Oraingoan motxagoa izango da. Lenengo, Kimetzek zenbat denbora du?*
K. Hiru hilabete eta erdi eta egun batzuk.
G. *Oso ondo. Hiru hilabete terdi. Oso ondo. Eta nola elikatze da orain?*
K. Biberioiaz.
G. *Biberoia. Oso ondo. Noiztik?*
K. Bi aste. Aste bat erdi edo bai zenta... (Kimetz negarrez dago bera lasaitzera doa)
G. *Ari zinan esaten bi aste eta erdi daramala biberioarekin.*
K. Bai, hasi nintzen joan den asteartean, aitzinekoan, eh?, ez hau, zenta nahi nun bera aldatu. Hasiko da hartzainarekin abuztuan eta beraz abuzturako nahi nuen ya ez bi gauzak batera eramaiteko. Nik ya aski, ez aldaketak sobera kolpe batez dena. Eta ikusita gero Jon espainaratzen dutela eta ez dakigula noiz ikusiko dugun berriz, nahi nuen berak ere biberioa aukera ukaitea biberioa emaitako. Eta beraz hastapenean nahi nuen lehen bi astetan goizekoa eta gauzekoa atxiki eta ya berak lau aldiz jaten du egunan zehar eta beraz eguerditakoa eta askarikoa ya biberioan, berak biberioa hartzea eta beraz nik hasi nintzen askaria 4etakoarekin, zenta hola segur nintzen Jonek ematen ahal ziola bisitan eta 2takoan ya ez gera gehio bisitan. Eta gauza da hara joaiterakoan geratu ginen goizeko 4etan. Abiatu ginen eta zenta bitan izan behar ginen han bisitarako eta gauza da esnerik gabe egon naizela, gelditu naizela han gosearekin, gose zan. Goizeko 7terditan eman diot titia eta berriz eskatu du 9ak terditan eta gero 12ak terditan eta esnerik ez nuen gehio. Eta beraz biberioa biziki ongi hartu zuen asteartearekin eta beste egunetan ere, eta beraz esnerik gabe nengoenez biberioa eman diot. Beste guztiak atxiki dut halere eta ez nekien zer nuen tititan eta beraz gehitzen nuen biberioarekin ere. Baina zaila da, eta beraz guztiz uzten dut zenta ez dut aski eta beharbada lortuko nuen berriz mantentzea goizekoa eta gauekoa, baina segur ez eta lasai.
G. *Sinplifikatzeko.*
K. Hori da eta segur izateko berak baduela behar duena eta hola eta baina arazorik... ondo hartu du lenengo momentutikan.
G. *Eta ez dizu eskatu bularra?*
K. Ez.
G. *Ze ondo! Eta ez dezu moztu behar izan esnea ordun?*
K. Ez. Bai. Salbu hori ez, egon naiz 24 ordu berantagio banuen min beraz eman diot piskat eta konpletatu dut Eta berdin azken aldian, eman diot astelehenean eguerditan, eman nion igande goizean ze mina nuen eta berak hartuko du eta gero astelehen eguerditan minarekin nintzen eta eman diot biberioarekin konpletatuz.
G. *Ze ondo, ez? Lojicarekin jokatu dezu ebaita.*
K. Bai.
G. *Eta aitatzok eman zion ordun?*
K. Bai.
G. *Eta?*
K. Ongi, pozik zen, esaten zuen biberioarekin ongi zela. Bai, beste zerbait eta. Poz pozik.
G. *Berarentzat kurioa izan behar da, ez?*

- K. Eta bai, maite du zen hola begiratzen ahal du.
- G. *Bai harrিতuta nago, eta nola eusten zaitun. (umea biberoiarekin). Eta aitaxorekin Kimetz ze muz?*
- K. Ondo.
- G. *Ondo, aurreko elkarrizketan esaten zenun hori zela zure kezketako bat eta hori.*
- K. Bai, ez eta ongi, aitzineko bisita noiz izan zen? Maiatzean edo joan nintzelarik izan zen, lehen egunean adaptatzeko hori, egun bat, egun bat erdi eta hor joan naizelarik azkena, bera biziki ongi egon zen. Eta dena biziki ongi, eta bere aitarekin, fa!, goso gosoak izan ziren bisitak eta bai. Zinez ongi.
- G. Ze ondo!. Eta Jonek zekan gogoia bera elikatzeko ere, parte hartzeko?
- K. Bai eskatu zidan ea ahal nuen hori hasi berak eman ahal izaiteko, biberioia eman ahal izatiteko. Eta eman nion noski.
- G. *Eta bularra eman diozun denbora honetan eta nola sentitu zera edoskitzearekin orokorrean?*
- K. Aski ongi. Hastapenean lehen egunetan zaila izan da, baina gero aski ongi pasa dut, ez dut hola... Gero kakingarria dena da, ezin zirela nahi duzun bezela bizitu, zure, karo, haurrentzat ze ongi nahi dudana bezela jutzen ahalko naiz. Ze badituzu kamixeta batzuk ezin direnak bestela hautsiko dituzu edo piskat, eta beraz, me bestela ez. Gosoan. Gosoan. Ez. Bai.
- G. *Eta euki dituzu zalantzekin denbora honetan, hiru hilabete hauetan edo zalantza edo arazo edo dena delakoarekin, nun informatu zera eta hola?*
- K. Badut liburu bat, nere amak eskainia, eh? Eta berak berdina erabili zuen gurekin, eta gero urtero eguneratua da, eta biziki ongi eginga da, eta badittu barnean eta gero bestela, nere amarekin edo hola, nere amari eskatu edo, eta egia da bai liburu hori da per nuv frantsesa da eta hartzen ditu zinez arlo guztiak eta bai, nik nere erantzun guztiak atxeman ditut hortan.
- G. *Ze ondo! Eta jun zera bularra emateko talderen batera edo?*
- K. Ez.
- G. Gogoratzen naiz, e? aurrekoan esan zenula ezetz baina...
- K. Ez, ez, denborik ez eta gogorik ez. Eta beharrik ez, ez, ez.
- G. *Perfekto. Osasun langileekin, erizainekin edo emaginekin edo hola, ze muz bularraren egoera guztia eta?*
- K. Ba ez dakit.
- G. *Asko galdetu dizute edo, esan dizute zergatik utzi dezu edo... biberioia ez eman edo, kontrakoa igual, ba bira?*
- K. Ez, gero ere ez ditut ainitz ikusi. Emaginak ikusi ditut zenta perinea berriz indartzeko eta baina hortaz ez dugu hitz egin. Gero nere medikuarekin, Kimetz segitzen duen medikuarekin, ze nik erran nion nahi nuela eta beraz nola egin eta ez dakit ze, eta berak ez dit, ez, ez, ez ditut, e?... Hori, ta ze nere hautuaren arabera egin dut eta ez zait bate...
- G. *Ez dezu hola sentitu, ez aldeko eta ez kontrakoa? Zure erabakia izan da?*
- K. Bai.
- G. *Oso ondo. Batzuk hor gaizki pasatzen dute... Eta Kimetz jaio denetik eta horrela jendearen atentzioa eta nola bizitu dezu? Batzuk esaten dute hola ez dela atentzioa hainbeste zuregan, dela gehiago umearengan, baina igual hau hola in beharko zenuke, hotza dauka edo gosea dauka, holako atentzio hoiak eta...*
- K. Bai, nik hori ez dut soportatzen, ya besteak lekzioak emaita, ya ez. Ez duena ezagutzen, zuk ezagutzen duzu zure umea, eta aurreko batean bisitan nintzen, itxoiten eta bera akitua zen. Eta

ez zuen lortzen eta justo sartzeko tenorea, zen dela bi edo hiru aste, ez dakit, eta han, eta bera hori, beroa egiten zuen eta ez zen, eta bera akitua eta

G. *Anbiente hirretan...*

K. Eta hor emazte batek, eta beraz, negarrez ari zen, eta emazte batek, hori bero egin behar zuela edo bero ukan behar zuela, eta erran diot: “barkatu baina nere ninia da, ezagutzen dut eta badakit zer duen”. Zenta hori hainbeste entzuten duzun eta hainbeste holan, eta gainera jendeak batzutan lagunak dira eta fa! Depende nola erraiten den, bakizu?

G. *Bai.*

K. Baina nik, izan zen egun batez, hiru aste zituen gainera. Hor ya lasaiagoa naiz, ezagutzen dut eta orain ya ezagutzen dut ta seguruagoa naiz. Egia da hastapenean ez dakizu eta gainean bisitekin ez dakit nola...

G. *Burua daukazu ebai...*

K. Eta bisita baten bukaeran ari zen negarrez eta negarrez, eta emazte batek: “gosea du”. Nik banekien gosea ez zela, ze justo ordu bat lehenago jan zuen. Eta bai, holako negarrak gosearenak dira eta... Bera negar eta negar baina akitua baitzen, eta hori eta beharbada bero eta dena... bakizu hiru ordu eta gero. Eta ba bai, hori gosearena dela eta ya behar nion eta joan nintzen zenta entsegatzen nintzen bera kalmatzen eta etzen hori. Eta buuala, jendeak holako... ez...

G. *Gaizki ez? Nik uste oso gaizki eramango nukela hori. Nere burua ezagututa ez nukelako aguantatuko. Eta gero zuk esaten dezuna, segun nola esaten duten...*

K. Bai. Da erakusteko haiek badakitela edo, ez dakit.

G. *Eta ze komentario entzun dituzu hola bularraren inguruan? Edo igual ez dituzu entzun, e?... baino.*

K. Entzun?... Ez, ez dut uste...

G. *Edo biberiarekin? Ya ez diozu bularra ematen?*

K. Ez zenta, bai ez dut hola ez. Gero denbora gutxi darama eta jende gutxi ikusi dugu.

G. *Karo... ondo. Eta ordun esan dezu aitatzu pozik dagola orain egoerarekin. Bularrarekin ere gustora zegoen bera.*

K. Bai, bai, bai, gero holakotan berak hartzen zuen, entsatzen zen neri emaiten eta hor egoten zen begiratzen eta galdetzen du ongi hartzen dun eta hola.

G. *Parte hartzen beste modu batera ez?*

K. Bai, egia da biberiarekin pentsatzen dut beste zerbait dela.

G. *Gero atxikimendu hori lantzeko igual ez?*

K. Bai. Parte hartze zuzenagoa edo aktiboagoa. Pokerra egiteko berari ematen nion baina desberdina da.

G. *Bai espetxea tarteko beti desberdina da, ez? Bularraren balorazio orokor bat egingo bazenu ze alde on eta txar ikusten dizkiozu?*

K. Alde on da hori dena prest dela hor bertan, gero berekin den harremana edo gosotasuna eta bai. (Kimetzek biberioia bukatzen du) Bai hori berekin den gosotasun hori edo, eta egia da, hori bai neretzat hastapenean bisitetara joaiten zen, orain ya lasaiagoa naiz eta berak guttiago hartzen du ere, lau hartzen ditu egunean, baina egia da bi ordu hiru ordu hartzeko biberiarekin erotzen zira.

G. *Karo, eta hasieran gainera dena hain berria denean. Nahikoa dezu egoera asumitzeakin...*

K. Bai eta gauetan, hor adibidez, ya gauak egiten ditu 8atik 8tara.

- G. *A tope.*
- K. Bai edo 7ak edo... gaua eta beraz gauetz ez diot eman behar. Eta egia da pentsatzen dut biberoina ez nintzen pasako gauak baziren tartean. Bakarrik izan da hori, Jon hor izan bazen agian errexia, ze berak hartzen ahal zuen gauetan, edo bat edo bi, ze berak parte hartzen ahal du bainan hor gauak ezin dira... eta alde txarrak gero titiarena, ez dakizula zer hartzen duen eta beti kezka horrekin zira. Ea aski hartzen duen. Ba bai, eta batez ere hori batzutan ukan ditut jeitsiera batzuk eta beraz buala, kezkatzen aski badut ez dut aski, eta... eta holako gauzeekin. Gehiena hori izan da, ea aski hartu duen eta beraz bi ordutara edo hiru ordutara hori dena den, hori ez dakizu sobera eta batzutan berak negar eta negar eta nahi zuen bakarrik titian pausatu.
- G. *Karo gustora egon igual ez?*
- K. Bai.
- G. *Eta oraingoz bibeoirari ikusten dizkiozun alde on eta txarrak?*
- K. Alde on eta txarrak aitak parte hartzen ahal duela eta ahal du beste norbaitek, ez naizela...
- G. *Edozer gauza gertatuz gero.*
- K. Edonork eman ahal diola eta ez dela nere menpe edo dena delakoa. Eta hori piskat distintzea edo momentu neretzat hartzeko momentuak ere errexago izanen da. Posibilitatea bada.
- G. Karo.
- K. Eta gero hori alde txarrak da askoz gehiago eta berotu behar dela eta pentsatu behar duzu aldi oro, ya baduk gauza berotzeko autoan eta bidairako.
- G. Ai bida!, jo es que dena inbentatua dago, e?
- K. Bai ongi da ze bestela aurrekoan itzultzeko bestela atxeman behar duzu gelditzeko une bat, badakizu kointziditu behar duela bere tomarekin, ez dakit ze... gero hori berak begiratzen ahal du, hori maite du biberoinaz, jeikia da eta begiratzen ahal du.
- G. Bai, ze bestela zu...
- K. Titian zelarik dena da gora begiratzen zuen, gauzak begiratzeko, ez zuen titia begiratzen eta berak maite du begiratzea.
- G. *Bai bai, da kotilla bat, ikusten zaio. Eta esan dezuna, zuretzako denbora hartzearena, zure ustez hori garrantzitsua da ama batentzat?*
- K. Ba bai, aurrekoan joan nintzen, maiatzean joan nintzen depilatzerara. Ez dut denbora hartu ni egiteko gauza aski egiteko eta ya uda zen eta nahi banuen zerbait eraman galtzak aparte, eta beraz joan nintzen nere amak pronatu zuen silletan. Siestaren ordua zen justu eta hiru orduz ibili zen eta ez zen honaino egon ni gabe. Orain egoten da piskat gehiago besteen besotan eta ni gabe, piskat, eh?...
- G. *Kakots artean.*
- K. Baina hor zen ,momentua non ezin ni gabe, eta hor konturatu nintzen nere lehen hiru ordu laurdenak neretzat, bera gabe. Eta bai, bitxi egiten zen. Egon nintzen, jo!, lehen aldia da hiru hilabetez hartzen dudala neretzat denbora eta bai, aurrerantzean ikusi behar dut nola antolatzen naizen baina antxeman behar dut nola.
- G. *Bai, ez? Pertsona batzuei asko kostatzen zaie beraientzat gauzak egitea, ezta?*
- K. Bai. Nik badut lagun bat etorri zen nerekin, ni joan nintzen hamar egunez bisitak egitera zenta bazen bi zubi hainbeste egunekin eta beraz aprobeatzeko. Eta beraz nere anaiarekin etorri nintzan eta eskatu nun Joneren lagun bati eta laguna dena ere etortzea. Eta berak baditu bi ume 7 eta 4 urtekoak, eta lehen aldikoz, etzekien hastapenean etorri zen, lehen aldikoz pasako zituen 2 edo 3 gau beraiek gabe. Eta etorri zen eta pozik egon zen, ze lehen egunean akidurarekin

eta... gaizki. Lehen goiza bizpairu orduz edo gaizki, eta gero ongi, eta erran zidan ze lasaitasun eta estresik gabe eta. Eta kontent zen ikusiz posible zela eta ongi pasa zuela eta gustora. Ez pentsatzea hau egin behar, bestea... bainan eta nik badakit ez dut itxoin behar 7 urte.

- G. *7 urte errex esaten da, e? Asko dia.*
- K. Bai... Ba bai eta neri harritu zidan hori erran zidalarik, ze nik ez... erran nahi du ttikiak ez dutela pasa asteburu bat beren aitaxi eta amatxirekin... pixkat neri bitxia egiten da.
- G. *Eta gainera kuriosoena da gizonak bai egiten dutela, hola orokorrean. Nik historio hauek entzuten ditut eta entzuten ditut emakumeen aldetik.*
- K. Bai.
- G. *Bueno, eta azken galdera. Zu goatzen zera amatasun ereduaz hitz egin genula?*
- K. Bai.
- G. *Eta zuk nun ikusten dezu zure burua, ze eredu praktikan jartzen saiatzen ari zera edo?*
- K. Ez... ez hola, ez, ez dut hola eredu edo ez naiz hamar mila gauza galdera pausatu nere buruari, egiten dut piskat ez dakit... Gero bai, eredu bat badut zenta da nere ustez nere amak erakutsi didan eredu eta hortik da beti, edo bizitzen dezuna erreproduzitzen duzu edo justuki alderantziz egiten duzu edo gauza batzuk hartu edo bota, baina egia da ez dudala... nik beti ongi... Bat egiten dut bizi izan dudan ereduarekin eta pentsatzen dut hori berdin eramaiten ari naizela, eta bai ama naizela baina emazte bat ere. Gero egia da badudala egoera berezi bat eta hortan saiatzen kudeatzen, bai etxean bai kanpoan eta ez dakit, bai momentuz... ez dakit, ahal dudan bezela eramaiten dut. Eta momentuz pozik zenta entseatzen naiz haurra entzuten eta bere erritmoa hartu du eta ikusten da eta lasaia da eta bere gauak hola egiten eta orain bisitetan gosatzen, ya badakit ongi dela, eta beraz erran nahi du gure bide ona hartu dudala eta ni ere ongi naiz, ari naiz pausatzen eta geroz eta hobekio naiz, eta pentsatzen dut ongi ari girela.
- G. *Eta adaptazioa abuztuan da lanean hasten zarelako?*
- K. Ez irailan hasten naiz baina haurtzainak ditu 2 aste opor. Berak hola hartu du, eta hartu ditu bi azkenak eta beraz nik gero hasi behar bainaiz lanean eta beraz hasiko gera datozen bi astetan, abuztuko bi astetan. Gero ni ere oporretara joan gira astebetetz gero bukaeran eta irailan segituko dugu adaptazioa edo depende berak zenbat behar duen, bi aste edo beharbada aste bat bakarrik beharko du, ikusiko bere arabera, bera nola den eta nola hola.

ERANSKINA 3: Leireri elkarrizketa

2014ko Ekainaren 10ean Irunen

- G. *Lehenik eta behin zure profila zehaztuko degu eta gero egingo dizkizut galderak. Zu zera Leire ez?*
L. Bai Leire.
G. *Zenbat urte dituzu?*
L. 35.
G. *Eta Irungoa zera.*
L. Bai, Irungoa jaiotzez eta bihotzez.
G. *Oso ondo. Eta feminista kontsideratzen dezu zure burua?*
L. Ba apurtxo bat bai, apurtxo bat bai.
G. *Eta inoiz talde feminista batean egon zera?*
L. Ez.
G. *Oso ondo, eta zure semea da Harit, ezta?*
L. Bai.
G. *Zenbat denbora dauka Haritzek?*
L. Egingo ditu ya hiru aste.
G. *Eta jaio zen Donostiako ospitalean, ezta?*
L. Bai.
G. *Eta zure bikotea da Landa.*
L. Haritz Landa, eibartarra jaiotzez eta Donostin bizi izandu da urte askoz, baina berez Eibarren jaioa.
G. *Oso ondo, eta oain Lezon bizi zerate hiruak. Eta bi txakur.*
L. Bai hiruok eta bi txakur.
G. *Perfekto. Eta zertan egiten dezu lan?*
L. Orain langabezian nago, duela bi urte ez dudala lan egiten, egin izan ditut hola lan ebentualak, iaz eondu nintzan Oreretako udalekutako begirale moduan lanean eta geroztik langabezian nago, ez det lan egin. Tenerifera jun ginan Haritz eta biok lanan bila, eta bilatu genuena Haritz izandu da. Eta orduan hemen jaiotzean nahi genun eta horregatikan bueltatu ginan.
G. *Ah! bira.*
L. Ze hango osasun zerbitzua ez dauka hemengoarekin zerikusirik. Eta hemen jaiotzea nahi genun, familiarengatik, guregatik... eta horregatikan bueltatu ginan. Bera bai egondu zan Tenerifen lanean baina ni ez, ez zidan ezta ere ezer egiteko astirik eman ze jun eta hiru astetara haurdun gelditu nintzan.
G. *Ze ona!*
L. Bai, azkar azkar. Así que nere haurdunaldia Tenerifen eman nun eta gustora, Tenerifen gustora, beruarekin eta... oso gustora.
G. *Eta Landak orain lan egiten du?*
L. Ez, ez, langabezian dago, ikasketa batzuk egiten eta... bai.
G. *Bale oso ondo. Hori pixkat zuen profila zehazteko. Eta orain egingo dizkizut haurdun gelditu aurretikan-ekoak.*
L. Bai.

- G. *Zu, hola haurdun gelditu aurretik eta zuk ze pentsatzen zenun amatasun batean edo ze espektatiba zenitun edo ze ama eredu izan nahi zenun, edo ze ama ikusten zenitun?*
- L. Begirale moduan egon naiz denbora dexente, orduan ikusi izan ditut ama batzuen jarrerak eta ohiturak eta horrelako gauzak eta ba ni... bai neukan buruan pos hori ni nere semearekin bai apuntatu dezakezula, pos ludoteka batera edo udaleku batzutan baina ez zuk denbora libre eukitzeko baizik eta ba zure semea beste eredu batzuk ikasteko, eta beste haur batzuekin egoteko eta horrelako gauzetako bai, baina zuk denbora libre eukitzeko ez. Hortarako ez euki semerik eta listo ez? Eta karo ni ya badituzt ya ba oinarri batzuk, ez? Ordun ikasketa hoiekin, orduan ba badakit zer garrantzi daukan zuk zure semearekin egotea eta jolastea, ze balore erakutsi. Ez du esan nahi nik pentsatzen dituten baloreak egokienak dirala edo, baina bueno... hori. Ta berarekin pos denbora pasa, ez jostailu bat erosi eta hor utzi jostailuarekin, baizik eta zu berarekin baita ere jolastu jostailuarekin eta berarekin jolastu. Pos hori esan dizutena begirale bezela egon naiz bai udalekutan eta bai ludotekan eta badituzt ya eredu batzuk bai gustatuko litzaidakela, o sea, gauz bat da zuk zure buruan dakazuna eta gero beste bat da praktikan jartzea, baina bai gustatuko litzaidake...
- G. *Espektatiba hoiek, ez?*
- L. Bai hori da hori da. Eta gero ikusten det aita ere nola jokatzen dun berarekin orain gaur egun eta biharko egunean nik uste baita ere berarekin denbora pasako dula eta jolastuko dula eta... sorpresaz izandu da, ez geneukan... Nik ez neukan oaindikan ezer pentsatua.... Bai gustatuko litzaidakela egunen batian ama izatia, bainan ez nun... Badago jendia esaten duna pos oain izango naiz ama, ez? Eta bilatzea diujoazte eta, pixka bat planeatua, eta guretzako izandu da sorpresa bat hola bapatean eta orduan ba ez dakit, bapatean arrapatu gaitu baita ere, eta ez digu ia ba... ideia emateko ezta ere denbora gehiegi eman, zen karo baita ere denbora azkar pasatzen da, eta 9 hilabete luze iten dia baina azkar pasten dia ebai, eta konturatu geaneako Haritz hemen zeon, eta gaude pixkat biak...
- G. *Flipatuak.*
- L. Bai, ze ez zigun ezta ere esan dizutena, dago jendea oso argi dakana, eta esaten duna oain izango naiz ama eta dena planeatua daka, eta guretzat izan da sorpresa, baina bueno.
- G. *Oso ondo. Eta haurdun gelditu aurretik bularra ematearen inguruan ze pentsamendu zenitun, edo biberoiaren inguruan, haurrak elikatzeko moduaren inguruan?*
- L. Haurdun gelditu aurretik?
- G. *Bai.*
- L. Ba nere ustez ba egokiagoa da bularra ematea ez? Naturalagoa da, ez? Azken finean baita ere gizakiaren historioan haurrak bularran bitartez elikatu dituzte, orduan ba nere ustez egokiagoa da. Gaur egun emakumeek lan egiten dute baita ere beste kanpoko faktore batzuk daude non gorputz guztiak ez daude berdin egokituak.... Ze leno zure amak ez baldin bazun esnea, beste emakume bat etortzen zan eta bularra ematen zion haurrari, gaur egun ya gauz guzti hoiek galtzen ai dia. Ni bai egokigoa ikusten det bularrarena, baina gaur egun ya haurra eukita ezin baldin badezu bularra eman, pues...biberioia eman eta punto, baina bai egokiagoa iruitzen zait haurdun gelditu baino lehene ta haurdun geldituta baita ere. Bai, nere nahia bai zan bularra ematea, ezin badezu eman pos ezin dezu eman eta ez zera desesperatu behar ezta ere, o sea, ez da txarra izango, badaudela ume asko biberoiakin handitu eta hezitu dianak baina... bularrara egokiagoa da.
- G. *Oso ondo.*

- L. Naturalagoa baita ere, osteopatak baita ere komentatu zigun: “bularra ematen diozue? Bai, Hasieratik? Bai. Kalostrua eta dena hartu zun? Bai. Ba orduan haurraren flora intestinala egokiagoa da, eta hobeto da haurrarentzat baita ere, bere nola esaten da...”
- G. *Liseriketarako?*
- L. Bai eta...los...nola da...
- G. *Ah! Immunitate sistema.*
- L. Hori da, hori da, hortarako baita ere.
- G. *Oso ondo.Hola eroso zaude? Nahi dezu begiratzea?*
- L. Bai.
- G. *Postura desde luego oso ondo, eta oso ondo zuzendu diozu.*
(bularra nola hartzen du frogatzen degu, aho postura zuzentzen diot, erakusten diot).
- G. *Erditu aurretikan, o sea, haurdun zeundenean informazioa eta nun bilatzen zenun? Edo nun jaso zenun?*
- L. Ba... Tenerifeko emaginak eman zizkidan horrela liburuxka batzuk eta informazio pixka bat eta gero honea etorri nintzenean baita ere hemengo emaginak eta listo. Ez det ezta ere horrela... nola ez nekin nere erditzea nola izango zan, ez nekin ona izango zan, txarra izango zan, erreza, zaila, azkarra, mantsoa... nola ez nekin eta nola ez dakizun nola izango dan azken finean, ezin dezu ezta ere pentsatu edo planifikatu ba horrela izan daiteke eta gero guztiz kontrakoa, eta esan nun, beitu nere burua garbi eamango det eta den moduan izango da. Ospitalean profesionalak daude eta beraien esku jarriko naiz eta den moduan eta listo. Eta eskerrak ez nula pentsatu: “uhhh nere erditzea naturala izango da eta oso ondo eta ez dakit ze”. Ze gero neria izandu zan justo kontrakoa eta oso zaila.
- G. *Forceps eta dena.*
- L. Bai eta orduan pos hori. Ez nun ezer planifikatu.
- G. *Eta prepartoko klasetara jun zinan?*
- L. Bai baina hemen Lezon ere, ez dakit, ze gero bera Landak adibidez galdera asko egiten zizkidan eta nik ez nekin galdera horri erantzun bat ematen, porque... ez nun erantzunik, ba orduan berak esaten zidan: “ba orduan ze egiten dezute hor?” Ba arnasa hartu eta... jendeak asko hitz egiten zun, beste emakumeek baita ere asko hitz egiten zuten, emaginak asko hitz egiten zun, baina azken finean funtsezko gauzak ez zian hitz egiten. Bai jarri zigun bideo bat lactanciari buruz eta...
- G. *Bakarrik igotzen dela titira?*
- L. Bai.
- G. *Denei jartzen dizuete berdina.*
- L. Bai hori da, hori eta gero nola dian, beste bideo bat, nola dian ospitaleko instalakuntzak, nola dian gelak, nundikan jun behar dezun, eta hori, pos ariketa batzuk egiten genitun, non txorkatila mugitu... ni jun juten nintzan, baina balioko zian edo ez... hor ya....
- G. *Oso ondo. Eta erabaki zenunen esan dezu ez, pos ni saiatuko naiz eta ezin baldin badet ez da ezer gertazen, ba Landaren aldetik ze jaso zenun?, berak ere nahi zun edo ez zitzaion inporta?*
- L. Berak ere nahi zun, baina berarentzat ere pixkat ezezaguna da guzti hori... Bai, bere iritzia da, nere berdina zan baina baita ere azkenian zure esku uzten du, azkenian zu zure ez da nere erabakia bakarrik, beria ere izan daiteke, baina hori pues nere ahalmenen barruan edo, ez?
- G. *Oso ondo.*
(Kimetzek bularra uzten du, eta titiburua konprobatzen degu, aholku batzuk ematen dizkiot).

- G. *Eta norbaitengandik sentitu zenun presioa bularra, biberoia...? Batzuk esaten dute: “jo pues eske neri esaten zidaten etengabe hoberena zela hori... edo...”*
- L. Ez... nik ez diot inori kaso egin, ez, ze azken finean zu zera hartu behar dezun erabaki bat da, ez? Besteek ez dute zuregandik lanik egingo, ez diot inori kaso egin ezertan.
- G. *Bai gauza bat da titia, beste bat que le tienes que tapar que si... denetik. Baina entzun dezu edo ez? Agian ez dezu kaso egin eta...*
- L. Ez, neri horrela gehien esango dizun pertsona, nere ama edo bere ama, azken finean ama izan dienak baita ere, eta ez digute ezer esan, horrela ezer...
- G. *Bai ez dira tematu igual zerbaitekin ez?*
- L. Ez.
- G. *Eta haurdun zeundela eta nola bizitzen zenun jendea egotea, edo behin Kimetz jaiota ere begiradak eta gauza hoiek. Adibidez batzuk esaten dute haurdun nengonean mundu guztiak ikutzen zidan tripa edo... sentitu zenun holako zerbait?*
- L. Ez... jendeak bai ikutzen dizu tripa eta, baina neri ez zitzaidan inporta. Bazegon jendea etortzen zela eta: “igual no te gusta que te toke la tripa, pues no, no me inporta”. Neri ez zitzaidan inporta. Gero ya bukaeran astuna zaude, eta ya ez dezu ezta kalera atera nahi, jendea ya... eta ze, ya a punto egingo zea ez, ez dakit ze bakit ze? Eta pixkat nazkatua, pos noski baietz, ez dezu ikusten nola nagon, ze nazka aurpegia dakaten, ba noski baietz, ateatzeko gogoakin. Eta gero behin ya Kimetz jaiotzen dela., lehenengo egunak, esaten dezu udaletxea jun behar det, plazan dago udaletxea, eta hemendik plaza, zenbat jendekin gurutzatu naiteke, eta nahiz eta erlaziorik ez euki jendea etortzen da, eta a ver, ya lo has tenido, a ver que bonito, lo puedo ber? Batzutan bai eman didala gogoia esateko, se ve pero no se toka. Baina bai, bai harritu nau hori, ez? Adibidez, haurdun egonda ez, badago jendea agurtzen dizuna eta listo, baina behin haurra jio dela, jendea ez daukazuna inongo erlaziorik, kaixo agur, herritikan ezagutzen dezulako, eta etortzen dia, ai enhorabuena, eta... bai harritu nau jendea zea hoi.
- G. *Pixkat bilakatzen zera centro ez? Eta sentitzen dezu jendea begira eta...*
- L. Bai...
- G. *Gero askok esaten dute autobusean eta horrela umea negarrez hasten denean eta... denek begiratzen dutela eta...*
- L. Hombre negarrez hasten baldin bada neri ez zait gertatu ze zortea dakat eta Kimetz txintxua da, baina nik uste det gehiago dela zuk uste dezula molestatuko dezula, ez? Gehiago uste dezu zuk molestatuko dezula, gero azken finean ulertzen du, ez dakit nork komentatu zian aurrekoan ere, hegazkinean jun behar badezu egokiena dela sartu eta kaixo, kaixo, zure inguruan dauden guztien agurtu haurrarekin bazoaz, ya pixka bat hor. Que vengo con un niño, ez? Eta ya besteak jartzen diala pixka bat posturan eta ulertzen dutela, eta negar egiten badu negar egingo dula. Nik hegazkinean jun naizenean eta onduan haur bat tokatu bazait batzutan ya iristen da, segun eta zenbatekoa dan bidaia iristen da pixkat...
- G. *Nekatzen zera...*
- L. Bai, bai, baina ulertzen da, ez? Ulertzen da... Bai tokatu zait ere okerragoa zala aita haurra baino.
- G. *Eta erditu ondoren, adibidez, osasun langileen aldetik ze jarrera eta ze laguntza eta sentitu duzu bularra ematearen inguruan?*
- L. Ospitalean? Oso ondo, oso ondo, oso ondo, oso ondo... baina zentzu guztitan.
- G. *Benetan?*

- L. Bai, ingresatu genunetik handik jun ginan arte, oso ondo egia esan. Bai emaginekin, bai erizainekin, denekin oso ondo. Landak eskerreko eraman nahi zun. Zer esan zenun eraman nahi zenula, plaka bat edo argazki bat... Argazkitxo bat.
- G. *Jendeak eramaten du.*
- L. Nik justu ezagutzen ditut erizain batzuk, eta beraiek eukitzen dabe box edo bere eston, pos agradecimientos, edo umeak egindako argazki bat edo...
- G. *Eukitzen degu bai. Eta gero hemen emaginekin eta sentitu dezu lagundu dizutela titiarekin eta?*
- L. Bueno, bueno... a ver, jakin asko daki, ze ya hogeitapiko urte darama, ordun jakin asko daki, eta ospitalean egondu da lanean, ez bakarrik hemen kontsultan, baizik eta ospitalean ere, baina... pixka bat gaisetikan begiratzan dizu. “Ah!, ondo hartzen dizu”, fijatu zan ea haurra nola mugitzen zun burua eta matrailhezurra, eta “te coge bien te coge bien”, ez zun begiratu zuk begiratu dezun bezela adibidez. Baina bestela berekin ni oso kontent nago. Eta gainea gauzak oso ondo esplikatzan dizkizu, baita ere zuk ulertu dezazun eta inportantea da hori ere.
- G. *Badago hemen taldea, esan zenun zu egon zinela behin eta egon zinen bakarrik, ez?*
- L. Bakarrik, badirudi jendea ez dihoala.
- G. *Ah!... Batzutan funtzionatzen du oso ondo eta bestetan ez. Asko izango da pertsonaren arabera edo ez dakit. Batzuk esaten dute asko balio izaten diela terapia moduan, babesa sentitzeko eta.*
- L. Bai ni pena horrekin geatu nintzan, ze jun nintzan eta emagina eta biok egon ginen bakarrik. Ondo ze neretzako bakarrik zeon bera, baina bai gustatuko litzaidake jun eta beste batzuekin egon eta komentatu, ni hau eta ni beste hau, ez? Beste ama batzuen iritzia entzutea baita ere askotan balio zaizu.
- G. *Ez zera hain bakarrik sentitzen ebaita.*
- L. Bai bai bai, hori da.
- G. *Eta senitartekoen aldetikan esan dezu zure ama etorri zela astebete laguntzera, ez? Qué bien!... edo bueno ez dakit ondo ez, imaginatzen det.*
- L. Primeran, primeran, primeran.
- G. *Ze ondo!*
- L. Ba bai, asko lagundu zigun gainera, asko, asko.
- G. *Baina ya, e?... aste bete eta lixto.*
- L. Bueno berak baita ere esan zun: “ya estoy empezando a ser una sombra sospechosa...” Pero ya le costo darse cuenta... Baina bera ez da tontua, konturatzen da, aste bete nahikua dela, eta iristen dela egun bat non ya guri bakarrik utzi behar gaitun ze guk ya gure bizitza in behar degu, hemen dago hasiera batean guk martxa arte, ni pixka bat errekuuperatu arte eta lixto...
- G. *Oso ondo. Eta edoskitzea ze oztopo euki dituzu? Bururatzen bazaizu. Batzuk ez dute oztoporik, e? Baina batzuk esaten dute grietekin oso gaizki, edo beste batzuk esaten dute mastitis bat eta horrekin un bajon... edo klean oso gaizki pasatzen nun edo...zuk euki dezu?*
- L. Ez... Bueno mina, daukaten mina, pos hori sentsibilitatea handia eta mina, hori da orain dakaten oztopo handiena. Kalera ateratzea eta ez zait inporta.
- G. *Hasieran esnea ez zitzaizulako igotzen ebai, anemia zeneukala eta...?*
- L. Bai nik uste ni ez neola ondo eta pixkat kostatu zitzaiola, sukarrakin neon...
- G. *Bai... Zuk euki zenun paliza...*
- L. Eta hasieran ematen zun ez zuela nahiko jaten galdu zulako... Eta eman genion suplementoa, baina gero segituan, e?... biberioiak erosi eta hurrengo egunean hasi zan ondo hartzen. Mekauen la leche. Biberioiak erosi genitun, esnea hauts hoietan, ez dakit ze, termua ura...eukizteko...

Amonak erosi zun, e?... Bai baina joe, erosi zun eta azkenean... hombre hobeto... azken finean hor dago ez, eta erabili behar badezu erabiliko dezu. Eta plana egin nahi badezu lagunekin eta ni etxean geratzen banaiz, ba biberoiakin moldatuko gea, ez? Tampoco tienes que estar esclavizada, ez? Ay! el niño el niño...

G. *Sacalechesa badakazu?*

L. Bai, baina ez degu probatu ezta. Ez, probatu genun Kimetz jaio baino lehen... eta uh! Ze mina iten dun katxarro horrek (parrak). Es quee gu ere bai... Ni jarri ta plaf plaf... e?, para, para (parrak) Mina, min handia eiten du...

G. *Ze marka da?*

L. Avet edo hori...

G. *Es que hor batzuk segun titia, ez? Esan nahi det tailak daudela, "de la tronpeta" esaten deguna, ordun igual mina ematen badizu da ez dela zure taila, izan daiteke.*

L. Ez, baina gauza zan oaindik ez neukala...

G. *Ya ya...*

L. Txilborretik ere entxufatzen badiozu....

G. *Ya... oso ondo. Eta ze abantaila ikusten dizkiozu edoskitzeari?*

L. Denak... eroso, praktikoa, gero baita ere Kimetzekin lantzen dudan apego nola esaten da?

G. *Atxikimendua.*

L. Ba hori... Gehienbat gustatzen nauena hori izan daiteke, berarekin hartzen dudan atxikimendu hori... Gainea bai emaginak komentatu zun oso inportantea da, eta gero irakurri izan ditut lagun... Amaia, ezagutzen dezu, Pasaiako Amaia? Malen kuadrilakoa?

G. *Pos jakingo det zein den baina izenez ez...*

L. Bueno, pos hezkuntzaren inguruan zerbait ikasten ari da, eta berak galdera pila bat egiten dizkit ze berari baita ere interesatzen zaio ikasten ari denari buruz...

G. *Pedagogia, ez?*

L. Pedagogia? Es que ez dakit zehazki zer ikasten ari dan... Ba komentatu nion atxikimenduari buruz, eta justo bera Elsa Punseten liburu bat irakurtzen ai zan eta baita ere horri buruz hitz egiten zun eta bidali zian argazkia, pos parrafo batena eta bai daukat barruan oso sartua atxikimenduan zea hoi... eta bai saiatzen naiz pos ni bularra ematen diot eta Landak baita ere haurra eukitzea, pos nik oain dakaten bezela, normalian nik ematen diot eta segituan haurrari pasatzen diot haurra.

G. *Biok eukitzeko.*

L. Bai oi da... ez da neria bakarrik, biena da, orduan...

A. Gainea nerekin nahiago du...
(parrak)

A. Nahiago du nerekin egon...

L. Bai... eta... bai daukat nahiko sartuta lotura hori eh! Aitor

A. Bai, garrantzitsua da ez?

G. *Egin dezue piel kon piel aitaxorekin ere?*

L. Bai...

A. Bai... piel kon pelo..
(parrak)

A. Bai oso lasai geatzen da, segituan lokartzen da, uste det bion bihotzan soinua ezagutzen dula edo, ze segituan geatzen da.

- L. Eta arnasarekin ere, gora behera horrekin gelditzen dia...
- A. Bai, gainea hemen kriston gora behera daka ze dakat petsua handia... eta segituan geatzen da...
- G. *Eta bularrarekin euki dezu espektatibekin edo talka bat, o sea, zuk esperotakoakin eta aurkitu dezunarekin euki dezu txokeren bat? Ze batzuk esaten dute: "nik hau uste nun errexagoa izango zela edo..."*
- L. Ez bakarrik ez nula uste hainbesteko mina sortzen zuenik, baina bestela ez. Ez nulako nere buruan ezer ezta ere...
- G. *Bai esan dezunagatik.*
- L. Bai orduan nahiko irekian daukat, buruan pos a ver nola etortzen dian gauzak eta etortzen dian heinean jungo gea aurrera eramaten. Baina minarena ez nun uste hainbesteko mia ematen zuenik, edo titiburua hain sentsible geatzen zienik, hori bai, baina bestela... ondo.
- G. *Oso ondo. Eta...*
- L. Agian suertea dakat eta nei dena nahiko ondo juten ai zait edo nahiko errexu, orduan ez det inongo arazorik eta oztoporik ikusten horregatik.
- G. *Osea balorazio orokor bat egiten badezu balorazio on bat egiten dezu?*
- L. Bai, bai.
- G. *Eta eukiko bazenu gertu norbait euki behar duna ume bat ze aholku emango zenioke horren inguruan, emango bazenion?*
- L. Ba bere burua nahiko irekia eukitzea. Eta ez sartzea inungo espektatibarik ez ezer, ze ez dakizu inoiz nola jungo zaizkigun gauzak, edo nola izango dian gauzak. Bai se es que bestela... zure buruan gauzak esaten dituzu eta gero ez dia nahi bezela ateatzen, orduan hor etortzen dia frustrazioak eta desesperazioak, eta guzti hoiek, eta pixka bat irekia bazaude, eta gauzak etortzen dian bezela eramaten badituzu, pos nik uste errexago eramango diala gauzak, eta lasaitasuna eta pazientzia. Nola zan hori... "depresión es exceso de pasado eta ansiedad exceso de futuro". Ansiedad exceso de futuro, ez qué va a pasar eta...ufuf, lasai! Hay que vivir el presente.
- G. *Oso ondo... eta ezagutzen dezu amatasun intentsibo kontzeptua?*
- L. Ez.
- G. *Esplikatu dizut. Feminismoan eta asko eztabaidatu da amatasunaren inguruan, azkenean logikoa da, ez? Emakume izatearen inguruan asko eztabaidatu da eta horrek ekarri du bere baitan amatasunaren inguruan ze eredu dauden, sistemak zertan bideratzen dun eta abar, ez? Eta definitzen da badagoela gizartean edo badagoela ama eredu on bat, o sea, ez du esan nahi existitzen danik, o sea kontzeptu bezela badagoela ama korrekto bat esango degu, eta pos hor ama hori da beti haurra jartzen duna aurretikan, inoiz bere beharrak begiratuko ez dituna, beti begiratu behar duna besteengatik, ezin du erre ni por asomo, ezin du edan... ezin du kalera atera.*
- L. El ideal de amatxo.
- G. *Bai, el intentsibo baina... baino gero igual batzuk esaten dute: "nei kontzeptu bezela ezaguna iten zait baina iruitzen zait irreal". Zuri ze iruitzen zaizu, hau esaten dizut eta zer etortzen zaizu burura?*
- L. Ba ez zaitela irreal iruitzen.
- G. *Oso ondo.*
- L. Bai zure semearengan pentsatu behar dezu eta badaude lehentasunak baina zuk zure buruan pentsatu behar dezu baita ere, ez? Agian erretzearena eta hori ez, baina zuk zure bizitza

jarraitzen dezu eukitzen, ez? Orain bai oso txikia da, zure beharra dauka orduan ba zuk in behar deu pixka bat zure bizitzako gauza batzuk ez dena ezta ere, gauz batzuk aldera utzi eta berari lehenatasuna eman baina ezta ere pos hori, zuk zure burua maitatzen eta lantzen jarraitu behar dezu, ez? Ez da zuk ya ahaztuta gelditzen zea eta dena berarentzat.

- G. *Eta iruitzen zaizu kontzeptu hori badagoela pixka bat emakumeari exigitzen zaiola estriktoki hori jarraitzea baina bai pixka bat bideratzen dela edo gizarteak esaten dula ama ona izatea zer den?*
- L. Bai...
- G. *O sea, igual ez zaizu iruitzen esta todo correcto eh... batzuk esaten dute: "nik ez det nere burua horrela ikusten, baina bai ikusten det epaitzen dutela emakumea asko".*
- L. Bai, bai
- G. *Bere ama izateko moduagatik.*
- L. Bai bai.
- A. Nik bai ikusten det hori. Que mala madre edo, hori...
- L. *Eta nik entzun izan ditut gauzak baita ere, nei oaindik ez zait gertatu oaindik goizegi da, baina agian lagun abtek, ui y no llevas bodis de recambio, pos vaya, o no llevas ropa de recambio, pos vaya, cómo le llevas asi...*
- G. *Bai... horrelako gauzak.*
- A. *Leireren ama ere, ai, txakurra txakurra! cuando se vaya ya haremos vida normal, ze txakurrak hemen bizi dia eta zikintzen bada zikindu dia eta gero garbituko da, ezin da burbuja batean bizi, eta txakurrak familikoak dia, eta cuando se vaya la amona ya haremos vida normal. Eta ai, que se ha manchau! Utziyozu, ze bizitzan hainbeste gauza pasa behar ditu... hori ebai, eta gainea etxean bizi dia txakurrak... baina bueno... salto generazionala ere asko nabaritzen da eh...*
- G. *Bai...*
- A. Joe....
- G. *Bai...*
- A. *"Cómo que vais a ir a Costa Rica? Me dejais a mí el bebé? Si amona, si... tu hubieras dejado a tu hijo con alguien recién nacido? No, ni loca! Pos hori..."*
- G. *Costa Rikara zoazte?*
- A. *Nahiko genuke... anai bat dakat hor, eta semeakin eta emazteakin, lanea jun dia eta bixitan edo... ze oain juten ez bagea... igual hay que aprovechar...*
- G. *Oso ondo, eta ikusten dezu loturaren bat hori bularra ematearekin, ama eredu on hori? Sin más, e?... ez pentsatu bilatzen detela bai, o sea...*
- L. Ya... Ez... (Leire asko moztu da bere amaren komentarioak entzun eta gero)
- G. Oso ondo...
- L. *Gero baita ere askotan ezin dezu gauzak gehiegi planeatu, ez dakizu hemendikan hilabete batera, urte batera nola izango zean... orduan... orain modu batera pentsatzen det eta erantzun bat eman dezaket eta agian hemendikan hilabete batera edo urtebete batera aldatzen da..."nunca digas nunca jamás..."*
- G. *Oso ondo. Ba hori zan dena. Amatasun intentsiboaren gaiarekin bukatzen det ze da gai bat asko idatzia dagona, nik ez nekin, baina da gai bat que levanta ampollas...*
- L. Bai ze ama on bat izatea zer dan non dago idatzia, ez? Zer dan egokia eta zer ez dan egokia? Hori da bakoitzaren baitan, ez? Bakoitzak daukan bizimoduaren baitan eta pentsakeraren baitan



ez? Neretzako ona dena zuretzako ez da ona, orduan... besteei edo gizarteak zer dan amatasun on bat esatea...

- G. *Gainea gaizki eramaten degu gauzak inposatzen dizkigutenean, ezta?*
- L. Bai, bai, gainera hori...
- G. *Ba hori da, mila esker.*
- L. Ondo, ondo, zuri Garazi.

ERANSKINA 4: Naroari elkarrizketa

2014ko ekainaren 16an Hernanin

- G. *Lehenik eta behin komentatuko degu zure profila eta gero galderak momentu ezberdinen inguruan batez ere Saioaren inguruan.*
- N. Bale.
- G. *Nahi badezu oraingo haurdunaldiaz hitz egin ondo dago, baina batez ere da Saioaren prozesua gogoratzeko.*
- N. Ondo.
- G. *Zu zera Naroa, Egiakoa zera, zenbat urte dituzu?*
- N. 36.
- G. *Saioak laister hiru urte egingo ditu.*
- N. Hori da, abuztuan.
- G. *Eta elikatu zen biberoiarekin, ezta? Oso ondo. Eta talde feministaren batean egon zera inoiz?*
- N. Bai, Bilgune Feministako kide izan naiz eta jarraitzen det izaten. Momentu honetan sarean, baina bai.
- G. *Eta urte dexente daramazu militantzian orokorrean.*
- N. Bai, bai, bai.
- G. *Ordun ikuskera feminista bat daukazu.*
- N. Bao gauza bat da talde feministan eta beste bat jarduera politiko guztian ikuspegi feminista, eta emakume bezela egin ditugun hausnarketa eta ariketa guztiak. Betaurreko moreekin, pa lo bueno y pa lo malo.
- G. *Zu lehenengo aldiz haurdun geratu aurretik gogoratzen zera ze ikuspegi zenekan bularra ematea edo biberoiaren inguruan?*
- N. Bai goatzen naiz, goatzen naiz oso ondo ze, bida nere amak neri eta nere ahizpari biberokia eman zigun, eta egia da nere inguruan izeba eta lehengusu artean ikusi izan detena orokorrean biberoiaren aldeko edo erabilerarena izan dela. Eta gainera ni haurdun geratu aurreko lau, hiru, bi bat urtetan nere ingurunean haurdunaldi eta amatasun ugari egon zian ze, ba adinari lotuta eta gehiengoa bularraren aldekoa zan. Ordun, nere inguruan gertatu zaidana izan da ikusi detela gainera bularraren aldeko oso jarrera hori, zorrotza, itxia, eta inkluso nere ikuspegiaren aldetik, e?... ez aproposaren hori ez, ordun bai, o sea, neukan, nik onartzen det neukan jarrera inkluso itxi bat horrekiko, pos las de la liga de la teta auzoan en plan kuadrillan... eta abar, o sea, nahiko jarrera aurkakoa neukan. O sea, gero egia da haurdun gelditzen naizenean eta momentu batean egiten detela hausnarketa ere pos agian ikusteko bularra ematea ez dela era horretan egiteko aukera bat, baina garai horretan bai, neukan jarrera aurkakoa inguruan azken urteetan ikusi nitun kontuengatik.
- G. *Eta haurdun gelditu aurretik ere ze ama eredu zenitun buruan?, ze batzuk esaten dute: “bida nik argi neukan holako ama ez nula izan nahi”. Gero auskalo nola garatzen dezun zure amatasuna, baina zuk ze espektatiba zenitun zure amatasunaren inguruan?*
- N. Nik hor, amatasunaren inguruan neukan espektatiba zan, o sea, kriston bizipena izan behar zula eta izango zala, o sea, neretzat kristona zan penstatzea eta orain izan dela ez nola holako animala txiki bat hezten dezun ikasten dun, o sea, erakusten diozun, ze aurrerapen ematen ditun

eta abar, eta horrekin, o sea..., ikusita hori argi neukan denbora bat dedikatu behar zaiola. Zure bizitza aldatzen dela, ez? Eta hainbat kontu... baina ere argi neukana zen, o sea, pertsona bezela, Naroa bezela, emakume bezela, nere bizitza egin behar nula, nahi nula eta interesgarria zela ere eredu hori garatzea, bai ordun bai haurdunaldian eta baita ere gero, o sea, beti landu deten gauza bat da. Bai ama naiz eta bai noski, nahi det dedikatu denbora nere haurrari, nere bikoteari bezela, kasu honetan bikotea daukadala, baina nahi det dedikatu denbora bai nere lan munduari, bai nere aisialdi eremuari bai nere militantzia ereduari nere kasuan.

- G. *Eta ze eredu ikusten dituzu daudela gizartean?, horrela gai baldin bazera sailkatzeko. Batzuk ikusten dute super argi...*
- C. Nik ikusten det dagola eredu bat ama eredu bihurtzen dena. Eta neri arriskutsua iruditzen zait. Ze gainera ingurunean ikusten det jende asko mugimendu feministatik inkluso datorrena, o sea, gainera hori ama ereduaren barruan ikusten ditut bi: bat planteatu ere egiten ez dutenak, hau da ama dira beraien funtzio ardura eta egin beharra da eta ez dute ezer kuestionatzen. Eta noski batzuk agian landu juxtua dakate eta besteek ez dakate ez aisialdirik, ez beste nolako espaziorik, eta gero badago beste jende bat eduki duna bere espazioa, o sea, pertsona bezela eta emakume bezela bere garapena eta bere egitekoak, eta guzti horren gainetik jartzen dula amatasuna. Eta bueno nik hor eta nire iritzia ikusten ditut hutsuneak, ze bat momentu honetan iruditzen zait dela egiteko era bat beste hutsune guzti horiek tapatzeko eta bi ikusten det ere haurrak gaztetxo egiten direnean momentu batean zure behar pos gutxiago dutela normala den bezela haur autonomoak sortu nahi ditugun momentutik, eta askotan emakume hauek egiten dutena da hori tapatzeara, begira bere egotearen behar hori behin eta berriz, behin ez berriz azpimarratu beraien bizitzak zentzua eduki dezan beste guztia utzi dutelako alde batera. Eta gero, ez dakit honekin dijoan, baina nere ustez hor dijoa beste kontu bat eta da gauza bat da ama baina haurraren inguruan nik uste beste zutabe batzuk sortu behar direla eta izan daiteke aita edo beste ama edo dena delakoa edo biak aita hor ya ez naiz sartzen, baina gero ere nere ustez haurraren garapenean proportzioan senideak, lagunak... beste erreferentzia batzuk egitea ona da eta beharrezkoa da, komunikaziorako garapenerako eta abar. Eta hor e bai nik uste jokatu behar degula beraiekin. Hori izan zan eredu bat. Bestea izango zen ni saiatzen naizena garatzen eta argi eta garbi esaten dizut kriston buruhausteak sortzen dizkizu, kriston gatazkak zure buruarekin, kriston ariketak in behar dituzu, batzutan sinplifikatzen ikasten dezu baina, o sea, ez da errexia, porque egia da jendartearen artean eta sozialki bueno neri asko esaten diate: “qué suerte dakadan, ze suerte dakadan, ze Saioa geratzen da edonorekin, ze Saioa lasaia da, zeatikan ondo montatzen det”. Karo nik beti esaten det gauza da antolatzea eta erabakiak hartzea eta jakin. Berririo esaten det nere bizitza pila bat aldatu da eta gustatuko litzaidake gauza askoz gehiago egitea eta askoz leku gehiagotan egotea eta izango zan hori lan egiten det, lehen baino gutxiago, eta egia da, ze nik nere kontu lan egiten det, o sea, ez dakat jornada erreduzitu bat, baina egia da lehen baino askoz ordu gutxiago lan egiten detela, proiektu batzuei ezetz esaten diedala, kontuan hartzen detela edo saiatzen naizela goizetan, ahal den heinean asteburuak ez, ba lehen egiten nun bezela atxaldeak edo asteburuak edo antolatzen. O sea, hori bat eta gero bi, e?.... beste arlo sozial edo militantzia proiektio guzti horri lotua ere. Lehenengo urtean egon nintzen nahik geldi edo, orain ere Ortzirekin plan hori daukat, o sea, urtebete edo, ez ba zentratzea zeatik, egia da lehenengo urte hori klabea dela, baina gero berrartzea eta hor berdin ez, egiten det, o sea, lehenengo nere buruarekin ditut gatazkak baina sozialki ere ez direlako baliabideak jartzen amak militatu edo parte hartu ahal izateko. Ze jarraitzen degu

berdin, ze mutilak aitak izan daitezke eta ez dago inolako muga arazorik, ez ordutegiakin ez ezerrekin baina hemen jarraitzen dute gauza gehienak arratxaldeko 7 terditatik, 8atik aurrera izaten, ezustekoak daude eta beraz urgentziaz jun behar da, ez dakit ze eta... hori dena. Eta gero hirugarren eredu badago nere ustez, eta da bueno pues haur bat edukitzen dezu ez eta jende bati ez zaio bizitza aldatzen, o sea, amatasun perspektiba hortatik. Ez zaio bizitza aldatzen ze berak jarraitzen du lan egiten, kirola egiten, bere espazioak edukitzen ez dakit ze, eta normalean haur horren zaintza beste pertsona batzuen eskutan uzten du. Eta nik hor ikusten ditut oso emaitza ezberdinak, o sea, bat bere buruarekin gatazkak dituna, beste jende bat ez dituna eta... eta bueno nik pixkat hiru hoietan sailkatuko nituzke...

G. *Eta lehenengoa da pixkat esaten dezuna, sistemaren eredu edo dena, ez?*

C. Bai es que batez, o sea, ere errepikatzen dena historikoki eta nik esaten degun mugimendu feminista horretatik edo ikuspegi feminista horretatik, o sea, beste aldaketa pila baten alde borrokatzen ai gean bezela, nere ustez amatasunaren gaian ere hori aldatzearen aldekoa izango litzateke. Eta egia da oaindik kopuru handi bat ere ama geanak bikote mutil batekin geala ordun egia da nahiz eta saiatu, o sea... eta nahiz eta mutilek duela 20 urte edo 10 baino askoz gauza gehiago egin, hau da, biberioa ematen zion, o sea, arduratu da bazkaria emateaz, hartzen du lo jartzen du berarekin ni bezela, baina badaude mila gauza, e?... zure gain jarraitzen dutela erortzen, ze emakumeak gera, nahiz eta gu gure buruarekin borroka egin, ardurak hartzen ditugu, bisualizatzen degu, planifikatzen degu ez dakit ze, egia da egiten dute baina zuk antolatzen dezu. Eta de hecho ingurunean, o sea, nere amak, nere aitak, nere bikotearen amak, bere aitak gainera fokalizatzen dute zuk egin behar dezun hortan. Ze gainera nik daukat kriston suertea daukadan bikotearekin!

G. *Eskerrak eman behar dizkiozu!*

N. Hori da... eta atentzio pila bat jarraitzen dit deitzen ni nagonean momentu batzutan bakarrik ,eta ez da bakarrik helduen gauzak, edo gizon helduak. Bai gizon helduak, bai emakume helduak, bai gizon gazteak eta bai emakume gazteak galdetzen diate nun dago Saioa? Eta nere bikoteari kalean bakarrik ikusten dutenean ez. Edo nere bikotea ateratzen bada, normalean bera juten da asten egun bat hortikan edo pintxopotera edo pote batzuk hartzera eta ni beste egun batean hori saiatzen gera egiten, eta berdina da, neri da como: “qué bien, e?, ze ondo antolatzen zean!” Eta berari ez.

G. *Eta ikusten dezu lotura bat sistema patriarkalarekin, ama eredu horrekin?*

N. Guztiz, o sea, guztiz, eta gainera esateizut batzuk egiten degu ariketa, gatazka sortzen digu ez dakit ze, bueno es que askotan pentsatzen degu batzuen artean esaten dezu nik bakarrik euki nezake haur bat. Ardurei lotuta eta esatezu, beste gauza bat da zuk erabakitzen dezula bikoteakin ibilbide bat egitea ez dakit ze... baina guztiz lotuta dago sistema patriarkalarekin, eta ez detena ulertzen da nola hainbat emakume historikoki eta beraien bizitzan mugimendu feministaren alde lan egin dutenak, neretzako erreferentzia bat izan direnak, bapatean ikusten ditut emakume bezela guztiz... blokeatuta, o sea, anulatuta. Beraiek defendatzen dute, bueno nik hitz egin izan det asko beraiekin eta beraiek ikusten dute dela feminismoaren beste alor bat. Hori, o sea, orain garatzen ari direla beraien bizitzan feminismoaren ama feminista horren beste eredu bat. Eta dela emakume bezela zuk daukazula aukera eta eskubidea egiteko bakarrik zuk, emakume bezela.

G. *Eta ikusten dezu loturarik hori eta edoskitzaroarekin, , o sea, bularra edo biberioaren aukeraketa eta ama eredu horren aukeraketarekin ikusten dezu loturaren bat?*

- N. Guztiz. Es que gainera nik uste edoskitzearen kontu hori, a ver, e?, nahi gabe erabiltzen dutela eskusa bat bezela. O sea, hori esplikatu edo arrazoitu ahal izateko. Karo, nola edoskitzea dagon, nola bularra eman behar diodan egon behar naiz hemen denbora guztian.
- G. *Ezinbestekoa naiz.*
- N. Eta behar nau. Hori da, ezinbestekoa naiz. Ordun, o sea, horregatik nik esateet ikusten detela beste mailako... porque da bale, zuk bularra eman ahal diozu eta nik uste edoskitzearen kontua zuk erabili dezakezu elikadura bezela edo bizi eredu bat bezela. Ez eta hor dago nere ustez desberdintasuna. Porque gero ere esan nahi det nere inguruan badaukat jendea eman diona elikadura bezela 4 hilabete, 8 hilabete, inkluso urte terdi gauetan, eta bueltatu dena pertsona bezela eta emakume bezela, bere bizitza erritmorra, bere barne gatazkekin, bere historiekin. Ordun, nik ikusteet hori guztizko lotura, ni planteatzen ari naizen lehen eredu hori, o sea, ama eta ama besterik ez diren pertsona hoiena gutiz lotua dijoala, baina gehiago hori eskusa bezela edo arrazoi bezela lotu ahal izateko, eta gainera iruditzen zait badagoela momentu bat haurrari ez diola on egiten. O sea, emaitzetan , o sea, komunikazioari lotuta, desberdintzeari begira sentimenduak egoerak..., o sea, zuk nekearen aurrean ematen badiozu bularra, gosearen aurrean ematen diozu bularra, beldurarren aurrean ematen diozu bularra, minaren aurrean ematen diozu bularra, beroaren aurrean edo hotzaren aurrean ematen diozu bularra, o sea, karo dago momentu bat eta inkluso gero ikusi izan ditut bularra kentzeko edo edoskitzea mozteko momentuan... bai haurrarekiko eta baita ere amarekiko, e?... ze ere ama horrek , o sea, tresna bezela erabili du bularra, orduan momentu batean geratzen da estrategia gabe. Eta inkluso bikotearen artean ere. Neri adibidez, atentzioa deitzen zidan nere bikotearen kuadrilan ateratzen zan gai hau eta pos Saioak ingo ditu hiru urte orain abuztuan, pos ume honek ingo ditu lau urte abenduan, pos orain zan, o sea, ditu hiru urte terdi, lehen egunak aitarekin lotara juten zena. Inoiz ez zen jun aita lotara haurrarekin.
- G. *Ez zekalako titia.*
- N. Karo... eta aitak bizi zun como que guay. Pos nere bikoteak esaten zion: “iruditzen zait super tristea ezin joan ahal izatea zure haurrarekin lotara”.
- G. *Eta gainera horrek esan nahi du amak egon behar dula egunero haurrarekin.*
- N. Nik hori esaten nun, o sea, hiru urte terdi ez da egon gaueko 9tatik aurrera pertsona hori, o sea, es que ya ez dizut esaten kalean, esaten dizut silloian, o sea, ez dakit...
- G. *Bai, bai, edo dutxatzen porque le apetecia...*
- N. Eta ni hori, o sea, esateet, o sea, nere ustez biberoiaren kasuan psikologikoki ni egon behar izatea edoskitzearen konturako psikologikoki badakit kriston pixua izango zela. Jakinda esateizut egon naitekela lehenengo sei hilabeteak lehenengo urteak berarekin. O sea, en plan... baina hori horrelako detaileak, nere ustez daude estremoraino eramanda.
- G. *Bai bai... eta ezagutzen dezu amatasun intentsiboa kontzeptua?*
- N. (buruarekin ezetz egiten du)
- G. *Eta zer etortzen zaizu hola?*
- N. Intentsiboa?
- G. *Bai...*
- N. Ba ez dakit ez, intentsibitate handiak edo...
- G. *Es que zuk deskribatu dezuna dago pixka bat definitua feminismoaren alde batetik, amatasun intentsibo moduan. Da pixka bat beti... zuk ez dezu guztiz hola esan, e?, baina garatuago esplikatuta, amatasun intentsiboa bizitzen duen ama da pixkat beti haurraren*

beharrak bere aurretik jarri behar dituna, ama on sozial egokia, inoiz erreko ez duna, inoiz edango ez duna, ez? Haurrak behar badu bera da jungo dena, pixka bat da, beti lehenik izango dena ama, baina ez ama berarentzat baizik eta haurraren beharrak beti egongo dira bereen aurretik.

- N. Bai es que hori da, ez? Baina nik estaeet nere kasuan, nere haurraren beharrak, o sea, ni izango naiz ama, o sea, argi eta garbi daukat, ze nik egun batean plan bat baldin badaukat eta nik baloratzen badet Saioak edozein arrazoi dela medio edo nekatuago dagola, edo gaixo dagolako imajinatu, edo hurrengo hiru egunetan eskurtsioz dijoalako eta berarekin egon nahi detelako, ez dakit, nik erabakiko det aldatzea , o sea, berarekin egoteko, o sea, ama bezela, bainan badaude beste egoera asko, o sea, tranpa egiten degula. Ez dula behar haurrak, dela gure kontua. O sea, atzo gauean hemen , o sea, Saioa zegon afaltzen eta nahi zun ikusi Astokiloak, eta ordun esaten zion bere aitak, ba zuk jan eta gero jarriko ditugu Astokiloak. Eta ordun berak jaten zun eta esaten zun: “ya bukatu det”, eta zan astokiloak ikusteko. Behar bat da Astokiloak ikustea? Ez, o sea, afaltzea da beharra. Ordun momentu baten nik esaten nun: “ez dago astokiloak”. Harrapatu zun kasketa bat!. Baina hor bere beharra zer da Astokiloak ikustea? Ez. O sea, ordun, ni ere ikusteet intentsibo bezela definitzen dezun horretan, e?... Ez dela egia, gainera haurraren beharrak jartzen direla, dela tranpa egiten dena. Dela zure beharrak asetzen dituzu esanez haurrak behar ditula. Oso lotua dioa adaptazio garaiarekin adibidez. O sea..., horrelako edoskitzearekin jarraitzen duten haurrak, nik ezagutzen det jendea irailan hasiko duna adaptazioa, esaten diozuna: “ze irailan ikastolan hasiko da?”; eta esaten duna: “ikusiko degu ea nola adaptatzen da, ez bada adaptatzen ez da hasiko”. Nere ustez da zu maiatzean esaten bazaude hori ez da adaptatuko ni de palo haur hori, porque zuk ez dezu nahi adaptatzea, ze karo, ikastolan adaptatzen bada ea ze egiten dezun zuk ordu hoietan. Eta haurraren beharrak lehenago jartzearen ere definitzen denean, asko esan nahi da sozialki ikusten dena, o sea, sozialki ikusten dena haurraren beharretarako egon behar dezula. O sea, del palo ezin dezu zuk jun bost egun oportretan zure kuadrilarekin haurra utzita...
- G. *Ama ezin da jun aita bai. Hori da.*
- N. Hori da, baina nik hor bai ikusten det sozialki ere kontraesan pila bat daudela. Ni ados nago horrekin, edo afaltzea zoaz eta qué suerte tienes eta ez dakit ze,. Baina gero ere egia da sozialki bularra ematearena edo edoskitzearen kontu hori hilabete batzutan edo urte baterarte, bai baina gero egia da... ere, eta jendea azkenean bularraren kontua esaten deguna gure amonak, nik ez dakit, baina igual ematen zieten ez dakit zenbat urterarte jaten. Eta emakumea ez zen hainbeste denbora kalean egoten..., seguruna ez zun bularra aterako edozein lekutan, eta de hecho nik uste gaur egun egiten dutenak gero eta gehio egiten dutela. Eta hori neri ondo iruditu ahal zait, o sea, baina sozialki bai dago hor historia bat: “¿pero todavía le das teta?” Edo inkluso ez bakarrik horrekin, ume batek negar egiten badu , o sea, ez, eta esaten badiozu eta: “ay pues tiene kasketa”, sozialki momentu baten esaten dizute: “como tampoco le haga tantos mimos”, edo mehatxuen kontua. Nik atzo lehen ikusi degun haur hori, hori da bere amona, eta zeukan kamixeta horrela, zegon koxka egiten, koxka egiten, eta esaten zion: “utzi koxka egiteaz ze bestela bihar ez goaz parkera”. Como que tiene que ver con que, igual da agineko mina, igual dago lotsatua... Saioak txupete erabiltzen du adibidez, en plan, eta hori bai biberoia hartzeaz aparte, uste det hiru egun tardatu genula. O sea, oraingoan txupete eramango det ospitalera. Ez dakit jarriko diodan edo ez, baina ez naiz ibiliko histori horrekin de egun bat edo hiru egun edo ez dakit ze. Baina jendeak, eta berriro esaten det, ez da helduen gauza , o sea, gazteek ere

esaten dute: “horren haundia eta txupeteakin?” Eta ni goatzen naiz txikitik nekan, ze lehenengo gauza txikia delako eta bigarren gauza eduki nahi detelako, eta sozialki zan: “ah! baina ikusiko dezu gaizki ohituko da eta gero ez du egingo... edo qué malo eres!” Eman muxu bat, ez dio ematen astzensorean emakume bati, ze ez du ezagutzen eta: “que mala eres”, eta ordun sozialki, eta gero hori jendeak uzten baldin badu lana. Porque esaten dezu ama bai, baina gero amak lana uzten badu ere es como: “ya pero con lo mal que estan las cosas...” Ordun nere ustez sozialki badago historia bat, da edoskitzearen asuntoarekin bezela, neri beti atentzioa deitu dit, o sea, eta nik uste ni konbentzituria egongo banintz bularra ematearena, o sea, lortuko nula, en plan lasai... ez dakit hori, baina neri eta esateizut ikusita egin nahi dun jendea dago dena karteletz beteta edoskitzearen aldekoa: “eman bularra, es natural es no se qué...”, eta gero en cambio, medikuntza arlotik eta sozialki dago como: “ay! chica dale un biberón que tiene mas hambre que la leche”, ez? Edo ez dakit ze. Ordun nik sozialki, ikusteet baietz baina baita ere ezetz. Hor dago lo que tiene que ser y lo que es ideal baina gero benetako ez ni hori, eta gero iruditzen zait haurra jaiotzen denean dela jendeak esaten du nahi duna. O sea, nahi duna ezagutzen ez zaitun jendeak, ezagutzen zaituna. Ya haurdunaldian, ya esan dizut lehen, ya supermerkatuan zeuden hitz egiten: “de si tenia baja la tripa o no, si va a llegar o no”, era como... ez, baina gero jaiotzen denean...”

G. *Tú que eres tan experta...*

N. Hori da, que eres la cajera, con todo el cariño pero... ta gero, jaiotzen denean , o sea, ni beti entzuten nun eta egia da desde que tiene frio, tiene hambre, tiene calor, ay no le pongas así... Goatzen naiz behin erresidentzian zegoen kontzentraren bat edo hola, eta zegoen Larrea bere ume txikiarekin, eta hola egin genion (aupas hartu buruaren gainetik) eta etorri zan emakume bat beste puntatik, ez dakizu esan zizkigunak: “baina ez egin hori mesedez”, ez dakit ze, o sea, en plan como... Lehengoan ni Kontxan nengon eta zan lehenengo aldia gainea, kendu nun kamixeta eta eman nun krema ondo eta paseatzen eta emakume batek esan zian, que por favor me tapara la tripa que eso era muy malo para el niño, eta esan nion: “pues no me voy a tapar la tripa”.

G. *Eta hori nola bizitzen dezu zuk, gauza guzti hoiek? Ama izatean bapatean zentro bilakatzea eta komentario guztien zentro eta hori dena nola bizitu dezu?*

N. Bai. Ba nik uste nik euki nun aukera lehenago nere inguruan nola gertatzen zen ba banekin.

G. *Ah...defentsa bat edo sortu zenun?*

N. Bai, esateizut kriston ariketa eginda, e?, baina ez naiz sartu, e?, ez nere amarekin ezta nere bikotearen amarekin. Ze askotan, nik uste igual nere amaren kasuan, ez da bakarrik amatasuna, historikoki iritzi ezberdin asko izan ditugu gai askoren inguruan. Eta ordun errespetatzen ditu eta nik ere. Ordun adibidez, astean behin nere aita eta amarekin egoten da Saioa, txiki txikitatik zela, eta badakit gauza asko beste era batera iten dituztela eta esango dizkiotela. Nere aitak jarraitzen du esaten: “e!, jaso hori edo txakur bat etorriko da eta koska egingo dizu”, o sea, ya es como ja-ja... Eta ez naiz sartuko eta badakit arrazoa izango zen atxaldero berarekin badago eta hola itzeiten badu. Baina txakurra dator, y es como oaintxe bertan. Hori hola, eta nere bikotearen amarekin pues... da berdina. Zu momentu batean planteatzen badiozu batzutan beretaz arduratzea pues errespetatu behar dituzu gauza batzuk, bera bai dela gehio de la vieja escuela de “hau egin behar da horrela, hau horrela”, o sea..., nik ustet haurra eduki baino lehen , o sea, harremana errexagoa zela, o sea, haurra edukita igual... baina hori ere adostua daukagu, bere etxean berak hitz egiten du, eta nere etxean nik hitz egiten det, eta batzutan ez det ikusten.

Nahiago det ez ikusi. Baina egia da zaintza ere ez diegu beraiei eman, ordun gehiago da egoteko bezela egiten degu, pos bai astean egun bat nere aitak hartzen du eguerdian eta atxaldea berekin egoten da, eta eguerdi bat astean zehar Txema doa bazkaltzera eta rato bat egiten dia. Hola... ez dakit zein zen galdera egia esan.

- G. *Ea sozialki nola bizi dezun zentro bilakatzea eta hainbeste komentario eta hori. Komentatu dezuz zure gurasoekin eta nola bizitu dezun eta ondo kudeatu dezula azkenean.*
- N. Bai, o sea, orokorrean, nik uste haurarekin ezetz, e?, baina hori, ni badakit zer egingo deten eta badakit gainera, o sea, hori holako gauzak egongo direla kanpoan baina inportanteena dela egunerokotasuneko, ez?, zure... pautak edo erreferentziak. Eta gero ere, guk adibidez, bikotearen artean asko landu degun gauza bat da, eta igual da gelako oso pesaus teorikoki eta, baina gu eredu bat izatearena. O sea, en plan, o sea, nik ezin diot esan ezin dezuz bazkaldu telebista aurrean, nik bazkaltzen baldin badet telebista aurrean. Hizkuntzaren kontuarekin ere konturatu gera batez ere, o sea, bat euskara erabiltzea, o sea, hori da klabe, hau da zuk ezin dioz berari edo beraiei euskeraz aritzeko eta gure artean...ez, baina da berdin edozein gauzarekin. Eta gero Saioa geratzen da gauza guztiekin, pentsatzen det haur guztiak, o sea, en plan baina... zuk esaten badioz zapatak ez dakit ze eta gero zuk egiten badezuz... Semaforoekin , o sea, duela ba hori ikasten ari zela duela hilabete batzuk semaforoen kontua egun batean gindoazen autobusera hiruak korrika eta pasa genun semaforoa gorrian ba igual egon zen bi aste esaten: “amatxo eta aitaxok pasa zutela semaforo bat gorrian”. Ordun eredu izatearena neretzako bai dela klabea, ez?, jateari lotua ere, o sea, denetarik jaten du, guk ere, o sea, en plan, nik gero eta argiago daukat haur bat ikusten dezuz eta bere gurasoak ikusten dituzuz... bai, adin hoietan, e?, aurrerago ez dakit, e? Ni ez dakit zer gertatuko den 4 urte, 6 urte, 8 urte, o sea, anai arrebak ditunean, ez?
- G. *Asko aldatzen da ebai.*
- N. Ez dakit, maila hortaraino. Eta gero duela gutxi egon ginen hitzaldi batean, hola tipo batena, guraso eskolan, eta bukaeran esaten zun, sentido común, eta denak hola... eta zan sentido común, ez eta, esaten zenun pos bai egia da. Baina bai nik ustet hori, e?, o sea, amatasunaren kontua nik ustet izan dela beti esan det sententzia de errexa. O sea, hola... a ver egia da Saioa ez dula, es que hor daude gauza asko. Adibidez ere, zu kontuatzun ze zu gainea esperta ze hortan, kolikoen kontua. Gu txikitan kolikoak genitun, gure amonek haurrak hezitzen zituztenean kolikoak zituzten?
- G. *Deituko zieten beste modu batera. Hartuko zituzten eta benga.*
- N. Pos es que, ni gutxi bidaiatu det baina egon ginen Asian hola, Tailandian eta Laos eta Kanboian udara batean eta Txema eta ni askotan goatzen gea tio, ume txiki txikiak beren anai arrebekin lotuta, baina goatzen nahiz behin egun bat egon zan gurekin 4 urteko haur bat 7 hilabeteko bere arrebarekin lotuta. Eta juten zen bere amarengana bularra emateko. Ume horrek ez zitun kolikoak. O sea, haur hoiek ez dituzte kolikoak...
- G. *Atentzio gutxiago dutela.*
- N. Bai, edo, igual ere, pues hori es que igual haurrek ere hasieran behar dute zurekin egon, o sea, en plan edo..., ez? Edo ukitzea..., ez dakit nere ustez hor daude gauza batzuk, da como, bularra ematen dioten kopuru batek eduki behar ditu kolikoak.
- G. *Esan nahi dezuz ere ematen zaion esanahia, ez? O sea, guk igual hemen ematen diogu esanahia, bueno pos: “es que orain kolikoak ditu eta hau egin behar da”. Igual beste toki batean eukitzen dituzte eta horren ondorioz ez dute pairatzen negar hori...*

- N. Eta inkluso beharra, ez? Entzutea besteak : “pos nereak ere eduki zitun kolikoak”.
- G. *Konturatzea ez zerala bakarra, nik hori ikusten det lanean. Bai, beltzak adibidez, beltz beltzak dianak, Afrikatik etorri dianak dela hiru hilabete ume hoiek desde luego ez dute ezer behar izaten, ez? Edo eta ez baldin badie hartzen ez dakate inungo arazorik, egiten dute ez dakit zer piribi paraba, amatasuna beste modu batera bizi dute, ez?*
- N. O sea, nik uste gero oso, o sea, nik uste guztia nahastuta dijoala, beste aldetik gu gea emakume zainduenak ere, o sea, guzti hori ere oso ona dela, ez? Baina... nik orokorrean beti pentsatu det da erditzearena bezela, ez? Que si epidural, que si no, que si no se que..., a ver munduan emakume guztiek, guztiek historikoki erdi degu, erditu dute... A ver egia da nere aitona ama hil zen bere anai baten erditze batean, o sea, egia da, gaur egun igual hori ekiditu daiteke, o sea, ez? Baina erditu pertsona, emakumea prestatua dago.... ez dakit...
- G. *Bai ulertzen dizut. Eta zuk erditu aurretik, nun bilatu zenun informazioa?*
- N. Ba... nik entzuten nun nere inguruko jendea batzuk juten ziren leku batera bestera... en plan, eta nik adibidez erditzearekin baneukan, o sea, igual que bularrarekin ez neukan, o sea, ya kontrakoa emateagatik, ya ez dit emango bularra, o sea, edo ez nun ezagutzen eredu bat bularra ematearena ni beteko ninduna, e?, nahiz eta ikusi esateizut daukat laguna eta gertukoak eman diona elikadura bezela hilabete batzuk. Baina ere izan zian 4, 8 hilabete hor egin behar zutenak eta ez. Baina en cambio erditzerarekin baneukan erronka moduan edo..., eta ordun egia esan haurdun geatu nintzan eta hilabete batzuk pasa zianez batetik anbulategian iritsi zan momentua zeinetan planteatu ziaten parto edo hastea eta ordun nere ahizpari galdetu nion, ze nik entzun nion juten ziala beste toki batera hor San Bartolome kalean. Eta galdetu nion: “a ver, zertako juten zeate horrea hau baldin badago?” Eta berak esan ziana zan , o sea, nere ahizpak esan ziana zan momentu batean bera bietara jun zela eta anbulategi honen kasuan , o sea, gehiago teorikoagoa zela, eta ba egia esan hemen ere auzoan eta ezagutzen nun jendea hauekin ibili zela, eta de hecho nere ama nere ahizparekin beraiekin egon zan. Nere ahizpa gazteago da eta bera izan zen lehenengoetako parto pribatutik egin zuna eta beraiekin. Eta gero zegon beste gauza bat gustatu zitzaidan hor eta horregatik ere jun nintzan, dia 8 saio eta bikotea dijoa, o sea, zu zoaz saio bakoitzean bi ordu biak eta batean dijoaz emakumeak ariketak egitera eta ez dakit ze, eta bigarrena da gehiago ariketa batetik ariketak egiten dituzu bikoteak edo lagunduko dizutenak, lagunduko dizutenak azken txanpan eta inkluso erditzeari begira ba haurra jaiotzen denean ordun horrek bere atentzio deitzen dit, eta zian. Eta goetzen naiz bikoteari esan niola: “aizu ekaineko ez dakit ze egunetan 7 tan han egon eta , o sea, vete puntual porque...” Eta goetzen naiz lehenengo saiotik atera ginan eta esan zian: “ostia Naroa, gustatu zait pila bat eta en plan pozten naiz pila bat etortzen hasteaz”. Porque egia da , o sea, guretzat berria da, haurdun gaudenentzat, beraientzat, o sea, pffffff, nik ikusten ditut batzuk, orain berriro ari gera juten, porque gero dago jendea esaten duna: “bigarrenarekin ez dezu behar”, o sea, ni desde luego, igual badakizkizu gauza asko eta erreparatzen dituzu, baina dago ariketen rolo guztia eta neretzako ni askoz hobeto egon izan nahiz 8, 9 hilabetean 6 eta 7 garrenean baino, ariketa aldetik etabar. Eta gainera aukeratu nun leku hau baita ere beraiek teoria, bo teoria bat baino gehiago, esperientzia asko daukate eta ordun beraiek badakite zer den orokorrean hobeagoa, bai erditzeari begira baita ere gero ba hori ez edoskitzea edo biberoi edo alternatiba ezberdinei begira baina gehien gustatzen zaidana da respetoa.
- G. *Bueno es que da super klabe, ez?*



- N. Ba ni goatzen naiz hori da, baina leku askotan ez dago, nik dakit lekuak jun izan dena eta lenengo saioan jun dena. Edo behin edukita ez dakit ze hitzegiten hasi dena eta esan duena ez, o sea, ez. Ordun ez dago, eta netzako hori klabea izan da. Ni goatzen naiz hasi baino lenengo aldian beraietako batek egiten dizu fitxa antzeko bat bete, eta hor galdetzen dizu que nik momentuan pentsatu nun, galdetzen dizute a ver haurreskolara eramango dezun haurra eta zaude haurdun 6 hilabetez, eta gero galdetu zian ze asmo neukan, eta nik esan nion nere asmoa zala biberioia ematea, eta esan zidan hori que..., o sea, es que ez dakit komentatu nion igual ez zaio ondo iruituko, eta esan zian: “a ver, zure haurra da, nik emango dizuet nire iritzia, o sea”, en plan, eta gainera nik esateizut Garazi, nik badakit, o sea, naturalena haurarentzat dela bularreko esnea azkenean behiak ematen diote behiearen esnea, txerriak txerriarena, o sea, hori da la naturaleza, ni hortan ez naiz sartuko, baina hori nere ustez errespetuaren kontu hori eta beraiek esaten dute, beraientzat sanoena edo naturalena epidural gabe erditzea dela, baina beraiek esplikitzen dute dauden aukera guztiek, eta inkluso esaten dute momentu batean: “zesarea programatu bat egin nahi badezu?” Pos eduki, porque egia da que azkenean segun nola daukazun burua zure erditzeak bukatuko du fijo zesarean, en plan ordun....
- G. *Eta gainera oso gaizki bizitzera iritsi zaitezke, ez?*
- N. Hori da...
- G. *Bai bularrarekin, bai erditze motarekin bai ez dakit ze..., o sea, gainera hasten zea irakurtzen batzuk trauma bezela bizitzen dute eta.... modua izan daiteke trauma bat bezela bizitzea eta beste modu bat gauzak arraioitzea eta beste buelta bat ematea asuntoari, ez?*
- N. Hori da eta gero adibidez oaintxe Goenkaleran idatzi nun duela hilabete pare bat. Ikustezu Goenkale?
- G. *Ez..., ez dakat telebista...*
- N. Ah, mira tú!, otra... ba imajinatu nere saio favorittoa dela Goenkale... Ah!...(parrak). Bueno pos erditze bat zegoen nexka gazte bat haurdun eta ordun hasi nintzenez prestatzen erditzea esaten non: “pero si esto no tiene nada que ver con... entzun dezun guztiarekin, telebistan ikusi dituzun erditzearekin inkluso ez”, jendeak esaten zun, oso gogorra erditzea, eta esaten zenun es que ya ze erditze... es que ni hasi nintzenez enteaten eta formatzen eta esaten nun ze erditze ez da gogorra, ez? Ni goatzen naiz goian momentu batean matrona horrek esan zigun media erditzearena zela 27 ordu, karo nere bikotea zegoen “como, como 27 ordu?” Horrek esan nahi du daudela 40koak eta daudela 15ekoak, baina 15 edo 10koak baina gutxiagokoak ez daude. Beste gauza bat da ze intensidadearekin, zenbat denboa zoazen. Eta Goenkalean...
- G. *Eta gauza bat da espulsioa, eta beste bat...*
- N. Bestea. Ni goatzen naiz nere iloba jaio zan 2009ko maiatzean, ni gero nere ahizpakin bigarrena euki zunean oso desberdin jun zan prestatua, baina zan como nere ahizpa kunplitu zun egunetik edozein gauza sentitzen zun eta Resira juten zan e!, eta karo esaten zioten ez, ez. Eta egia da 17 egun beranduago jaio zan, baina igual 14.anean jun zan como: “ni ez noa etxera gehio”, eta karo egon zan 3 egun han, probokatu zioten eta goatzen naiz gaueko 9tan sartu zutela paritorioan, tipiko nere amak esan ziala: “ya paritorioan dago”, eta gu ginen alde zaharrean, ostiral bat zen, eta egin genun en plan: “ah! ospatuko degu jaioko dela nere iloba”, eta goizeko 5etan jun nintzen etxera eta karo ez zan jaio. Eta goizeko 9tan con un clavo de la leche de..., mezu bat de jaio da, eta karo esaten dezu paritorioa ba sartuko zuten lehenengo salan, dilatada de 3 cm, es que karo, ordun luzea ez, barkatu es que hori erditzen noiz hasten da. Ordun ez daukagu

ezagutzarik. Eta Goenkalekoak kontatzen nizuna. Joe! Goenkale, izango da nahi deguna, baina sozialki jende pila batek ikusten du.

G. *Hombre eta eragina daukala.*

N. Lantzen dituzte gai pila bat, hobeto edo okerrago, baina lantzen dituzte. Eta ordun, dago neska bat gaztea, ez?, o sea, jo tio, landu gaur egun gehio horren inguruan. Gainera dagon teoria guztiarekin no se que, pa empezar no va a una clase preparato ni de peitx, o sea, hori jarri zen erditzen bere bikotearen amarekin zegola etxean sofán, eta deitu zun anbulantzia bat eta etorri zenerako anbulantzia ya erditua zegon, prakak jeitsi gabe, o sea, que era como, o sea..., eta gainea hori (putz egiten du), o sea, en plan, nik jarri nun korreoa, eta ez dit inork erantzun. Baina era como aizu: “beitu, egia da haurdun nagola ea igual oso sentsibilizatua nagola gaiarekin baina iruditzen zait gaur egun...”

G. *Pasada bat da distorsionatzen da pila bat...*

